



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOIA

BEHAR SOZIALEI BURUZKO INKESTA 2018

PGDI-POBREZIA MODULUA

*Emitza nagusiak
2019ko ekainaren 18a*

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo
Espezifikoa*



AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. Pobreziaren eta prekarietatearen inpaktu orokorra	9
1.1. Pobrezia eta prekarietatea mantentzeki dagokionez (diru-sarrera erabilgarriak)	9
1.1.1. Pobreziaren eta ongizaterik ezaren adierazleak	9
1.1.1.1. Eurostat adierazleak	9
1.1.1.2. PGDI adierazleak	11
1.1.2. Gabezia-adierazle espezifikoak	12
1.1.3. Atalasearekiko PGDI distantzia-adierazleak	19
1.2. Pobrezia eta prekarietatea metatze-alorrean (ondarea eta epe luzeko bizi-baldintzak)	21
1.2.1. Metaketako pobreziaren PGDI adierazleak	22
1.2.2. Gabezia-adierazle espezifikoak (metaketa)	23
1.3. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen adierazle sintetikoak	29
1.3.1. Alderdi orokorrak	29
1.3.2. DSBE/EPO/GLL sistemaren eragina	34
2. Arrisku handieneko egoeran dauden gizarte-taldeak eta eremuak	41
2.1. Benetako pobreziaren eragina, demografia-aldagaien arabera	41
2.2. Benetako pobreziaren lurralde-eragina	65
3. Desparekotasun-adierazle nagusiak	73
4. Prekarietatearen ezaugarriak adingabeen artean	77
5. Euskadi Europako testuinguruan	81

1. ERANSKINA: Adierazleen eta definizioen glosarioa	85
1. Pobrezia eta prekarietatea mantentzeari edo diru-sarrerei dagokienez	85
1.1. Definizioak	85
1.2. Mantentze-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak	87
1.3. Mantentze-arloko Eurostat pobrezia- eta prekarietate-adierazleak	88
1.4. Pobrezia- eta prekarietate-adierazleak tratatzeko erabilitako indizeak	89
1.5. Diru-sarreraren kontzeptua	90
1.6. Gabezia-adierazleak	92
2. Metaketako pobrezia- eta prekarietatea (bizi-baldintzak eta erreserbako ondarea)	94
2.1. Definizioak	94
2.2. Metaketako PGDI pobrezia- eta prekarietate-adierazlea	95
3. Benetako pobrezia eta prekarietatea	99
3.1. Definizioak	99
3.2. Benetako pobreziaren PGDI adierazlea	99
4. Desparekotasun-adierazleak	102
2. ERANSKINA: 2016-2018 aldian pobreziaren eta prekarietatearen dinamikan kontuan hartu beharreko faktoreak	103



Sarrera

Gizarte-zerbitzuen eskariari buruzko estatistikan eta gizarte-premiei buruzko inkestan (GZEE-GPI) pobrezia eta gizarte-desparekotasunei buruzko inkestaren (PGDI) modulu bat aplikatzeari dagozkion emaitza nagusiak jasotzen ditu dokumentu honek.

Txostenaren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia eta ongizaterik ezari buruzko adierazleak aztertzea, lehentasunez azpimarratuta Europar Batasunean (EB) erabiltzen direnak eta PGDIan berariaz sartutakoak. Biztanleen arteko baliabideen banaketari epe ertain eta luzean eragiten dioten egiturazko joera nagusiak ere kontuan hartzen ditu txostenak, batez ere 2016-2018 epeari dagozkionak.

Txosteneko 1. kapituluak Euskadiko pobrezia eta prekarietatea neurtzeko adierazle nagusiei buruzko informazioa ematen du. Adierazle horien barruan daude Eurostat sistemako adierazle orokorrak (pobrezia erlatiboa, pobrezia larria eta AROPE tasa), bai eta PGDI sistemak emandako benetako pobrezia adierazlea, mantentze-pobrezia (sarrerak) eta metaketa-pobrezia (bizi-baldintzak eta erreserbako ondarea) ere. PGDI adierazle-sistemari dagokionez, diru-sarrerei dagokien pobrezia atalasearekiko distantziari buruzko datu erlatiboak ere ematen dira. Kapituluak Eurostat eta PGDI hurbilketetan erabili ohi diren gabezia-adierazle nagusiei buruzko informazioa ere ematen du.

Zehazkiago, lehen kapitulu honetako azterketak, alde batetik, azpimarratzen du nolabaiteko egonkortasun-dinamika bat dagoela 2016 eta 2008 artean pobrezia larriaren Eurostat adierazlean (medianaren % 40), AROPE tasan eta benetako pobrezia PGDI tasan, mantentze-pobrezia PGDI tasa (sarrerak) neurritz handitu arren.

Paraleloki kontuan hartzen dira argi eta garbi hobeak diren elementu batzuk, pobrezia adierazpide gogorrenetako batzuen murrizketari lotuta daudenak. Bereziki, horri dagokionez, nabarmentzekoa da metaketa-pobrezia murrizketa (epe luzeko bizi-baldintzak eta erreserbako gutxiengo ondarea izatea), bai eta gabezia materialaren Eurostat adierazlearen jaitsiera ere. Dinamika on horrekin batera, 2016 eta 2018 artean, eta pobrezia neurketarekin zerikusia duten alderdietan, nabarmen murriztu dira elikadura izateko ziurtasunik ezari lotutako arazo larriak, bai eta pobrezia larriaren adierazpideei lotutako beste adierazle batzuk (hornidura etetea, jabetzak saldu behar izatea, etxez edo ikastetxez aldatzea arazo ekonomikoei aurre egiteko) ere.

Izandako bilakaera onak zerikusia du 2016 eta 2018 artean pobrezia-adierazleetan nahiz oinarritzko gastuak murriztu behar dituzten familietako pertsonen proportzioan paraleloki izandako jaitsierarekin (hala ere, funtsean bere horretan jarraitzen du gastu horiei ezin aurre egin diezaieketela dioten familietako pertsonen pisu erlatiboak, bat etorrira benetako pobrezia PGDI adierazlean ikusitako egonkortasunarekin).

Aztertutako biurtekoan pobreziari lotuta ikusten diren okertze-elementu batzuk ere jasotzen ditu txostenak. Elementuok, funtsean, pobrezia energetikoari lotutako adierazleei (tenperatura egokirik ez izatea neguan eta hezeguneak etxebizitzan) eta jantzi eta oinetako egokiak (bigarren eskuko arroparen erabileran oinarrituta nahi gabe berritzeko moduak barne) izateko aukerari lotuta daude.

Dokumentuak, lehen kapituluan, bestalde, prekarietate-arazorik orokorrenak neurtzearekin zerikusia duten adierazleen gorakada orokortuari helden dio, bereziki pobrezia-egoerei zuzen lotuta ez dauden arazoei dagokienez. Hautemangarria izaki pobrezia erlatiboaren tasaren igoeran edo Eurostat sarrera apaletan (medianaren % 60), bai eta ongizaterik ezari buruzko PDGI adierazleetan (mantentzea, metaketa eta benetako ongizaterik eza), problematikak lotura argia du aurrezteko gaitasuna galtzearekin, zeina, 2016 eta 2018 artean, Euskadin bizi diren pertsonen zati baten ezaugarria baita. Testuinguru horretan, bereziki deigarria da aparteko gastu (2018an, 860 euroko) bati aurre egiteko bitartekorik ez dutela dioten familietako pertsonen proportzioari buruzko adierazlean ikusten den igoera nabarmena.

Aurreko urteetan bezala, kapituluan aztertzen da zer eragin duen DSBE/EPO/GLL sistemak pobrezia gaitzitzeari lotutako premien estalduran. Txostenak adierazten du sistema horrek babes erlatiboko mailari eutsi diola 2016-2018an. Euskadin ezarritako prestazioen ekarpenaren pisua askoz handiagoa da oraindik ere, benetako pobreziako egoeran dauden biztanleen artean, Estatuko Administrazio Orokorraren prestazioei dagokiena baino, pentsioak ere kontuan hartuta.

Bigarren eranskinak lehen kapitulua osatzen du, eta honako paradoxa hau azaltzen duten faktoreetako batzuetan sakontzen du: pobreziari eta ongizaterik ezari buruzko adierazle batzuetan goranzko presioa gertatu da ekonomiak hazkunde handia izan duen eta langabezia jaitsi den egoera batean. Gertatutakoak ondo interpretatzeko erabakigarriak diren bi kontu azaltzen ditu eranskinak: alde batetik, familien kopurua asko handitu da 2016 eta 2018 artean, nagusiki, gainera, pobrezia- eta prekarietate-arrisku handiagoa duten kolektibo batzuekin (gazteen edo atzeritarren familiak); bestalde, gastuetan sarrerez den bezainbatean gertatutako igoera diferentziala, faktore hori lagungarria baita azaltzeko erreferentziazko biurtekoan EAEko familien aurrezpen-adierazleetan izandako dinamika negatiboa.

Txosteneko bigarren kapituluak pobrezia-egoerek gehien eragindako taldeak eta eremuak aztertzen ditu. Benetako pobreziaren adierazlea da azterketaren ardatza, eta 2016 eta 2018 artean ez ezik, orokorkiago, 2008ko krisiaz geroztik izandako aldaketa garrantzitsuenetako batzuetan ere sakontzen du.

Gehien eragindako gizarte-taldeei dagokienez, haur-pobreziaren murrizketari lotuta dago aldaketarik deigarriena. Hala ere, pobrezia-adierazleek okerrera egiten dute 45 eta 54 urte arteko pertsonen artean, bai eta 15 eta 24 urte artekoengan ere. Dinamika horri lotuta dago txostenean adierazitako paradoxa hau: seme-alabak dituzten familietan benetako pobreziak gora egin du haur-pobreziak behera egin arren.

Dokumentuak, era berean, pobreziak gizarte-taldeen arabera izandako dinamikari buruzko zati horretan, 45 urtetik gorako pertsonen familiek gizarte-fenomeno horretan egindako ekarpena erlatiboki handitu dela jasotzen du. Joera horrek lotura du, neurri batean, EAEko gizarte zahartzeko prozesuarekin, baina bai



eta etxe horien egoera sozio-ekonomikoaren okertze konparatuarekin ere, 65 urtetik gorako pertsonen etxeak ere kontuan hartuta (batez ere erreferentziazko pertsona emakume bat izanez gero).

Txostenaren zati honetan jasotzen diren beste gizarte-alderdi garrantzitsu batzuek zerikusia dute, bateko, benetako pobrezia-tasak handitzearekin lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen etxeetan, eta, besteko, pobrezia-aren banaketan gero eta pisu handiagoa izatearekin landun egonkorren bat duten etxeek (etxeotan benetako pobrezia-aren tasak nabarmen txikiagoak izanda ere EAEko batezbesteko orokorra baino).

Lurraldeei dagokienez, azpimarratzekoa 2016 eta 2018 artean Arabak hobera egin izana nabarmen, 2016 arteko aldia okertze konparatu handikoa izan ondoren. Hobetze hori Euskadin gutxien urbanizatuta dauden eskualdeetako gehienetan ere gertatu da, Debagoiena soilik salbuetsita.

Bilbon eta Ezkerraldean, ordea, egoera okertu egin da 2016 eta 2018 artean. Hala ere, okertze hori ez da iristen pobrezia-aren alderdi problematikoetara; adibidez, epe luzeko bizi-baldintzei lotuta daudenetara (metaketa-pobrezia). Nolanahi ere, 2018an, Bilbon metatu dira berriz ere, Ezkerraldearekin eta Eskuinaldearekin batera, Euskadiko benetako pobrezia-aren kasurik gehienak.

Hirugarren kapituluak datuak ematen ditu azterketan erabili ohi diren desparekotasun-adierazle nagusiei buruz. 2012 eta 2014 artean gertatu bezala, adierazleek berriz adierazten dute desparekotasunak gorantz egin duela 2016 eta 2018 artean, argi eta garbi murrizteko dinamikak ezaugarritu zuen 1986-2012 aldian ez bezala. Bilakaera txarrena EAEn baliabide gutxien dituen % 10aren diru-sarreraren pisuari buruzko adierazleari dagokio, 2018an izan baitu mailarik apalena 1996. urteaz geroztik. Bilakaera horrek adierazten du EAEko gizartearen % 30 behartsuenaren diru-sarrerak motelago handitu direla 2016 eta 2018 artean.

Bilakaera txar hori gorabehera, EAEk egoten jarraitzen du Europan desparekotasun-mailarik apalenak dituzten herrialdeen artean

Laugarren kapituluak adierazten du zer eragin duten gabezia oinarritzkoenek adingabeen artean. Adierazle orokorrekin gertatzen den bezala, datuek joera konplexuak erakusten dituzte. Alde batetik, berresten da elikadura zuzena izatearekin zerikusia duten gabezia-adierazleak nabarmen hobetu direla adingabeen artean. Hala ere, problematika batzuk, bereziki arropa edo oinetako egokiak izatearekin zerikusia dutenak, zabaldu egin dira adingabeen artean 2016tik 2018ra bitarte. Arazorik larrienak, gainera, argiago handitzen dira bitarteko taldeetan, bereziki benetako pobrezia-rik izan gabe ongizatea falta duten kolektiboen artean.

Bosgarren kapituluak Europako testuinguruan jartzen du Euskadi. Datuek erakusten dute EAEn okertze erlatiboa izan dutela Eurostat adierazle orokorrek, bereziki zerikusia dutenak diru-sarrera apalekin eta ongizaterik ezaren adierazpideekin, eta ez bakarrik gizarte-babesean aurreratuenak izan ohi diren estatuez den bezainbatean. Hala ere, gabezia-adierazle espezifikoek ematen duten irudia askoz hobea da, Euskadik pobrezia-aren aurkako borrokan emaitzarik onenak lortzen dituzten herrialdeen parean jarraitzen duelako (pobrezia energetikoari lotutako adierazleetan izan ezik)

Txostenaren 1. eranskinean, azkenik, PDGlan eta GZEE-GPlan pobrezia eta prekarietatea aztertzeari dagokionez erabilitako ikuspegi metodologikoaren oinarrian dauden kontzeptu nagusiak aurkezten dira.

1. Pobreziaren eta prekarietatearen inpaktu orokorra

1.1. Pobrezia eta prekarietatea mantentzeari dagokionez (diru-sarrera erabilgarriak)

Atal honetan, eta mantentzeari dagokionez (edo diru-sarrerak), pobrezian eta prekarietatean murgiltzeko arrisku-egoeren dinamikari buruzko emaitza nagusiak aurkezten dira. Arrisku-egoera horiek zerikusia dute familien eta gainerako bizikidetzaren unitateen diru-sarrerak aski ez izatearekin oinarritzko beharrei aurre egiteko (pobrezia), edo, zentzu zabalago batean, erreferentziako gizartean, EAEn kasu honetan, espero den gutxieneko ongizate-mailari eusteko eskatutako gastu-beharrei aurre egiteko (ongizaterik eza).

Bai Eurostat metodoari eta PGDI metodoari lotutako adierazle sintetiko nagusiak bai osagarritzko gabezia-adierazle batzuk kontuan hartzen dira.

1.1.1. Pobreziaren eta ongizaterik ezaren adierazleak

1.1.1.1. Eurostat adierazleak

* Diru-sarrera apalen edo pobrezia erlatiboaren Eurostat adierazleari dagokionez (sarreraren medianaren % 60), 2014-2016 aldiko murrizketa-ildoan eten da 2016 eta 2018 artean. Etengabe handitu ondoren 2008ko % 14,8tik 2014ko % 18,5a arte, 2016an, diru-sarreraren medianaren % 60tik behera zeuden pertsonen proportzioa % 16,4ra jaitsi zen. Baina proportzio hori % 17,7ra igo zen 2018an, gehienekotik (2014an) hurbil kokatuta, eta portzentajezko 2,3 eta 2,9 puntu artean jarri zen 2008ko % 14,8aren eta 2012ko % 15,4aren gainetik.

Pobrezia larriaren adierazleak (medianaren % 40), bestalde, aurreko urteetako egonkortze-ildoari eutsi dio. Hala bada, 2008 eta 2012 artean % 3,1etik % 3,5era handitu ondoren, sarreraren medianaren % 40ko atalasetik behera zeuden pertsonen proportzioa % 4,9 zen 2014an, eta proportzioak bere horretan jarraitu zuen 2016an. Zertxobait gora egin arren, 2018ko erregistroa antzekoa da funtsean, % 5,1. Edozeinetara ere, pobrezia larriaren intzidentzia, adierazle honekin neurtuta, 1986tik izandako maila handienetan mantendu da.

2008. urtearekin alderatuta, pobrezia larriko arriskuan (medianaren % 40tik behera) dauden biztanleak % 64,9 gehiago dira. 66.540 izan ziren 2008an; 109.735, berriz, 2018an. Bestalde, pobrezia erlatiboko arriskuan (medianaren % 60tik behera) daudenak 2008koak baino % 20,2 gehiago dira (382.316 pertsona 2018an; 318.161, berriz, 2008an).

1. taula
Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuaren bilakaera. Eurostat adierazleak. 1986-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak
(Datu absolutuak)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < 60%)	296.266	348.547	354.066	343.459	318.161	333.986	399.643	350.668	382.316	9,0	20,2
Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < 40%)	69.578	79.643	98.938	77.428	66.540	75.166	104.942	104.177	109.735	5,3	64,9

(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < 60%)	13,9	16,4	17,1	16,5	14,8	15,4	18,5	16,4	17,7	1,3	2,9
Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < 40%)	3,3	3,8	4,8	3,7	3,1	3,5	4,9	4,9	5,1	0,2	2,0

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Sarrera apalen/pobrezia erlatiboaren adierazleak pobrezia larriko arriskuan dauden kolektiboa barneratzen du.

Datu absolutuei dagokionez, bilakaeraren adierazleak erakusten du zer aldaketa izan den ehunekotan 2018an eragindako pertsonen kopuruan, ondoz ondo 2008ko eta 2016ko kopuruekin alderatuta.

Ehunekotan izandako intzidentziari dagokion zatian, bilakaeraren adierazleak esaten du zenbateko aldaketa absolutua izan den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoan.

- * Pobrezia erlatiboaren adierazleak goranzko ildoan izan arren, pobrezia- eta bazterketa-arriskuari buruzko AROPE adierazlean 2014 eta 2016 artean izandako murrizketa finkatu da 2018an. Aldi horretan, adierazlea 2014. urteko % 22,7tik (gehienekoa) 2016ko % 20,6ra jaitsi zen, eta proportzio hori mantendu egin da funtsean 2018an (% 20,7).

Gehiegi ez urrundu arren 2000., 2004. eta 2012. urteetako % 19,6-19,9tik, EAEko AROPE adierazlea 2018. urtean oraindik dago argi eta garbi 2008ko gutxieneko % 17,9aren gainetik (portzentajeazko +2,8 puntu). 2018an arriskuan zeuden biztanleak oraindik 2008koak baino % 16 gehiago ziren; 446.695 eta 385.087, hurrenez hurren.

Pobrezia erlatiboaren tasa handitzen ari zen testuinguruan (% 16,4tik % 17,7ra), 2016-2018an AROPE pobrezia- eta bazterketa-arriskua egonkortu izanak lotura du, alde batetik, lan-intentsitate apalaren adierazlearen dinamika onarekin. Etengabe handitu ondoren 2008ko % 5,6tik 2014ko gehienekora (% 12), adierazle horren maila beherantz egiten hasi zen urte horretatik aurrera, 2018an % 9,1 izan arte.

Bestetik, 2016 eta 2018 artean gabezia materialaren adierazlean izandako jaitsiera ere erabakigarria da. 2000. urtetik izandako mailarik gorena 2016an izan ondoren, % 6,4ko eragina izan baitzuen, gabezia materiala % 5,6ra jaitsi zen 2018an. 2014ko % 5,2tik hurbil izanda ere, gabezia materialaren intzidentzia oraindik ere argi eta garbi handiagoa da 2008ko % 2,7a edo 2000ko % 2,0a baino.



2. taula
Pobrezia-eta bazterkeria-adierazleen arriskuaren bilakaera. AROPE adierazleak. 2000-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
(Datu absolutuak)

Adierazleak	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Laneko intentsitate baxua	121.331	118.851	103.994	179.079	217.062	181.796	161.632	-11,1	55,4
Diru-sarrera txikiak / pobrezia erlatiboaren arriskua	354.066	343.459	318.161	333.986	399.643	350.668	382.316	9,0	20,2
Gabetzea	41.663	74.556	58.487	125.549	112.856	136.765	119.885	-12,3	105,0
Pobreziaren eta bazterkeriaren AROE adierazlea	411.210	407.800	385.087	432.655	489.447	440.823	446.695	1,3	16,0

(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Laneko intentsitate baxua	6,6	6,4	5,6	9,9	12,0	10,2	9,1	-1,1	3,4
Diru-sarrera txikiak / pobrezia erlatiboaren arriskua	17,1	16,5	14,8	15,4	18,5	16,4	17,7	1,3	2,9
Gabetzea	2,0	3,6	2,7	5,8	5,2	6,4	5,6	-0,8	2,8
Pobreziaren eta bazterkeriaren AROE adierazlea	19,9	19,6	17,9	19,9	22,7	20,6	20,7	0,1	2,8

Iturria: PGDI 2000-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: *Lan-intentsitate apalaren* adierazlea ikasle ez diren 20 eta 59 urte arteko biztanleak kontuan hartuta kalkulatzen da.

Datu absolutuei dagokienez, bilakaeraren adierazleak erakusten du zer aldaketa izan den ehunekotan 2018an eragindako pertsonen kopuruan, ondoz ondo 2008ko eta 2016ko kopuruekin alderatuta.

Ehunekotan izandako intzidentziari dagokion zatian, bilakaeraren adierazleak esaten du zenbateko aldaketa absolutua izan den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoan.

1.1.1.2. PGDI adierazleak

* Kontuan hartuta pobreziari eta gizarte-desparekotasunei buruzko inkestan (PDGI metodoa) 1986tik aurrera garatutako hurbiltze metodologikoa, mantentze-pobreziaren arriskua (edo diru-sarrerei dagokiena), EAEn, % 8 izan zen 2018an. Aintzat hartutako proportzioak adierazten du pobreziaren eragina berriz goranzkoa dela, eta intzidentzia 2016koa (% 7,1), 2012koa (% 7,3) eta are 2000koa (% 7,9) ere baino handiagoa izan da. Hala ere, 2014ko % 8,2a baino txikixeagoa da.

Fenomenoaren eragin txikiaren urteekin alderatuta, 2018an PGDI pobrezia-tasa, nolanahi ere, 2004koa (% 5,6) eta 2008koa (% 5,7) baino 2,3-2,4 puntu handiagoa da. Mantentze-pobreziaren arriskuak 172.307 pertsonari eragin zien 2018an; kopuru hori argi eta garbi izan zen 2008koa (121.875) baino handiagoa: % 41,4 handiagoa. Gorakada handi hori gorabehera, pobrezia-arriskua argi eta garbi dago 1986kotik eta 1996kotik oso urrun, % 10etik gorakoa izan baitzen orduan, eragindako pertsonak ia 250.000 edo gehiago izaki.

PGDI mantentze-prekarietatearen adierazleak erakusten duten goranzko ildo argiagoa da ongizaterik ezaren adierazpide orokorreari dagokienez. Kasu horretan, tasa % 18,4tik % 22,4ra handitu zen 2016 eta 2018 artean, eta, guztira, 484.571 pertsonak izan zituzten arazoak azken urte horretan; hau da, 2008an (352.550) baino % 37,4 gehiagok.

Ongizaterik ezaren tasak 2014koa, % 21,9 (eta 2004koa), gainditu zuen 2018an, eta portzentajezko sei puntu handiagoa izan zen gutxienekoa (2008ko % 16,4a) baino. 2018ko ehunekoa soil-soilik dago 1986 eta 2000 artean izandako tasen azpitik. Gutxienekoa azken urte horretakoa izan zen (% 24,7), eta orduan 512.000 pertsona baino gehiago egon ziren arrisku-egoeran.

3. taula
Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuaren bilakaera. PGDI adierazleak. 1986-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak
(Datu absolutuak)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Ongizate-gabeziaren arriskua	1.263.504	769.433	512.359	455.703	352.550	432.936	473.260	394.266	484.571	22,9	37,4
Pobrezia-arriskua	248.661	282.495	163.084	116.499	121.875	157.686	176.532	151.112	172.307	14,0	41,4

(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Ongizate-gabeziaren arriskua	59,3	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9	21,9	18,4	22,4	4,0	6,1
Pobrezia-arriskua	11,7	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3	8,2	7,1	8,0	0,9	2,3

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Sarrera apalen/pobrezia erlatiboaren adierazleak pobrezia larriko arriskuan dauden kolektiboa barneratzen du.

Datu absolutuei dagokienez, bilakaeraren adierazleak erakusten du zer aldaketa izan den ehunekotan 2018an eragindako pertsonen kopuruan, ondoz ondo 2008ko eta 2016ko kopuruekin alderatuta.

Ehunekotan izandako intzidentziari dagokion zatian, bilakaeraren adierazleak esaten du zenbateko aldaketa absolutua izan den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoan.

1.1.2. Gabezia-adierazle espezifikoak

Aurreko datuak ebaluatzean, komeni da gogoan izatea pobreziari eta mantentze-ongizaterik ezari (diru-sarrerei) buruzko PGDI eta Eurostat adierazleak adierazle erlatiboak direla, EAEko gizartearen dinamika orokorrari lotuak, eta 2016-2018 aldian diru-sarreraren maila asko handitu zela. Horrenbestez, biurteko horretan aplikatzen diren atalaseak handitu egin dira.

Hala gertatzen da Eurostat atalaseekin, 2016 eta 2018 artean % 4,4ko gehikuntza izan baitzuten diru-sarrera baliokideen medianan. PGDI metodoari lotutako adierazleei dagokienez, oinarritzko pobrezia-atalaseak (pertsona bakar batentzat) % 5,5 igo dira 65 urtetik beherako pertsonen etxeetan, eta % 11,6, berriz, 65 urtetik gorakoenetan. Hazkundera are handiagoa da ongizaterik ezaren atalaseei dagokienez (% 8,1 eta % 8,7 artean 65 urtetik beherako pertsonen etxeetan, eta % 17,3, berriz, 65 urtetik gorakoenetan)¹.

¹ PGDI atalaseetan, gehikuntza ez dago bakarrik lotuta diru-sarreraren goranzko dinamikari, bai eta etxeetako ohiko gastuetan 2016 eta 2018 artean izandako handitze are handiagoari ere (ikus 2. eranskina). Gainera, PGDI metodoan atalaseak kalkulatzeko dagoen alderdi metodologiko batek ere eragina du; izan ere, egoeraren araberako aldaketak mugatzeko, PGDI edo GPI metodoa aplikatutako azken hiru urteei dagokien informazioa kontuan hartzen da. 2018an, lehenengo aldiz 2008ko krisiaz geroztik, kontuan hartutako hiru urteetatik bitan, eskura dauden batezbesteko diru-sarreraren ageriko gehikuntza-aldiei dagozkien datuak kontuan hartu dira, eta horrek lagundu egin du 2018an izandako atalaseetan gehikuntza erlatiboa handiagotzen.



Horregatik, interesgarria da aztertzea zer neurritan hedatzen den 2016 eta 2018 artean mantentze-pobreziaren eta -prekarietatearen adierazle orokorretako askotan izandako okertzea PGDIak kontuan hartzen dituen gabezia-adierazle espezifikoaren dinamikara.

Testuinguru horretan, gabezia-adierazle horiei buruzko datuek –mantentze-pobrezia eta -ongizaterik eza (edo diru-sarrerak) neurtzeari lotutako alderdian– aukera ematen dute hobekuntza batzuk hautemateko (ikus zitezkeenak gabezia materialaren adierazlean bezala beste batzuetan ere), eta, horrenbestez, adierazle orokorretan izandako okertze-ildoak neurri batean zehazteko.

Kontu horiei dagokienez aipatu beharreko alderdi nagusiak ondoren laburtzen dira:

- * Pobreziari zuzenago lotutako alderdiei dagokienez, gabezia-adierazleen dinamikan elikadura-beharrek betetzeari dago lotuta hobekuntza-esparru nagusia.

Kasu horretan, 2014 eta 2016 artean, jaitsiera nabarmena gertatu zen, % 7,5etik % 6,7ra artekoa, PDGIan (FSS eskala) aztertutako elikadura-arloko segurtasun faltako problematiketako bat azken hamabi hiletan jasan duten biztanleen ehunekoan. Hobetze-ildo hori nabarmenagoa da 2018. urtean, adierazlea % 3,9ra arte jaitsi baitzen, ehuneko hori txikiena izanik 2000ko % 3,5az geroztik. 2018ko erregistroa, beraz, argi eta garbi dago 2004-2008 aldiko % 5,2 eta % 5,7 arteko ehunekoen azpitik. 2008. urtearekin alderatuta, 2018. urtean % 30,1 txikiagoa izan zen elikadura-segurtasun ezari lotutako arazoak zituzten pertsonen kopurua.

Hobetze-ildoak elikadura-segurtasunik ezari lotutako kasu larrietan bezala oso larrietan ere ikusten da. Azken kasu horietan, ordea, ez da hain deigarria. Hala ere, arazo horien intzidentziak behera egin zuen 2016 eta 2018 artean, % 3,1etik % 1,8ra, eta gosearen pertzepzioari lotutako egoeretan jaitsiera % 1,7tik % 1,2ra artekoa izan zen. Ehuneko horiek ez dira mendeko apalenak, baina oso hurbil daude 2008koetatik (% 2,1 eta % 1,0 hurrenez hurren).

Elikadura-segurtasunik ezaren adierazpide larrienetan izandako hobekuntza oso adierazgarria da, aurreko aldiekiko eten argia delako. Egungo % 1,8ra jaitsi aurretik, oso elikadura-arazo larriak gehienez ere % 2,9 eta % 3,1 artean egon ziren 2012-2016 aldi osoan. Ildo beretik, 2016. urteko uneren batean gose-sentsazioa izan zuten pertsonen ehunekoa (% 1,7) bigarren ehuneko handiena izan zen PGDI inkesta egiten hasiz geroztik. Kasu horretan ere, 2018an % 1,2ra jaitsi izana joera-aldaketa deigarria da.

Elikadura-arazo larrienei dagokienez ikusitakoarekin bat, 2016 eta 2018 artean ere egin du behera bi egunean behin jaki proteiniko bat ezin izan dezaketen pertsonen proportzioa ematen duen Eurostat adierazleak. Ehunekoa 2016an % 3,4 izatetik 2018an % 2,3 izatera aldatu da².

² 2014tik, adierazlea unean uneko egoerarekin erlazionatzen da; 2012. urtera arte, berriz, azken hamabi hilabeteetan izandako esperientziari lotuta aplikatzen zen.

- * Pobreziaren adierazpide larrienekin lotura zuzenena duten adierazleen hobetze-ildoak hornidura-mozketei dagokienez ere ikusten da (ura, argia, telefonoa eta abar). Kasu horretan, eragindakoen proportzioa % 2tik % 1,4ra aldatu da 2016 eta 2018 artean. 2018ko ehunekoa 2008koa (% 1,6) baino txikiagoa da, eta eragindako pertsonak azken urte horretan baino % 15,4 gutxiago izan dira (1996 eta 2004 arteko % 0,8-% 1,1etik gora jarraitu arren).

2016 eta 2018 artean, halaber, jaitsiera gertatu da, leunagoa bada ere, arazo ekonomikoei aurre egiteko jabetzak saldu edo etxez edo ikastetxez aldatu beharrari dagokionez: % 9,9tik % 0,7ra. Hala eta guztiz ere, arazo horrek eragindako pertsonen kopurua, 2018an, oraindik ere % 160,9 handiagoa da 2008koa baino, orduan intzidentzia txiki-txikia baitzen (% 0,3).

Horrelako hobekuntzarik ikusten ez bada ere ondasunen bahiturei dagokienez, zertxobait gora egin baitute 2014ko % 0,5az geroztik, kontuan hartutako problematiken eraginak egonkortzerara jo du 2016 eta 2018 artean, eta % 1etik behera geratu da. 2018ko % 0,9a, ordea, handiagoa da 2008ko % 0,3a eta 1996 eta 2004 arteko % 0,5-% 0,6 tartea baino. Arazo horrek eragindako pertsonen kopuru absolutuari dagokionez, 2018an eragina 2008koa baino % 180 handiagoa izan da.

Egonkortze-ildo zertxobait goranzko hori alokairuak, kredituak, hipotekak edo erreziboak ordaintzen atzeratzearen edo ez ordaintzearen eraginari dagokionez ere ikusten da. Kasu horretan dauden pertsonen proportzioak etengabe egiten du gorantz, baina zertxobait baino ez: 2012ko % 5,9tik 2018ko % 6,5era arte. Ez-ordaintze edo atzeratze hori argi eta gabe handiagoa izan da aurten 2008. urtera arte baino, % 2 eta % 3 artekoa izan ohi baitzen. Azken urteetan okertze kualitatibo nabarmenik izan gabe ere, indarrean jarraitzen du, beraz, adierazle honek 2012tik erakusten duen goranzko presio nabarmeneko ildoak. Alde horretatik, 2018an eragindako pertsonen kopurua 2008koa baino % 122,5 handiagoa da.

- * Oinarrizko premiak betetzearekin zerikusia duten adierazle batzuek dinamika txarragoa izan dute 2016 eta 2018 artean. Eta hala, gehikuntza handiegia ez izan arren (2016ko % 8,9tik 2018ko % 9,3ra), neguan tenperatura egokia izatea lortu gabe hotza duten pertsonen proportzioak joera-aldaketa negatiboa izan du 2018an. Alde horretatik, pertsonen ehunekoak ez zuen inoiz ere gainditu, 2008ra arte, % 5,5eko langa, baina krisiaren urteetan, nabarmen egin zuen gora, 2008ko % 4,1etik 2012. urteko % 8,3ra eta 2014. urteko % 11ra. Hala ere, 2016an, eragindako pertsonen proportzioa % 8,9ra murriztu zen, 2,1 puntu jaitsita. Arazoak, % 9,3arekin, 2016ko maila gainditzeko du, bai eta 2012ko % 8,3a ere, eta, horrenbestez, gorantz egiten du, 2018ko intzidentzia argi eta garbi handiagoa izanik 1996 eta 2008an artean % 4,1etik % 5,5era bitarte izandako ehunekoak. Izan ere, eragindako pertsonen kopurua 2008koa baino % 125,5 handiagoa izan da 2018an³.

³ Nolanahi ere, igoera handi horretan eragina izan dezake galdera egiteko modua aldatu izanak, 2014tik aurrera Estatistikako Institutu Nazionalak erabilitako modu orokorragoa erabili baita. Azken horrek aztertutako gabezia etxean tenperatura egokia izateko arazoekin erlazionatzen du. PGDI inkestan erabili ohi zen galdera (zeinak zuzenean lotzen baitzuen arazoa neguko hiletan hotza sentitzearekin) ordeztzen du.



- * Pobreziari dagokion alderdian, etxe barruan jantziak edo oinetakoak berritzeari dagokion adierazlean ikusten da 2016 eta 2018 artean joera negatibo deigarriena. 2018an, azken hamabi hiletan arrazoi ekonomikoengatik bigarren eskuko jantziak baliatu behar izan dituztela dioten etxeetan bizi da biztanleriaren % 8,6. Ehuneko horrek, 2014ko % 6,4arekiko gehikuntza-ildoari eustiaz gain, zeina 2016an ere nabaritzen baitzen (% 6,7), indartu egiten du, 2012an izandako % 7,1eko gehienekoa gainditzeraino. Argi eta garbi kokatzen da, gainera, 1996ko eta 2004ko mailen gaineratik (% 5,1etik % 5,8ra), bai eta 2000an eta 2008an izandako gutxieneko % 3,7aren gaineratik ere. Azken urte horrekin alderatuta, 2018an eragindako pertsonak % 132,7 gehiago izan dira.
- * Oro har hartuta, alderdi on eta txar guztiei erreparatuta, eskura dauden gabezia-adierazleen bidez ikusitako dinamikak, 2016 eta 2018 artean, adierazten du nabarmen murriztu dela azken urtean oinarritzko gastuak murriztu behar izan dituzten etxeetako pertsonen proportzioa. 2018an, proportzio hori % 11,7ra jaitsi da; hau da, 2012ko eta 2016ko % 16,5-16,7tik bost puntu inguru jaitsi da. 2018ko proportzioa, halaber, 2012ko % 12,8a baino txikiagoa da, baina, hala eta guztiz ere, 2004ko % 9,1aren, 2008ko % 8,1aren eta 1996an eta 2000an izandako % 6,3tik % 7ra arteko gutxieneko ehunekoaren gaineratik jarraitzen du.

Oinarritzko gastuak murrizteko beharrari buruzko adierazlearen bilakaera ona bat dator gabezia materialaren adierazlean izandako murrizketarekin, % 6,4tik % 5,6ra jaitsi baitzen 2016 eta 2018 artean. Bi kasuetan, izandako joerek adierazten dute oro har hobera egin dutela Euskadin egoera sozio-ekonomiko txarrean dauden biztanleen zati garrantzitsu baten bizi-baldintzek, oinarritzko betebeharrak erregulartasunez betetzeari lotuta. Pobrezia larriari buruzko Eurostat adierazlearen eta diru-sarrerari lotutako pobreziari buruzko PGDI adierazlearen gorakadak, ordea, hobekuntza oraindik ez dela osoa adierazten du.

Zehazki, aipatutako hobetze-ildoak ez da iristen gaur egun oinarritzko gastuak betetzen ez dituela dioten taldera. Kasu horretan, 2018ko % 5,6a 2016ko % 5,5etik eta 2012ko % 5,7tik hurbil dago, eta 2014ko % 4,7aren gaineratik. Hortaz, 2018an, eta susperraldi ekonomikoa gorabehera, gabezia larriko gune garrantzitsu bat dago oraindik ere Euskadin, argi eta garbi gainditzen dituen krisiaren aurreko mailak. 2018an oinarritzko beharrak betetzen ez dituzten pertsonen proportzioak, beraz, 2014ko % 4,7a, 1996ko % 3,6a eta 2008ko % 3,1a, gutxienekoa (2018an eragindako pertsonak azken urte horretakoak baino % 83,7 gehiago izaki), gainditzen ditu. Hala ere, adierazgarria da egiaztatzea ezen, aldi berean, 2018an ikusitako eragina 2000. urtekoa (% 6,9) baino txikiagoa dela, eta oso hurbil dagoela 2004ko % 5,4tik.

Oinarritzko beharrak ez betetzearen ondoriozko egoerei lotutako zorpetzean joerak antzekoak dira, gutxi murriztu baita diru-sarrerak gastuak baino gutxiago diren eta lotutako aurrezkerik ez duten etxeetako pertsonen proportzioa (% 2,4tik % 2,3ra 2016 eta 2018 artean). Hala ere, bi urte horietan erregistroak handienak dira 1996. urteaz geroztik; aurreko gehienekoa 2012koa izan zen: % 2,1. 2018ko erregistroa, gainera, 2014koa baino % 1,7 handiagoa da, zeinak ematen baitzuen adierazten zuela, arropa eta oinetakoak berritzeko gaitasunari eta beste zenbait adierazleri buruz orduan ere gertatzen zen bezala, hasia zela krisiaren ondorio sozialak gainditzen.

4.a. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (pobrezia-adierazleak).1986-2018
Datu absolutuak.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Oinarrizko gastuak murrizteko beharra	612.756	148.234	130.717	190.353	174.145	362.989	275.901	353.212	252.162	-28,6	44,8
Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen		77.352	142.624	113.541	66.241	124.608	101.776	117.261	121.659	3,8	83,7
Elikagaiak eskuratzeko arazoak											
FSS adierazleak											
Elikadura-arazo larriak			49.782	52.493	75.915	100.980	99.415	77.999	46.149	-40,8	-39,2
Elikadura-arazo oso larriak			22.369	56.373	46.084	67.144	63.396	66.546	39.111	-41,2	-15,1
- Gosez egon diren etxekoen unitateetan			17.289	26.477	21.271	46.122	25.834	36.680	25.674	-30,0	20,7
Segurtasunik ezaren arazoak guztira FSS			72.151	108.866	121.999	168.124	162.811	144.545	85.260	-41,0	-30,1
EU-SILC adierazleak											
Gutxienez bi egunean behin proteinarik jateko aukerarik ez			0	70.687	49.845	78.038	66.503	72.556	50.529	-30,4	1,4
Arazoak ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko											
Ez-ordaintzeak edo atzerapenak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak, etab.)	54.803	42.948	48.606	55.769	63.411	127.589	134.673	135.516	141.092	4,1	122,5
Hornidura-mozketak (ura, argia, telefonoa, etab.)	55.156	17.209	21.953	23.940	35.191	52.413	38.255	42.291	29.774	-29,6	-15,4
Ondasunak enbargatzea		3.801	12.680	7.284	7.130	17.270	10.679	17.208	19.966	16,0	180,0
Ondasunak saltzea, etxebizitza- edo eskola-aldaketa	72.906	12.587	13.387	11.072	5.426	16.700	11.946	19.607	14.157	-27,8	160,9
Bizirautearekin lotutako beste arazo batzuk											
Bigarren eskuko jantziak erabiltzea		108.286	75.644	121.820	79.657	153.965	138.701	142.628	185.358	30,0	132,7
Neguan tenperatura egokia mantentzeko arazoak		88.668	110.669	113.664	88.611	180.210	237.526	189.805	199.854	5,3	125,5

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zer aldaketa izan den ehunekotan 2018an eragindako pertsonen kopuruan, ondoz ondo 2008ko eta 2016ko kopuruekin alderatuta.

Alde batera utzita bai *Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen* adierazlea bai bi egunean behin proteinaadun jatordu bat izateari buruzko galdera, zirkunstantziak inkesta egin aurreko urteko uneren batean gertatu diren jasotzen du adierazleak gainerako kasuetan.

4.b. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (pobrezia-adierazleak).1986-2018
Intzidentzia %-tan.
Familia etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Oinarrizko gastuak murrizteko beharra	28,8	7,0	6,3	9,1	8,1	16,7	12,8	16,5	11,7	-4,8	3,6
Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen		3,6	6,9	5,4	3,1	5,7	4,7	5,5	5,6	0,2	2,6
Elikagaiak eskuratzeko arazoak											
FSS adierazleak											
Elikadura-arazo larriak			2,4	2,5	3,5	4,7	4,6	3,6	2,1	-1,5	-1,4
Elikadura-arazo oso larriak			1,1	2,7	2,1	3,1	2,9	3,1	1,8	-1,3	-0,3
- Gosez egon diren etxekoen unitateetan			0,8	1,3	1,0	2,1	1,2	1,7	1,2	-0,5	0,2
Segurtasunik ezaren arazoak guztira FSS			3,5	5,2	5,7	7,7	7,5	6,7	3,9	-2,8	-1,7
EU-SILC adierazleak											
Gutxienez bi egunean behin proteinarik jateko aukerarik ez				3,4	2,3	3,6	3,1	3,4	2,3	-1,0	0,0
Arazoak ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko											
Ez-ordaintzeak edo atzerapenak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak, etab.)	2,6	2,0	2,3	2,7	2,9	5,9	6,2	6,3	6,5	0,2	3,6
Hornidura-mozketak (ura, argia, telefonoa, etab.)	2,6	0,8	1,1	1,1	1,6	2,4	1,8	2,0	1,4	-0,6	-0,3
Ondasunak enbargatzea	0,0	0,2	0,6	0,3	0,3	0,8	0,5	0,8	0,9	0,1	0,6
Ondasunak saltzea, etxebizitza- edo eskola-aldaketa	3,4	0,6	0,6	0,5	0,3	0,8	0,6	0,9	0,7	-0,3	0,4
Bizirautearekin lotutako beste arazo batzuk											
Bigarren eskuko jantziak erabiltzea		5,1	3,7	5,8	3,7	7,1	6,4	6,7	8,6	1,9	4,9
Neguan tenperatura egokia mantentzeko arazoak		4,2	5,3	5,5	4,1	8,3	11,0	8,9	9,3	0,4	5,1

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zenbat handitu edo txikitu den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoa.

Alde batera utzita bai *gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen* adierazlea bai bi egunean behin proteina-dun jatordu bat izateari buruzko galdera, zirkunstantziak inkesta egin aurreko urteko uneren batean gertatu diren jasotzen du adierazleak gainerako kasuetan.

5.a. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (ongizate-gabeziaren eta zorpetze- arriskuaren adierazleka). 1996-2018
Datu absolutuak.
Familia- etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Arazo ekonomikoak direla-eta ezin dute oporraildirik egin (astebete behingoz)	589.745	401.184	411.281	436.551	457.864	488.082	407.679	433.277	6,3	-0,7
Ezin diete aurreikusi gabeko gastuei aurre egin			823.150	748.792	475.913	486.136	390.698	498.553	27,6	
Zorpetze-arriskua	33.468	22.233	27.172	30.013	46.359	36.750	51.957	48.747	-6,2	62,4

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zer aldaketa izan den ehunekotan 2018an eragindako pertsonen kopuruan, ondoz ondo 2008ko eta 2016ko kopuruekin alderatuta.

Ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunari buruzko datuak zenbateko jakin baten erreferentziaren eragina du 2012tik aurrera (860 euro 2018an).

5.b. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (ongizate-gabeziaren eta zorpetze- arriskuaren adierazleka). 1996-2018
Intzidentzia %-tan.
Familia- etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Arazo ekonomikoak direla-eta ezin dute oporraildirik egin (astebete behingoz)	27,8	19,4	19,7	20,3	21,1	22,6	19,0	20,1	1,0	-0,2
Ezin diete aurreikusi gabeko gastuei aurre egin			39,5	34,8	21,9	22,5	18,2	23,1	4,9	
Zorpetze-arriskua	1,6	1,1	1,3	1,4	2,1	1,7	2,4	2,3	-0,2	0,9

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zenbat handitu edo txikitu den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoa.

Ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunari buruzko datuak zenbateko jakin baten erreferentziaren eragina du 2012tik aurrera (860 euro 2018an).



- * 2016-2018 aldiko okertze-prozesua, nolanahi ere, askoz deigarriagoa da ongizatea izateari lotutako adierazleei dagokienez. Esparru horri xehetasun espezifiko txikiagoarekin heltzen zaio GZEE-GPIan,⁴ baina ondo agerian geratzen da balia daitezkeen adierazleen dinamikan.

Eta hala, adibidez, diru-arazoengatik astebeteko oporraldia ezin izan dezaketen pertsonen proportzioak gora egiten du berriz 2016 eta 2018 artean, % 19tik % 20,1era. Okertze hori, ordea, mugatua da, kontuan hartzen bada 2018ko ehunekoa 2012koa, 2014koa (% 21,1 eta % 22,6) eta are 2008koa (% 20,3) ere baino txikiagoa dela.

Askoz adierazgarriagoa da 860 euro inguruko ustekabeko gastu bati aurre egiteko gaitasunik ez dutela dioten etxeetako pertsonen proportzioan izandako gorakada handia. 2012an eta 2014an % 22tik hurbil egon eta 2016an % 18,2ra jaitsi ondoren, proportzioa % 23,1era iritsi da 2018an; hau da, 2012an adierazlearen egungo kalkulu modua ezarri zenetik izandako ehuneko handienera. 2016-2018ko dinamikak, beraz, Euskadin, oinarritzko larrialdi bat izanez gero, baliatzeko moduko gutxieneko aurrezki-oinarririk gabe bizi diren pertsonen kopuruak gora nabarmen egin duela adierazten du. Aurreko horrek oso lotura argia du pobrezian bizitzearekin ezinbestean erlazionatzen ez diren ongizaterik ezaren adierazpide zabalekin.

1.1.3. Atalasearekiko PGDI distantzia-adierazleak

PGDI metodoaren kasuan, indizeak ematen dira atal honetan, pobrezia-arriskuaren eta ongizaterik ezaren tasei dagozkien osagarri. Bereziki kontuan hartzen dira, alde batetik, neurtzen dutenak zer distantzia dagoen balia daitezkeen bitartekoen eta pobreziarako eta ongizaterik ezerako ezarritako atalaseen artean (Sen indizea), eta, bestetik, beste indize konplexuago batzuk, zeinek, FGT indizeak bezala, neurtzen baitute erreferentziazko atalaseekiko distantzia, bai eta arriskuan dauden kolektiboen arteko barne-desparekotasuna ere. Interes berezikoa da FGT (2) indizea, aukera ematen baitu balioztatzeko zenbateko eragina izango luketen biztanleria osoan pobrezia-arriskuan eta ongizaterik gabe dauden pertsonak, baldin eta gaur egun benetako diru-sarreraren eta beharren artean dagoen desoreka osoa diru-sarrerarik gabeko pertsona baliokideen ikuspuntutik zenbatetsiko balitz. Atxiki beharreko alderdi nagusiak hauek dira:

- * Sen indizeari dagokionez, 2018an, pobrezia-arriskuan dauden biztanleek balia ditzaketen diru-sarrerak adierazten dute % 25,1eko tartea dagoela pobrezia-atalasearekiko, eta % 49,3koa ongizaterik ezaren atalasearekiko. Arrisku-egoeran dauden etxeen diru-sarrerak, beraz, pobrezia-arriskua gainditzeko behar diren % 74,9 dira, eta gure gizartean esperotako gutxieneko ongizate-mailetara hurbiltzeko behar diren % 50,7. Ongizate-atalaseari dagokionez, % 27,5eko da pobre izan gabe ongizaterik ez izateko arriskuan dauden etxeei eragiten dien desfasea.

⁴ PGDIa baino askoz helburu zabalagoak dituen lan baten barruan baitago, GZEE-GPIko PGDI moduluaren aplikazioak ardaztat ditu batez ere pobrezia-azterketarekin zerikusia duten gabezia-adierazleak. Horrenbestez, PGDIan baino informazio gutxiago ematen da ongizaterik ezari lotutako arazoekin zerikusia duen alderdiari buruz.

Bestalde, metatutako erabateko pobreziaren % 2,00 biltzen du FGT (2) indizeak 2018an (batere diru-sarrerarik gabe eta erabateko pobrezian dauden pertsonen ikuspegitik). Erreferentziazko proportzioa % 6,17koa da inolako ongizaterik gabeko egoera baliokideen eraginari dagokionez.

Datu horiek adierazten dute okerrera egin dela 2016. urteaz geroztik, orduan, lehendabizikoz 2008tik, joera-aldaketa nabarmena izan baitzen 2008. urtetik aurrera FGT (2) indizean gertatzen ari zen gorakako ildoan. Hartara, pobreziari dagokionez, indizeak gora egin zuen 2008 eta 2014 artean % 0,78tik % 2,18ra, eta gero behera 2016an, % 1,76ra; azken hori 2000. eta 2012. urteetako mailetatik hurbil zegoen (% 1,77 eta % 1,64), eta soil-soilik argi eta garbi 2004ko % 1,18tik eta 2008ko % 0,78tik gora. 2018ko FGT (2) indizeak (% 2,00), beraz, joera positiboa eteten du, eta maila horren gainetik hauek baino ez dira geratzen: 2014ko % 2,18a, 1986ko % 2,77a eta 1996ko % 2,93a,

2016-2018 aldiko okerraldia, funtsean, PGDI diru-sarreraren pobrezia-arriskua handitzearekin (% 7,1etik % 8ra) lotzen da, pobrezia-atalasearekiko Sen distantzia-indizea nagusiki egonkorra mantentzen baita, 2018an % 25,1 izanik; hau da, 2016ko % 25aren antzekoa eta 2014ko % 26,6a baino txikiagoa. 2016an ere gertatzen zen bezala, 2018an, ordea, Sen indizearen balioa konparatiboki handia da. 2014koaren ondoren, bigarren handiena da 1986. urteaz geroztik, urte hartako % 23,7a gaindituta.

6. taula

Mantenu-pobreziaren inpaktuarekin lotutako estatistika-indizeak (mantenua). PGDI metodoa. 1986-2018
Pobrezia-tasa, Sen indizea, FGT (2) indizea, eta pobrezia-atalasearekiko baliabiderik gabeko lagun baliokideak

Urtea	Pobrezia-tasa	Sen indizearen atalasearekiko distantzia	FGT (2) HI indizea	Baliabiderik gabeko lagun baliokideak	Etxeoen unitateen oinarria
1986	11,7	23,7	2,77	59.015	594.550
1996	13,3	22,0	2,93	62.207	674.954
2000	7,9	22,5	1,77	36.674	688.227
2004	5,6	21,1	1,18	24.541	742.753
2008	5,7	13,7	0,78	16.741	797.372
2012	7,3	22,6	1,64	35.575	856.588
2014	8,2	26,6	2,18	47.009	876.999
2016	7,1	25,0	1,76	37.719	876.683
2018	8,0	25,1	2,00	43.201	923.480

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

- * Ongizaterik gabeko egoera guztiei dagokienez, FGT (2) indizeak gora egin zuen 2008tik (% 3,28) 2014ra (% 6,06), eta behera berriro 2016an (% 4,97). 2018an, gorakada handia izan da, adierazlea % 6,17ra eraman duena; hau da, 2014ko mailatik gora. 2018ko FGT (2) indizea 1986-2000ko aldiari dagozkion ehunekoetatik behera baino ez dago.



2016-2018ko gorakada handia, 1,20 puntukoa, batez ere ongizaterik ezari dagokion tasak gora egitearekin erlazionatzen da (% 18,4tik % 22,4ra, 2014ko % 21,9aren gainetik). Hala ere, atalasearekiko distantziak (Sen indizeak) ere gora egin du: 2016ko % 27tik 2018ko % 27,5era. Pobreziari dagokionez ez bezala, Sen indizea beti delako 2014. urteaz geroztik 2012. urtera arte izandakoa baino handiagoa, Sen indizeak, ongizaterik ezaz den bezainbatean, maila ohikoagoak ditu, soil-soilik 2004-2012 aldikoek gainditzen dituztenak argi eta gabe.

7. taula

Mantenu-alorreko ongizaterik ezeko egoeren inaktuarekin lotutako estatistika-indizeak. PGDI metodoa. 1986-2018

Ongizate-gabeziaren tasa, Sen indizea, FGT (2) indizea, eta pobrezia-atalasearekiko baliabiderik gabeko lagun baliokideak

Urtea	Ongizate-gabeziaren tasa	Sen indizearen atalasearekiko distantzia	FGT (2) HI indizea	Baliabiderik gabeko lagun baliokideak	Ettxeoen unitateen oinarria
1986	59,3	31,9	18,92	402.759	594.550
1996	36,3	28,8	10,46	221.981	674.954
2000	24,7	27,0	6,69	138.557	688.227
2004	21,9	25,6	5,60	116.650	742.753
2008	16,4	20,0	3,28	70.663	797.372
2012	19,9	24,7	4,92	106.894	856.588
2014	21,9	27,6	6,06	130.740	876.999
2016	18,4	27,0	4,97	106.579	876.683
2018	22,4	27,5	6,17	133.276	923.480

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

1.2. Pobrezia eta prekarietatea metatze-alorrean (ondarea eta epe luzeko bizi-baldintzak)

Metaketako pobrezia- eta prekarietate-egoerek zerikusia dute gaitasunik ez izatearekin honako hauek egiteko: bizi-baldintza onargarriak finkatzea epe ertain eta luzean, eta erreserbako gutxieneko ondarea izatea ezohiko gastu-beharrei aurre egiteko bezala diru-sarrerarik eza erremediatzeko ere. Kontuan hartuta etxebizitzetako instalazioetan eta ekipamenduan zer gabezia dauden, zer neurritan den nahikoa balia daitekeen erreserbako ondarea eta ohiko beste ondasun edo zerbitzu batzuk erabiltzeko aukera (norberaren ibilgailua, oporrak izateko aukera eta abar), PGDI inkestak lau maila ditu metaketako pobrezia/ongizate-eskalan: pobrezia, ongizaterik eza, gutxieneko ongizatea eta guztizko ongizatea.

PGDI metodoak soilik ematen ditu emaitzak pobreziaren alderdi honetan, Eurostat adierazleak ez baitu modu sintetikoan hartzen, baizik eta gabezia-adierazle espezifiko batzuen bidez baino ez. Hortaz, txostenean metaketari lotuta soilik ematen dira PGDI pobrezia- eta prekarietate-adierazleak.

1.2.1. Metaketako pobreziaren PGDI adierazleak

* 2014an, aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen metaketako pobrezia-adierazlean. Pobrezia mota horren eraginak % 1,4tik % 2rako igoera izan zuen 2012 eta 2014 artean, krisi-urteetako lehen igoera. Adierazleak, % 3,6 eta % 4,2 artean aldatu ondoren 1996-2004 aldian, ordutik aurrera beheranzko joera izan zuen, eta horren adierazgarri izan ziren 2008ko % 1,5a eta 2012ko % 1,4ko gutxienekoa.

2014-2016an, beheranzko ildoari berrekin zion pobrezia-adierazle horrek, % 2tik % 1,6ra jaitsita, eta ildo horrek 2018an ere iraun zuen, adierazlea % 0,9 izan baitzen. Hartara, 2016-2018 biurtekoan fenomenoaren muturreko adierazpideekin erlazionatu ohi den pobreziaren alderdi honen euspen-ildoak finkatu da.

8. taula
Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuari buruzko PGDI adierazleak metatzeari dagokionez (2012ko hurbilketa). 1996-2018
Familia-etxebizitzetan bizi direnak
(Datu absolutuak)

Egoera	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Pobrezia	76.127	87.542	74.759	32.838	31.094	43.083	34.158	19.479	-43,0	-40,7
Ongizate gabeziaren beste era bat	459.791	268.400	330.546	367.811	349.353	388.535	330.175	416.116	26,0	13,1
Ongizate- gabezia	535.918	355.942	405.306	400.649	380.447	431.618	364.332	435.595	19,6	8,7
Ongizate minimoa	1.079.596	1.024.809	1.072.864	1.014.549	920.132	833.964	862.597	765.328	-11,3	-24,6
Erabateko ongizatea	506.063	689.649	606.012	736.587	870.676	892.547	915.610	958.065	4,6	30,1
Guztira	2.121.577	2.070.400	2.084.181	2.151.785	2.171.254	2.158.129	2.142.539	2.158.988	0,8	0,3

(Intzidentzia %-tan)

Egoera	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Pobrezia	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0	1,6	0,9	-0,7	-0,6
Ongizate gabeziaren beste era bat	21,7	13,0	15,9	17,1	16,1	18,0	15,4	19,3	3,9	2,2
Ongizate- gabezia	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0	17,0	20,2	3,2	1,6
Ongizate minimoa	50,9	49,5	51,5	47,1	42,4	38,6	40,3	35,4	-4,8	-11,7
Erabateko ongizatea	23,9	33,3	29,1	34,2	40,1	41,4	42,7	44,4	1,6	10,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0		

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Datu absolutuei dagokionez, bilakaeraren adierazleak erakusten du zer aldaketa izan den ehunekotan 2018an eragindako pertsonen kopuruan, ondoz ondo 2008ko eta 2012ko kopuruekin alderatuta.

Ehunekotan izandako intzidentziari dagokion zatian, bilakaeraren adierazleak esaten du zenbateko aldaketa izan den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekotan.

* Pobrezia-adierazlearen ildo ona ez da hedatzen prekarietatearen beste adierazpide batzuetara metaketaren alderdian. * Oro har, ongizaterik ezaren adierazpideek, metaketari dagokionez,

biztanleriaren % 20,2ri eragiten diote, hau da, 2016an baino portzentajezko hiru puntu gehiagori, orduan ehuneko hori % 17 izan baitzen, txikiena 1986az geroztik. 2016-2018 aldiko gainbehera bereziki adierazgarria da, 2018ko ehunekoa 1996ko % 25,3aren azpitik baino ez dagoelako.

Gizarte-bilakaeran elkarrengandik argi eta garbi urruntzen diren joerak erakusten dituen dinamika horretan, 2018an ongizaterik ezaren adierazpideek gora egitea bateragarria da berriz handitzearekin ondare-mailari eta epe ertain eta luzeko bizi-baldintzei dagokionez inolako gabeziarik ez duten eta guztizko ongizate-egoeran dauden etxeetako pertsonen proportzioa. Proportzio hori ia etengabe handitu ondoren 1996 eta 2016 artean (% 23,9tik % 42,7ra), 2018an baliorik handiena izan du berriz: % 44,4.

2014ra arte, prozesu horren ondorioetako bat izan zen tarteko taldeak, erabatekoa ez bada ere gutxieneko ongizate onargarria duenak, funtsezko jaitsiera izatea. Talde hori biztanleriaren % 51,5 izan zen 2004an, baina etengabe txikitu zen ondoren, eta % 38,6 baino ez zen 2014an: mailarik apalena 1996. urteaz geroztik. 2014 eta 2016 artean, ongizaterik ezari lotutako arazoek beherakada dela eta, proportzioa % 40,3raino igo zen, baina 2018an, ehunekoa berriz beherantz hasi zen, osoa ez bada ere ongizate onargarria duten biztanleen talde hori % 35,4 izateraino (gutxieneko historikoa).

Hitz batean, metaketa-alderdiari dagokionez, egungo suspertze ekonomikoak ezaugarri du gorantz egitea metaketako pobrezia- eta ongizate-eskalan lekurik onenean dauden taldeen pisuak. Baina aurrerakada horrekin batera ez da gertatu prekarietate-egoerak gutxitzea, areagotzea baizik. Areagotze horrek, ordea, larritasun txikiagoko prekarietate-adierazpideei eragiten die, ongizaterik ezaren adierazpide horietan ez baita izaten pobrezian bizitzeari lotutako arrisku-egoerarik.

1.2.2. Gabezia-adierazle espezifikoak (metaketa)

- * Gabeziaren adierazle espezifikoak ondareari eta bizi-baldintzei dagozkien alderdietan aztertzeak informazio osagarria ematen du, aukera ematen duena metaketa-alderdian, 2016 eta 2018 artean, izandako prekarietate-egoeren gehikuntzan erabakigarriak izan diren prozesuei heltzeko.

Nabarmendu beharreko alderdi nagusia da bat-batean eten dela aurrezkirik gabeko etxeetako biztanleen proportzioa jaisteko prozesua; izan ere, adierazle horrek gutxieneko balioa izan zuen berriz 2016an. Nolabait ez aurrera ez atzera egitea adierazten bazuen ere 2014ko % 21,8arekiko, 2016ko % 21,6a argi eta garbi zegoen 2012ko % 23,5aren eta 2008ko % 28,5aren azpitik. 2018an, ordea, gorakada handia izan da, urte horretan aurrezkirik gabeko etxeetako pertsonak % 33,3 izan baitira. Proportzio hori oso hurbil dago 2004ko % 33,8tik, eta 1996ko % 42,7ari dagokionez baino ez da argi eta garbi txikiagoa.

- * Aurrezkirik gabeko biztanleen pisua handitzeak oso zerikusi zuzena du Euskadiko biztanleen ondarea etengabe txikitzeiko prozesuarekin, zeina, 2008tik gertatu arren, 2016 eta 2018 artean areagotu baita. Kalkuluen arabera, EAEko biztanleriaren ondare osoak etengabe egin zuen gora 1996 eta 2008 bitartean, eta % 12,8 egin du behera 2008 eta 2018 artean, prezio arruntetan. Jaitsiera % 13,1ekoa da biztanleko ondareari dagokionez.

Azken adierazle horretan, biztanleko 116.688 eurotik (2008) 106.546 eurora (2012), 105.714 eurora (2014), 104.214ra (2016) eta 101.432ra (2018) aldatu da. Ikus daitekeen bezala, jaitsieraren zatirik handiena 2008-2012 laurtekoari dagokio, baina adierazgarria da, halaber, 2016 eta 2018 artean beheranzko bidea areagotzea.

Izandako ondare-murrizketa bezain adierazgarria da ikustea zer esparrutan zertzen den ondare baliagarriaren murrizketa. 2012ra arte, hautemandako joera soil-soilik lotzen zen jabetzako etxebizitzaren balioa jaistearekin. 2012 eta 2014 artean, murrizketa-ildoak gainerako ondare-ondasunetara hedatzen zen, aurrezkia kenduta. 2016 eta 2018 artean beste ondare-ondasunek berriz gorantz egiten zutelako testuinguruan (+% 22,8), 2016-2018 aldian ondare-alderdian deigarriena, horregatik, aurrezkien kopuruaren beherakadari (-% 19,7) lotzen zaio. 2016an goia jo ondoren 29.449 milioi euroekin, Euskadin bizi direnen aurrezki-maila 23.654 milioikoa baino ez da izan 2018an.

Etxeek metatutako aurrezkiek 2008an zeudenak (11.826 milioi) baino % 100 gehiago izaten jarraitu arren, garrantzitsua da 2016 eta 2018 artean izandako aldaketa. Neurri handi batean, ordea, lehen etxebizitza ez diren ondare-ondasunen edukitzan izandako gorakadarekin lotzen da. Hartara, 33.304 milioikoa zen 2012an beste ondare-ondasun batzuetan metatutako kopurua, eta 2018an, berriz, 41.590 milioikoa; hau da, 2008ko 33.742 milioiak baino % 23,3 handiagoa. Beste ondare-ondasun batzuen erosketan izandako goranzko ildo hori oso erdibideko mailekin hasi zen 2014-2016an, eta ez du berekin ekartzen, ordea, ondare-jabetza mota hori hedatzea biztanleen artean. Horrelako ondasunak ez zituzten etheen proportzioa 2012an % 68,9 izatera iritsi ondoren, proportzio hori % 71,4ra igo zen 2016an, eta % 72,4ra igo da 2018an (azken urte horretan, 2012ko % 70,6aren gainetik).

2016 eta 2018 artean, bestalde, lehen etxebizitzaren balioaren beheranzko joera finkatu egin da. Oro har, 2008-2018 aldian, % 25,2 gutxitu da ohiko etxebizitzaren balio metatua.

Inbertsioak 2018an izandako aurreratze-prozesua (zeinak aurrezkia murrizteko eta beste ondasun higiezin batzuetan ondarea handitzeko prozesu paraleloak azaltzen baititu) gorabehera, aurrezkiaren dinamikari dagokionez kontuan hartu beharreko egiturazko beste alderdi bat da pertsonen ehuneko handi bat bizi dela ohiko gastuari urtebetez aurre egiteko behar adina aurrezkirik ez duten etxeetan (% 48,2, 2018. urtean). 2012tik, kontuan hartutako proportzioak, ordea, egonkortzera jotzen du, 2012ko % 47,3aren eta 2018ko % 48,4aren arteko gorabeherekin. Gainera, argi eta garbi dago 1996-2008 aldiko % 57tik gorako ehunekoen azpitik.

Ehuneko handi horiekin batera, handia da, halaber, etxebizitza izateko gastuak dituzten etxeetan bizi direnen proportzioa, dela jabetzako etxebizitza guztiz amortizatuta ez edukitzeagatik, dela alokatuta izateagatik. Adierazlea % 31,2tik % 23,5era murriztu zen 1986 eta 1996 urteen bitartean, eta, hortik aurrera, etengabe egin zuen gora (% 41,7 izan zen 2008an; % 45,8, berriz, 2012an; eta % 47,6, azkenik, 2014an). 2016 eta 2018 artean, proportzioa % 44,6-% 44-7 artekoa izan da, aipatutako proportzioak baino txikiagoa, baina oraindik ere 2004 artekoak baino askoz handiagoa (% 34 izan zen 2004an).



- * Batezbesteko ondare-mailen murrizketak lotura du metaketa-alderdiari dagokionez ongizaterik ezaren adierazpideak gehitzea eragin duten faktoreen arteko beste batekin. Adierazpide nagusia da gutxieneko ondare-baliabideak izateko ahalmen txikiena duen biztanleriaren zatia handitu izana. EAEko medianaren % 40tik beherako biztanleko ondarea zuten biztanleak % 11,1 baino ez ziren 1996an, baina ehuneko hori % 15,6ra igo zen 2004an. 2008an egoera % 14,1arekin hobetu ondoren, goranzko ildoari berrekin zitzaion, eta ehunekoak % 16,5etik hurbilekoak izan ziren 2012 eta 2014an, eta % 17,6, berriz, 2016an. 2016-2018an gertatu da 1996tik izandako igoera handienetako bat, eta ehunekorik handiena 2018an gertatu da: % 20,1. Hartara, berretsi egin da aztertutako proportzioa igotzeko joera egiturazkoa dela gehiago unean unekoa baino, ia etengabe gora egin duelako 1996tik (% 11,1), 2004-2008 laurtekoan % 15,6tik % 14,1era jaitsita ere.

EAEko medianaren % 40 eta % 60 arteko biztanleko ondarea zuten pertsonen proportzioa, bestalde, % 7,9 izan zen 2018an. Ehuneko horrek etengabe egin zuen behera 1996an % 10,9 izan ondoren, eta % 7,5aren inguruko datuak erakutsi zituen 2008an eta 2012an. Gerora, 2014an, gora egin zuen berriro biztanleria zati horren ehunekoak, % 9,5era. Orduz geroztik, berriz hasi zen beherantz, eta % 8,1 izan zen 2016an, egungoa, % 7,9, baino bi hamarren handiagoa.

Jaitsiera hori ez da aski ondarrerik txikiaren gehikuntza handia konpentsatzeko. Ondorioa da ezen, 2018an, medianaren % 60tik gorako biztanleko ondarea dutenen proportzioa % 72ko gutxienekora iritsi dela, eta gutxieneko hori gutxienez bi puntu txikiagoa da aurreko gutxienekoak baino, % 74tik hurbilekoak izan baitziren 2014an eta 2016an,

- * Aurrezteari lotutako mugen ondorio ere bada epe ertain edo luzean aurrezteko ahalmenarekin zerikusia duten kontsumo-adierazle batzuek dinamika txarra izatea 2008ko krisiaz geroztik. Alde horretatik, krisiaren ondorengo errealitate ekonomikoak nabarmen eragindako epe luzeko kontsumo-elementu bat da hamar urte baino gutxiago dituzten ibilgailuak eskuratzea. Adierazle horrek % 37,2 eta % 39,3 bitarteko datuak erakutsi zituen 1996 eta 2008 urteen bitartean, baina horrelako ondasun bat eskuratzeko aukerarik gabeko etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa % 49ra igo zen 2012an, % 50,6ra 2014an eta % 54,2ra 2016an. Murriztu beharrean, 2018an PGDIko inoizko ehunekorik handiena izan da, % 57,5, 1986koa ere (% 51,9) gainditzen duena.
- * Metaketako pobrezia-arazoen eragin txikiak lotura du, bestalde, etxebizitzetako instalazioei eta bizigarritasun-baldintzei dagozkien adierazleen dinamika onarekin. 2018an, indartu egin da etxebizitzetako oinarritzko instalazioetan (ur beroa, argindarra, bainuontzia edo dutxa eta komuna) arazo larriak izatearen ondorioz sortutako ia egoera guztiak desagertzeko joera. Bilakaera ona da, halaber, etxebizitzetako ekipamendu-adierazleei dagokienez, eta 2018an, oinarritzko ekipamendu motaren arabera, gabezia-mailak minimoak izan dira.

Hala ere, bilakaera guztia ez da ona izan 2016 eta 2018 artean. Alde batetik, arazo batzuk berriz agertu dira 2018an, bereziki etxean ur beroa izateari (% 0,4), garbigailurik ez duten etxeetako pertsonen proportzioa handitzeari (% 0,4) eta telefono propioa izateari (% 2) dagokienez.

9.a. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokienez (ondorea eta bizi-baldintzak)
Ondare-baliabideak eskuratzea. 1996-2018
Ondare-baliabideen (milioi €-tan) eta guztizko per capita ondarearen (€-tan) balio estimatua

Ondare-baliabidea	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Lehenengo etxebizitza	51.615	84.317	142.308	205.520	176.229	170.304	159.968	153.746	-3,9	-25,2
Aurrezkiak	5.079	7.853	8.056	11.826	20.042	24.536	29.449	23.654	-19,7	100,0
Beste ondare batzuk	8.447	17.394	18.642	33.742	35.068	33.304	33.865	41.590	22,8	23,3
Guztizko ondarea	65.140	109.564	169.006	251.088	231.339	228.144	223.282	218.991	-1,9	-12,8
Guztizko ondarea, per capita	30.704	52.919	81.090	116.688	106.546	105.714	104.214	101.432	-2,7	-13,1

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Bilakaera-adierazleak esaten du zer aldaketa gertatu den ehunekotan ondare kopuruan 2018an hurrenez hurren 2008koarekin eta 2016koarekin alderatuta. Biztanleko ondare osoari buruzko datuak biztanleko hurbilketa hertsia batean oinarritzen dira, baliokidetzat faktorerik sartu gabe.

9.b. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokienez (ondorea eta bizi-baldintzak)
Ondare-baliabideak eskuratzea. 1986-2018.
Intzidentzia %-tan.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Guztiz ordaindu naheko ondasuna - alokairua eta antzekoak	31,2	23,5	26,7	34,0	41,7	45,8	47,6	44,6	44,7	0,2	3,0
Aurrezkirik eza		42,7	29,8	33,8	28,5	23,5	21,8	21,6	33,3	11,6	4,8
Urtebeteko gastuari aurre egiteko nahikoa aurrezkirik eza		68,4	57,6	63,1	57,8	47,3	48,1	47,6	48,4	0,8	-9,4
Hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez	51,9	37,2	39,3	38,8	38,7	49,0	50,6	54,2	57,5	3,3	18,9
Bestelako ondare-ondasunik ez (etxebizitza edo aurrezkiak ez direnak)		78,6	71,7	77,5	73,4	70,6	68,9	71,4	72,4	1,0	-1,0
Gutxienez astebeteko oporraldirik ez		47,7	39,4	38,8	37,0	36,4	41,6	38,3	36,6	-1,7	-0,4
Gutxienez astebeteko oporraldirik ez (arrazoi ekonomikoengatik)		27,8	19,4	19,7	20,3	21,1	22,6	19,0	20,1	1,0	-0,2
Per capita ondarea < medianaren % 40		11,1	13,7	15,6	14,1	16,6	16,5	17,6	20,1	2,5	6,0
Per capita ondarea < medianaren % 40 - % 60		10,9	10,5	8,4	7,5	7,6	9,5	8,1	7,9	-0,2	0,4
Per capita ondarea < medianaren % 60		78,0	75,8	75,9	78,4	75,8	74,0	74,3	72,0	-2,3	-6,4

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharra: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zenbateko aldaketa absolutua gertatu den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoan.



9.c. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokienez (ondorea eta bizi-baldintzak).
Etxebizitzaren instalazioak eta bizigarritasun-baldintzak. 1986-2018.
Intzidentzia %-tan.
Familia etxebizitzetan bizi direnak

										Bilakaera	Bilakaera
Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	2016/2018	2008/2018
Etxebizitzaren oinarrizko instalazioak											
Ur berorik gabe	3,6	0,6	0,3	0,9	0,1	0,0	0,1	0,0	0,4	0,4	0,2
Instalazio elektrikorik gabe		0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Bainuontzirik edo dutxarik gabe	4,7	0,4	0,3	0,9	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-0,4
Komunik edo bainuontzirik/dutxarik gabe		0,4	0,3	0,9	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-0,4
Bizigarritasun-baldintzak											
Hezetasun-arazoak dituen etxebizitza	29,9	5,1	8,9	9,6	7,7	8,8	11,8	12,3	14,2	1,9	6,5
Azalera < 20 metro koadro/pertsona bakoitzeko	44,1	32,5	28,5	21,3	15,0	14,9	13,3	12,7	13,1	0,4	-1,8
Zaratekiko/kutsadurarekiko esposizioa		20,2	20,2	16,0	11,0	13,9	8,5	9,2	9,2	0,0	-1,8
Argiztapenik gabe, ez du nahikoa argirik				8,8	5,7	12,2	3,3	5,4	4,0	-1,4	-1,6

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharra: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zenbateko aldaketa absolutua gertatu den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoan.

9.d. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak)
Etxebizitzaren ekipamendua. 1986-2018.
Intzidentzia %-tan.
Familia- etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Hozkailua		0,1	0,1	0,8	0,1	0,0	0,0	0,1	0,0	-0,1	-0,1
Sukaldeko ekipamendua	5,8	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Arropa-garbigailua	6,0	0,6	0,3	0,3	0,1	0,1	0,0	0,1	0,4	0,3	0,3
Labea edo mikrouhin-labea		4,6	5,2	5,1	1,8	0,9	0,6	1,0	0,6	-0,4	-1,2
Koloretako TB	26,4	0,7	0,4	1,2	0,4	0,1	0,1	0,5	0,5	0,1	0,1
Telefonia				1,9	0,6	0,2	0,2	0,3	2,0	1,6	1,4
Oinarrizko ekipamenduetan bi gabezia edo gehiago izatea		0,4	0,2	0,9	0,1	0,0	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0
Oinarrizko ekipamenduetan gabezia bat		2,2	1,7	2,1	1,1	0,6	0,7	0,3	0,9	0,5	-0,2
Oinarrizko ekipamenduetan gabeziaren bat	.	2,5	1,9	3,0	1,2	0,6	0,8	0,4	0,9	0,5	-0,2

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zenbateko aldaketa absolutua gertatu den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoan.
Oinarrizko gabeziaren adierazle sintetikoak baliabide ekonomikorik ez edukitzearen ondorioz ez izateari baino ez daude lotuta.



- * Bestalde, gorantz jarraitzen dute, halaber, etxebizitzaren kalitatearen beste adierazle orokorrago batzuek. Dinamikarik kezkarriena hezetasun arazoen bilakaerari dagokio, adierazleak etengabe egin baitu gora 2008tik, eta urte horretako % 7,7tik 2018ko % 14,2ra aldatu baita, 2014tik aurrera % 10eko muga gaindituta. 1986ko % 29,9a baino ez dago ehuneko horien gainetik.

2018an, ordea, maila konparatiboki apaletan jarraitzen dute, besteak beste, honako hauek direla-eta sortutako arazoek: zaratak edo kutsadura (% 9,2; 2014an % 8,5eko gutxienekoa izan ondoren); etxebizitzan argirik ez izatea (% 4; 2014an % 3,3ko gutxienekoa izanda, baina ehunekoak beherantz egiten duela 2016ko % 5,4az den bezainbatean); eta etxea txikiegia izatea (% 13,1, 2018. urtean; 2016ko % 12,7ko gutxienekotik hurbil).

Hortaz, etxebizitzetako bizigarritasun-baldintzen alderdi garrantzitsu batean okertze-ildo garrantzitsu bat finkatzen den adierazle bakarra da etxebizitzetako hezetasunari dagokiona⁵, zeinak zerikusia baitu energia-pobreziaren eraginaren neurketarekin.

1.3. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen adierazle sintetikoak

1.3.1. Alderdi orokorrak

Diru-sarreraren arloko (mantentze-pobrezia edo -prekarietatea), epe luzeko bizi-baldintzen arloko eta etxeek duten erreserbako ondarearen arloko egoera prekarioek arrisku-egoerak adierazten dituzte batik bat. Arrisku-egoera horiek ez dakarte berekin automatikoki pobreziaren edo prekarietatearen benetako bizipena izatea. Horretara iristeko, erabakigarria da zer neurritan konpentsatzen diren ala ez arriskuak, aztertutako alderdietakoren batean (mantentzea edo metaketa) ongizate-elementuak izatearen bidez.

Europako ikerketan erabili ohi diren arrisku-adierazleez gain, beraz, beste adierazle batzuk ere izan behar dira, benetako pobrezia-egoeren eta ongizaterik ezaren eragina neurtu ahal izateko. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen PGDI adierazleen xedea da zehaztea zer egoeratan ez dauden behar bezain ongi konpentsatuta biztanleek eguneroko bizitzan pobreziaren eta prekarietatearen alderdi horietan izaten dituzten beharrianak behar bezain ongi bete gabe izateko arrisku-egoerak, gure gizartean esperotako gutxieneko ongizate-maila izan ahal izateko.

Hartara, PGDI metodoan, benetako pobreziaren eta ongizaterik ezaren adierazleek fenomeno horien benetako eraginera hurbildu nahi gaituzte. Horretarako, benetako pobreziaren/ongizatearen egungo PGDI adierazleak bost egoera bereizten ditu: pobrezia, ongizaterik eza, arrisku-elementuak ongizate-elementuekin nahasita (ongizate-faktorea nagusi izanda), ia guztizko ongizatea eta guztizko ongizatea.

⁵ Hezetasun-arazoak dituzten etxebizitzaren adierazlearen gorakadak lotura estua du beren etxebizitza tenperatura egokian izateko arazoak dituzten pertsonen proportzioa handitzearekin.

Benetako pobrezia- eta ongizate-eskalan dauden posizioen azterketari dagokionez, honako hauek dira nabarmendu beharreko alderdi nagusiak:

- * Benetako pobreziaren PGDI adierazleak 2016 eta 2018 artean prekarietatearen adierazpiderik larrienetan izandako gorakada berresten du, baina mantentze-pobreziaren tasak baino askoz intentsitate txikiagoarekin. Benetako pobreziaren eraginean 2014 eta 2016 artean izandako jaitsiera txikiaren ondoren (% 5,9tik % 5,7ra), adierazlea zertxobait igo da % 6,1eraino 2018an; hortaz, 2014-2016 aldian izandako ehunekoak baino pixka bat gorago. 2018ko maila, beraz, ez da bakarrik urruntzen 2004ko eta 2008ko gutxienekoetatik (% 4,5 eta % 4,2), bai eta 2012ko % 5,3tik eta 2000ko % 5,1etik ere.

2018ko % 6,1a, beraz, 2004 eta 2008ko ehunekoak baino portzentajezko 1,6-1,9 puntu handiagoa da, 0,8-0,9 puntu handiagoa 2000ko eta 2012ko ehunekoak baino, eta 0,2-0,3 handiagoa 2014ko eta 2016koak baino. 1996ko % 8,7a eta 1986ko % 16,1 baino ez dira handiagoak.

Kopuru absolututan, 130.965 izan dira 2018an benetako pobrezia eragindako biztanleak, % 6,9 gehiago 2016an baino (122.566 pertsona) eta % 46 gehiago 2008an baino (89.706).

- * Diru-sarreraren edo bizi-baldintzen (mantentze edo metaketaren) arloko ongizaterik ezaren adierazpideetan izandako igoera handietatik ondorioztatzen den bezala, gorako ildoak askoz adierazgarriagoa da ongizaterik ez dagoen benetako egoerei dagokienez. Hertsiki benetako pobrezia diren egoerak kontuan hartuta, problematika horien eragina % 10,8tik % 12,5era handitu da 2016 eta 2018 artean. Igoera arrisku-egoeretan izandakoa bezain deigarria izan gabe ere, 2018ko ehunekoa 4,4 puntu handiagoa da 2008ko % 8,2ko gutxienekoa baino. 1-1,8 puntu handiagoa da 2000-2004ko eta 2014-2016ko % 10,8-% 11,5 balioak baino, eta ia 2,5 puntu handiagoa 2012ko % 10,1a baino. Benetako pobreziaren adierazlearekin gertatzen zen bezala, benetako ongizaterik ezari dagokion 2018ko tasa 1986 eta 1996ko balioetatik baino ez da urruntzen (% 29,3 eta % 16,5 hurrenez hurren).

Kopuru absolututan, benetako ongizaterik ezak eragindako pertsonen kopurua % 17,3 handitu da 2016 eta 2018 artean, eta 2016an 230.516 izatetik 2018an 270.294 izatera aldatu da. 2018ko kopurua 2008an eragindako 175.668 pertsonakoa baino % 53,9 handiagoa da.

- * 2014 eta 2016 artean izandako jaitsiera nabarmenaren ondoren, bestalde, berriz gorantz egin du mugan dagoen taldearen pisu erlatiboak. Talde horren ezaugarria da ongizate-osagaiak nagusi izatea, baina arriskuren bat lotuta edukitzea. Talde horren pisua etengabe jaitsi zen 1986ko % 36,3tik 2012ko % 18,1era arte, baina 2014an biztanleria osoaren % 19,7 izan arte handitu zen. 2016an, ordea, proportzioa argi murriztu zen, % 14,6 baino ez izan arte (mailarik apalena 1986tik). 2018an % 17,8ra arte handitzeak, ordea, ez du esan nahi guztiz eten denik epe luzeko beheranzko joera. Hartara, 1986tik izandako bigarren ehunekorik handiena da.

Pobreziari edo ongizaterik ezari lotutako arazoren bat edo ongizate-egoeraren nagusitasuna argitzen duen arriskuren bat duten etxeetako pertsonen proportzioan 2016 eta 2018 artean izandako gorakadak, ordea, joera-ildo garrantzitsu bat finkatzen laguntzen du. Zerikusia du ongizate-egoeran



dauden pertsonen kolektiboaren proportzioa txikitzearekin, ongizate hori erabatekoa izatea mugatzen duen munta txikiko osagairen batek eraginda.

Ongizate ia betean, baina ez erabatekoan, bizi diren pertsonen kolektiboak gero eta bolumen handiagoa izan du euskal gizartean 1996etik 2004ra, % 21,2 izatetik % 41,4 izatera igaro baita. Proportzio hori beherantz hazi zen ordutik aurrera, % 30,2 baino ez izan arte 2014an, eta gero berriz gorantz hasi zen 2016an % 34,1 izateraino. 2018an, berriz jaisten hasi zen, 28,5 izan arte; hau da, soil-soilik 1986ko % 21,2a baino handiagoa.

Edonola ere, 2016 eta 2018 artean, eutsi egin zaio erabateko ongizatea duten etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoak daraman goranzko joerari. Etxe horietan ez dute diru-sarreraren edo metatzearen arloko gabeziarik (ondarean eta bizi-baldintzetan). Proportzio horrek beste gehieneko bat izan du 2018an, eta % 41,2ra iritsi da; hau da, 2008koa (% 32) baino 9,2 puntu handiagoa da. Baina handitzea 1986tik izandako txikienetako bat da (portzentajeazko 0,8 puntu baino ez, 2016ko % 40,5arekin alderatuta).

- * 1986-2016 aldian ez bezala, datuek, horrenbestez, adierazten dute ezen 2016 eta 2018 artean erabatekoa ez bada ere ongizate-egoeran dauden pertsonen pisuaren jaitsierak lotura duela batez ere talde behartsuenen pisua handitzearekin, dela ez dutelako lortzen esperotako ongizatea, dela, lortzen badute, arriskuarekin egiten dutelako.

Aldaketa garrantzitsua da, 2014-2016 aldiko berritasun nagusia eteten duena; izan ere, pobrezia, ongizaterik ezaren beste adierazpide batzuek edo ongizateaz gozatzea mugatzen zuen arriskuren bat izateak eragindako taldeen pisuak jaitsiera nabarmena izan zuen. Eragina 1986ko % 65,6tik 2008ko % 27,5era jaitsi ondoren, egoera horiek berriz ugaritu ziren 2008 eta 2012 artean, eta biztanleriaren % 28,1aren ezaugarri izan ziren 2012an, eta % 31,1, berriz, 2014an. 2016an, ordea, proportzioak atzera egin zuen, % 25,4 izan arte; hau da, ehuneko txikiena 1986tik, eta 2,1 puntu txikiagoa boom ekonomikoaren gorenean, 2008an, izandakoa baino. 2018ko % 30,3ak, 2014ko % 31,1a eta 2008. urtea baino lehenagoko ehunekoak baino txikiagoa izan arren, berriz heltzen dio 2008 eta 2014 artean, 2014-2016 aldian izan ezik, izandako goranzko bideari.

Dinamika horren ondorioak garrantzitsuak dira, 2012 eta 2014 artean gertatu zen bezala berriz ere nagusitu direlako 2016 eta 2018 artean EAEko gizartean beheranzko mugikortasun-prozesuak. Hartara, aldi horretan ongizate ez-osoak duten pertsonen proportzioa % 34,1etik % 28,5era murriztearekin batera, ongizate handieneko taldeak portzentajeazko 0,8 puntu inguru baino ez du aurrera egin. Ongizaterik gabeko egoeran dauden pertsonen proportzioa 1,8 puntu handitu da, eta 3,2 puntu, berriz, arriskua lotuta daukan ongizatea dutenen taldeari dagokiona.

10.a. taula
Egoeren bilakaera benetako pobrezia/ongizatea eskalan
PGDI adierazleak (2012ko hurbilketa). 1996-2018.
Familia etxebizitzetan bizi direnak
(Datu absolutuak)

Kokapena eskalan	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Pobrezia	185.360	106.376	93.835	89.706	114.696	127.399	122.566	130.965	6,9	46,0
Ongizate gabeziaren beste era bat	165.355	120.607	139.149	85.962	103.536	120.555	107.950	139.328	29,1	62,1
Ongizate-gabezia	350.715	226.983	232.984	175.668	218.232	247.954	230.516	270.294	17,3	53,9
Ongizate eta arrisku elementuak	621.877	451.190	430.595	416.087	392.111	424.111	313.753	384.414	22,5	-7,6
Ia erabateko ongizatea	723.264	782.334	863.390	872.089	748.214	650.989	731.159	614.312	-16,0	-29,6
Erabateko ongizatea	425.721	609.894	557.213	687.941	812.698	835.074	867.110	889.968	2,6	29,4
Guztira	2.121.577	2.070.400	2.084.181	2.151.785	2.171.254	2.158.129	2.142.539	2.158.988	0,8	0,3

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zer aldaketa izan den ehunekotan 2018an eragindako pertsonen kopuruan, ondoz ondo 2008ko eta 2016ko kopuruekin alderatuta.

10.b. taula
Egoeren bilakaera benetako pobrezia/ongizatea eskalan
PGDI adierazleak (2012ko hurbilketa). 1996-2018.
Familia etxebizitzetan bizi direnak
(% bertikalak)

Kokapena eskalan	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Pobrezia	16,1	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9	5,7	6,1	0,3	1,9
Ongizate gabeziaren beste era bat	13,1	7,8	5,8	6,7	4,0	4,8	5,6	5,0	6,5	1,4	2,5
Ongizate-gabezia	29,3	16,5	11,0	11,2	8,2	10,1	11,5	10,8	12,5	1,8	4,4
Ongizate eta arrisku elementuak	36,3	29,3	21,8	20,7	19,3	18,1	19,7	14,6	17,8	3,2	-1,5
Ia erabateko ongizatea	21,2	34,1	37,8	41,4	40,5	34,5	30,2	34,1	28,5	-5,7	-12,1
Erabateko ongizatea	13,2	20,1	29,5	26,7	32,0	37,4	38,7	40,5	41,2	0,8	9,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zenbateko aldaketa absolutua gertatu den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoan.

- * Hala ere, garrantzitsua da gogoratzea PGDI adierazleak erlatiboak direla, eta, gizarteaz adierazten duten ikuspegiaren arabera, aberastasun-maila orokorrak, BPGaren bidez neurtuta, epe luzean hedatzen jarraitzen duela. PDGI adierazleek, beraz, guztiz objektiboak izaki, gizarte-gehiengoak hautemandako beharretan izandako aldaketak islatzen dituzte, eta, gehiengo horretan, gehien-gehienak pobreziatik eta ongizaterik ezaren beste adierazpide batzuetatik at bizi dira.

Kontu garrantzitsua da, eta PGDI adierazle objektiboak arrisku handienean dauden pertsonen hautematen dutenarekin batera aztertu behar dira. Izan ere, 2018an oraindik ere egiaztatzen da benetako pobrezia adierazle objektiboek gizarte-pertzepzioari dagozkionak gainditzera jotzen dutela. Alde horretatik, adierazle objektiboaren arabera, 2018an pertsonen % 6,1 bizi da benetako pobrezian, baina EAEn *pobreak edo oso pobreak* direla uste duten etxeetako pertsonen proportzioa askoz txikiagoa da. % 2,7 da, 2012ko eta 2016ko % 3a baino txikiagoa, eta oso hurbil 2014ko % 2,6tik. Igoera 0,5-0,6 puntukoa baino ez da 1996 eta 2000 artean eta 2008an izandako % 2,1- % 2,2 mailekin alderatuta.

Gutxienez gehienbat pobreak direla dioten etxeetako pertsonen helduek, proportzioa % 6,0 da, 2016ko % 6,2a baino 0,2 puntu txikiagoa, eta etengabe behera eginez 2012ko % 7,9az den bezainbatean. Egia esan, mailarik apalena da 1996. urteaz geroztik; aurreko gutxienekoak, % 6,5, 2000koa eta 2008koa izan ziren. Era berean, 2018ko % 6a askoz txikiagoa da azken urte honetan hurbilketa objektiboan benetako ongizaterik gabekotzat jotako pertsonen % 12,5a baino.

11. taula
Benetako pobrezia adierazleak. Pertzepzio subjektiboa. 1986-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
Pobrea edo oso pobrea	17,6	2,1	2,2	3,2	2,1	3,0	2,6	3,0	2,7	-0,2	0,6
Gutxienez pobre samarra		7,8	6,5	7,6	6,5	7,9	7,2	6,2	6,0	-0,2	-0,5

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak erakusten du zenbateko aldaketa absolutua gertatu den 2008/2016 eta 2018 artean eragindako pertsonen ehunekoan.

Paradoxikoa da benetako pobrezia- eta prekarietate-adierazle objektiboek gora egitea eta, aldi berean, hautemandako pobrezia-mailak behera egitea, eta paradoxa horren adierazgarria da 2018an benetako pobrezia-egoera objektiboan dauden pertsonen % 60,8 dagoen etxeetan ikuspegi subjektibo batetik esatea moldatzen direla dauzkaten beharrei aurre egiteko, edo, are gehiago, eroso samar bizitzeko. Proportzio hori pixkaka jaitsiz joan zen 1996ko % 53,6tik 2000an eta 2004an % 47 baino gehixeago, 2008an % 43,1, 2012an % 39,5 eta 2014an gutxienekoa (% 36,1) izatera. Hortik aurrera, proportzioa berriz gorantz hasi zen 2016ko % 48,5eraino, eta 2018an berriz gainditu zen % 50eko maila (% 60,8).

1.3.2.DSBE/EPO/GLL sistemaren eragina

Pobrezia objektiboaren eta egoeraren pertzepzio subjektiboaren arteko aldea azaltzen laguntzeko, erabakigarria da gogoan izatea zer eragin duen Euskadin DSBE/EPO/GLL sistemak. Kontuan hartuta benetako pobrezia-arriskua duten etxeetan bizi diren pertsona guztiak⁶, honako alderdi hauek nabarmentzen dira horri dagokionez:

- * Etxeetako egoerari begiratuta, 136.567 pertsona daude DSBE/EPO/GLL sisteman sartuta 2018an. Zenbateko hori 2016. urtean izan zen 134.563 pertsonako datuaren oso antzekoa da, baina 2008an egoera horretan zeuden 83.023 pertsonako datua baino % 64,5 handiagoa. EAEko biztanleriaren % 6,3 da: 2016ko ehunekoaren antzekoa da, 2012ko % 6,1etik hurbil dago, eta argi eta garbi gainditzen du 2008ko balioa (% 3,9). Hala ere, 2014an izandako % 7aren azpitik dago; izan ere, urte hartan sistemak 151.591 pertsonari egin zien kasu.

DSBE/EPO/GLL sistema arriskuan dauden 197.185 pertsonen % 69,3ari heldu zaio 2018an; hau da, 2016an bezala⁷. Proportzio hori 2008koa baino nabarmen handiagoa da (% 63,6 izan zen urte horretan), baina 2012koa eta 2014koa baino 3 puntu apalagoa (% 72,6 eta % 72,9, hurrenez hurren).

- * Laguntzak eskuratzea lotuta dago benetako pobrezia gainditzearekin 66.219 pertsonaren kasuan (EAEko biztanleriaren % 3,1). Proportzioa 2012ko % 3,2a eta 2016ko % 3,3a baino txikixeagoa da, baina 2008ko % 1,9a baino askoz handiagoa. Hala ere, 2014koa baino apalagoa da (% 3,7).

2018an, benetako pobreziatik ateratzeko laguntzan izandako eragina % 33,6 da, arriskuan dagoen biztanleria kontuan hartuta; proportzio horrek 2008ko % 31,3a baino ez du gainditzen. Gehiegi urrundu gabe ere, 2016ko % 36,8aren, 2012ko % 37,5aren eta 2014ko % 38,7aren azpitik dago. Pobreziatik ateratzen direnen kolektiboan, sistemako prestazioen pisuak behera egin du 2018an diru-sarrera osoez den bezainbatean: % 39,5; 2016ko % 43,7aren eta 2014 % 41,1aren azpitik, baina 2012ko % 33,5aren eta 2008ko % 29,9aren gainetik. Kontuan hartutako biztanleriaren % 69,3 pobretzat jotzen ez diren etxeetan bizi da 2018an, eta ehuneko hori 2014ko % 69,5aren antzekoa da, eta 2012ko % 63,2a baino handiagoa. Hala ere, 2008koa eta 2016koa (% 74 baino handixeagoak) baino txikiagoa da.

Sisteman sartzeak diru-sarreraren pobreziako atalasea (mantentzea) gainditzeko aukera ematen dio 20.131 pertsonari, EAEko biztanleriaren % 0,9ari. Datu hori 2008an onuradun izandako biztanleei dagokienez % 18,8 handiagoa da, baina proportzioa % 34,2 murrizten da 2012an onuradun izandako 30.616 pertsonekin alderatuta. Izan ere, urte horretatik izandako beheranzko joera finkatu egin da 2018an.

⁶ Arrisku-egoerek barruan hartzen dituzte benetako pobrezia-egoerek eragindako pertsonak, bai eta prestazioen sisteman sartzeko oinarrian dauden arazo ekonomikoei aurre egiten dietenak ere.

⁷ Prestazioak izapidetzen ari den kolektiboari erreparatzen bazaio, estaldura-maila % 72,5 da. Proportzioa % 75,9 da, azken urtean prestazioetakoren bat jaso duten pertsonak kontuan hartzen badira. Beste % 3ri eskaera ukatu egin zaio. Gainerako % 21,2ak ez du DSBE/EPO/GLL prestaziorik eskatu azken urtean.



12. taula. DBE/EPO/GLL sistemak benetako pobreziaren prebentzioan duen eraginari buruzko adierazleak. 2008-2018

	Abs.	Guztizko biztanleriaren %	Arrisku-taldearen %	DBE/EPO eta GLL diru-sarreraren %	Norberaren eta prestazioen eta pentsioen sistema orokorreko diru-sarreraren %	Atalasearekiko benetako distantziaren %	Atalasearekiko distantziaren %, sistemako prestaziorik gabe	Beren burua pobretzat/oso pobretzat dutenen %	Beren burua gutxienez pobre samartzat hartzen ez dutenen %	Etxeko unitateko gutxieneko premiei aurre egiteko baina diru-sarrerak handiagoak dituztenen %
2018										
Sistemak barne hartutako biztanleria	136.567	6,3	69,3	50,8	42,3			83,9	61,3	71,0
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	<i>70.348</i>	<i>3,3</i>	<i>35,7</i>	<i>70,3</i>	<i>20,9</i>	<i>20,6</i>	<i>76,4</i>	<i>80,0</i>	<i>53,7</i>	<i>57,8</i>
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	<i>66.219</i>	<i>3,1</i>	<i>33,6</i>	<i>39,5</i>	<i>54,7</i>			<i>88,1</i>	<i>69,3</i>	<i>85,0</i>
<i>- Diru-sarrerak > mantenu-pobreziaren atalasea</i>	<i>20.131</i>	<i>0,9</i>	<i>10,2</i>							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	60.618	2,8	30,7	0,0	91,9	26,7	26,7	85,6	69,1	60,0
<i>- Autonomoen soldatak, lantsariak eta diru-sarrerak</i>					<i>53,9</i>					
GUZTIRA	197.185	9,1	100,0	50,8				84,4	63,7	67,6
2016										
Sistemak barne hartutako biztanleria	134.563	6,3	69,3	52,2	41,3			80,0	60,0	67,0
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	<i>63.069</i>	<i>2,9</i>	<i>32,5</i>	<i>69,2</i>	<i>22,2</i>	<i>16,1</i>	<i>74,2</i>	<i>73,3</i>	<i>43,4</i>	<i>48,5</i>
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	<i>71.494</i>	<i>3,3</i>	<i>36,8</i>	<i>43,7</i>	<i>50,9</i>			<i>85,9</i>	<i>74,6</i>	<i>83,3</i>
<i>- Diru-sarrerak > mantenu-pobreziaren atalasea</i>	<i>24.316</i>	<i>1,1</i>	<i>12,5</i>							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	59.497	2,8	30,7	0,0	82,5	22,5	22,5	72,6	53,8	48,3
<i>- Autonomoen soldatak, lantsariak eta diru-sarrerak</i>					<i>52,4</i>					
GUZTIRA	194.060	9,1	100,0	52,2				77,7	58,1	61,3
2014										
Sistemak barne hartutako biztanleria	151.591	7,0	72,9	51,0	43,1			80,8	53,2	77,2
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	<i>71.092</i>	<i>3,3</i>	<i>34,2</i>	<i>71,4</i>	<i>21,7</i>	<i>16,1</i>	<i>76,0</i>	<i>69,9</i>	<i>34,8</i>	<i>65,1</i>
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	<i>80.499</i>	<i>3,7</i>	<i>38,7</i>	<i>41,1</i>	<i>53,4</i>			<i>90,5</i>	<i>69,5</i>	<i>87,9</i>
<i>- Diru-sarrerak > mantenu-pobreziaren atalasea</i>	<i>24.993</i>	<i>1,2</i>	<i>12,0</i>							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	56.307	2,6	27,1	0,0	86,0	30,5	30,5	70,1	37,8	52,1
<i>- Autonomoen soldatak, lantsariak eta diru-sarrerak</i>					<i>40,4</i>					
GUZTIRA	207.898	9,6	100,0					77,9	49,0	70,4

12. taula (Jarraipena).

DBE/EPO/GLL sistemak benetako pobreziaren prebentzioan duen eraginari buruzko adierazleak. 2008-2018

	Abs.	Gutuzko biztanleriaren %	Arrisku-taldeen %	DBE/EPO eta GLL diru-sarreraren %	Norberaren eta prestazioen eta pentsioen sistema orokorreko diru-sarreraren %	Atalasearekiko benetako distantziaren %	Atalasearekiko distantziaren %, sistemako prestaziorik gabe	Beren burua pobretzat/oso pobretzat ez dutenen %	Beren burua gutxienez pobre samartzat hartzen ez dutenen %	Etxeko unitateko gutxieneko premiei aurre egiteko baino diru-sarrerak handiagoak dituztenen %
2012										
Sistemak barne hartutako biztanleria	133.267	6,1	72,6	46,4	48,0			77,1	49,6	65,1
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	<i>64.383</i>	<i>3,0</i>	<i>35,1</i>	<i>70,0</i>	<i>23,5</i>	<i>19,7</i>	<i>75,9</i>	<i>68,0</i>	<i>35,2</i>	<i>46,2</i>
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	<i>68.884</i>	<i>3,2</i>	<i>37,5</i>	<i>33,5</i>	<i>61,4</i>			<i>85,6</i>	<i>63,2</i>	<i>82,8</i>
<i>- Diru-sarrerak > mantenu-pobreziaren atalasea</i>	<i>30.616</i>	<i>1,4</i>	<i>16,7</i>							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	50.313	2,3	27,4	0,0	88,6	24,9	24,9	80,6	45,2	47,2
<i>- Autonomoen soldatak, lansariak eta diru-sarrerak</i>					<i>42,1</i>					
GUZTIRA	183.580	8,5	100,0					78,0	48,4	60,2
2008										
Sistemak barne hartutako biztanleria	83.023	3,9	63,6	39,0	53,8			82,1	51,3	76,3
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	<i>42.165</i>	<i>2,0</i>	<i>32,3</i>	<i>56,4</i>	<i>36,6</i>	<i>17,0</i>	<i>63,8</i>	<i>78,7</i>	<i>28,6</i>	<i>61,3</i>
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	<i>40.858</i>	<i>1,9</i>	<i>31,3</i>	<i>29,9</i>	<i>62,8</i>			<i>85,7</i>	<i>74,7</i>	<i>91,9</i>
<i>- Diru-sarrerak > mantenu-pobreziaren atalasea</i>	<i>16.944</i>	<i>0,8</i>	<i>13,0</i>							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	47.542	2,2	36,4	0,0	92,7	21,3	21,3	77,3	55,9	70,2
<i>- Autonomoen soldatak, lansariak eta diru-sarrerak</i>					<i>36,5</i>					
GUZTIRA	130.564	6,1	100,0					80,4	53,0	74,1

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014/2018

Pobrezian egoteko arriskuan dauden biztanleen barruan sartzen dira benetako pobrezian dauden edo DSBE/EPS/GLL sistemari heltzeko eskubidea ematen duen egoeraren batean dauden pertsonak.



- * Laguntzak jaso arren, 70.348 pertsona, 2008an baino % 66,8 gehiago, ez dira atera pobreziatik DSBE/EPO/GLL sisteman sartuta. Kopuru hori 2016ko 63.069koa eta 2012ko 64.383koa baino handiagoa da, baina 2014ko 71.092koa baino txikiagoa. Kopuru erlatibotan, taldea EAEko biztanleriaren % 3,3 da 2018an, eta ehuneko hori 2014koaren antzekoa da, baina 2016koa (% 2,9), 2012koa (% 3) eta 2008koa (% 2) baino handiagoa.

Erreferentziazko kolektiboan, sistemako prestazioek aukera ematen dute funtsean txikitzeko balia daitezkeen diru-sarreraren eta diru-sarrerei (mantentzeari) lotutako pobrezia-atalasearen arteko aldea: % 76,4tik % 20,6ra. Atalasearekiko aldea handiena da 2008tik, orduan % 17 izan baitzen, eta % 16,1, berriz, 2014an eta 2016an, baina 2012ko % 19,7ra hurbiltzen da. Kolektibo horren diru-sarrera guztietan DSBE/EPO/GLL diru-sarrerek duten pisua, ordea, % 70,3 da 2018an, soil-soilik 2014ko % 71,4a baino txikiagoa. Askoz handiagoa da 2008ko % 56,4a, 2016ko % 69,2 eta 2012ko % 70a baino.

Askoz ildo positiboago batean, pertzepzio subjektiboari dagokionez, aztertutako pertsonen % 57,8 bizi den etxeetan uste dute dauzkaten diru-sarrerak aski direla etxe horietan dauden oinarritzko beharrak betetzeko hertsiki behar den gutxienekoari aurre egiteko. Ehuneko hori 2016ko % 48,5a eta 2012ko % 46,2 baino argi eta garbi handiagoa da. Hala ere, 2008ko % 61,3aren azpitik dago, bai eta, nabarmenago, 2014ko % 65,1aren azpitik ere.

Ildo on horretan bertan, kontuan hartutako biztanleriaren % 80aren etxeetan ez dute uste pobreziarik gorrienean daudenik; hau da, pobreak edo oso pobreak direnik. Mailarik handiena da 2008ko % 78,7az geroztik. Ehunekoa argi eta garbi handiagoa da 2016koa (% 73,3), 2014koa (% 69,9) eta 2012koa (% 68) baino.

Gainera, 2018an, lehenengo aldiz 2008tik, aztertutako kolektiboan gehiengoduna izan da gutxienez pobre samarrak direla pentsatzen ez duten etxeetako pertsonen proportzioa: % 53,7; ehuneko hori etengabe handitu da 2008ko % 28,6tik, eta % 43,4 zen oraindik 2006an.

- * Arriskuan egonda sisteman sartzen ez diren biztanleak, guztira, 60.618 dira 2018an; 2016ko 59.947ak baino % 1,9 gehiago. Zenbatekoa etengabe jotzen du handitzera 2008ko 47.542ko kopuruaz geroztik, eta 2018an % 27,5 handiagoa izan da urte hartan baino. Kolektibo hori, 2018an, arriskuan dauden etxeetako pertsona guztien % 30,7 da, 2016an bezala. Ehunekoa 2012ko % 27,4a eta 2014ko % 27,1a baino handiagoa da, baina 2008ko % 36,4a baino txikiagoa.

Kolektibo honetan, erabakigarria da diru-sarrerak izatea lanagatik (guztizkoaren % 53,9, 2008 eta 2014 artean % 36,5etik % 42,1era bitarte baina 2016an jada % 52,4 izan ondoren) eta/edo Estatuko sistema orokorreko pentsio eta prestazioengatik (% 91,9 oro har, soil-soilik 2008ko % 92,7aren azpitik).

Kontuan hartutako kolektiboaren okupazio-profilari irudi normalizatua dagokio, eta, nagusiki, lana du, edo lanaren ordezkotako prestazio orokorrak jasotzen ditu. Kolektiboaren barruan, pertsonen % 60ren etxeetan dauzkaten diru-sarrerak handiagoak dira oinarritzko beharrak betetzeko gutxienekotzat jotzen dituztenak baino. Proportzioa asko handitu da 2014ko % 52,1arekin eta 2016ko % 48,3arekin alderatuta (azken ehuneko hori txikienetako bat da 2012ko % 47,2az geroztik). 2018ko proportzioa soil-soilik da 2008ko % 70,2a baino txikiagoa.

Kolektiboan, bestalde, pobreziatik kanpo daudela (gutxienez pobre samarrak direla) uste duten etxeetako pertsonen proportzioak handitzen jarraitzen du. Proportzio hori % 69,1 da 2018an; hau da, 2014ko % 53,8a baino 15 puntutik gora, 2014ko % 37,8a eta 2012ko % 45,2a baino 20 puntutik gora handiagoa. Gainera, lehenengo aldiz gainditu da 2008ko % 55,9a.

Bilakaera hori, 2016. urtera arte, balia zitezkeen diru-sarreraren eta mantentze-pobreziako atalasearen artean zegoen aldearekiko paraleloa zen. Alde hori etengabe handitu zen 2008az geroztik; izan ere, % 21,3koa izan zen urte hartan, % 24,9koa 2012an eta % 30,5koa 2014an. Hala ere, % 22,5era jaitsi zen 2016. urtean, eta 2008ko datura hurbildu. 2018an, ordea, proportzioak berriz gora egin zuen % 26,7 izan arte (soil-soilik 2014koa baino txikiagoa).

- * Aztertuta 13. taulan zer pisu duen DSBE/EPO/GLL sistemak biztanleen diru-sarreretan kontuan hartuta zer leku duten benetako pobrezia/ongizate-eskalan, ikusten da laguntza-sistema honek diru-sarreraren % 38,5 ematen diela gaur egun benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleei, eta proportzio hori % 42,1era handitzen dela EAEko erakundeen beste laguntza sozialak ere kontuan hartuta. Ehunekoak 2016koen antzekoak dira (% 38,3 eta % 40,2, hurrenez hurren).

2016ko % 18,6az geroztik handitu arren, DSBE/EPO/GLL sistemaren ekarpenak babes orokorreko estatu-sistematik datozen diru-sarrerei dagokien % 21,4a gainditzeko du, eta % 9,3k lotura du langabeziaren eta gainerako prestazio osagarrien arloko politikarekin, eta % 12,1ek, berriz, erretiroari, baliaezintasunari eta alarguntzari dagozkien pentsioen sistema orokorrarekin. Diru-sarrera propioei lotutako diru-sarreraren % 31,7a ere gainditzeko du. % 30,4 lanetik dator zuzenean (2016. urtean, % 31,6 eta % 30,5). Gainerako % 4,9a gizartearen beraren transferentzietatik dator (familiak eta gobernuz kanpoko erakundeak); kasu honetan, 2016ko % 9,7aren nahiko azpitik.

13.a. Taula
Biztanleen diru-sarreraren banaketa, motaren arabera eta benetako pobrezia/ongizate eskalan dute kokalekua kontuan hartuta.
Hileko batez besteko datuak, garbiak. 2018
(Datu absolutuak)

Diru-sarrera mota	Pobrezia	Ongizate gabeziaren beste era bat	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	GUZTIRA
Lana	14.473.932	38.557.914	156.611.412	1.343.174.382	1.552.817.640
Higiezinaren sarrerak	160.758	161.364	1.739.701	38.920.643	40.982.466
Higigarrien sarrerak, pentsio-funtsak eta antzekoak	309.511	493.620	3.760.212	46.317.859	50.881.202
Laneko kalte-ordainak	30.463	117.899	971.655	4.877.989	5.998.005
Auto-kontsumoa	67.319	134.354	281.994	2.387.281	2.870.949
DIRU-SARRERA PROPIOAK	15.041.982	39.465.151	163.364.975	1.435.678.154	1.653.550.262
Babes orokorra: erretiroa, baliaezintasuna eta alarguntza	4.415.692	19.625.876	96.361.171	457.518.696	577.921.435
Beste babes orokor bat: langabezia eta beste batzuk	5.723.352	7.522.701	18.759.647	72.284.891	104.290.591
SEGURANTZAKO ETA ANTZEKO SARRERAK	10.139.044	27.148.577	115.120.818	529.803.587	682.212.027
DBE/EPO/GLL sistema	18.262.793	12.882.445	4.307.911	454.464	35.907.613
Bestelako gizarte-laguntzak	1.707.775	1.379.786	1.721.394	4.971.144	9.780.099
GIZARTE-LAGUNTZEN SARRERAK	19.970.568	14.262.231	6.029.306	5.425.608	45.687.712
GIZARTEAREN BARRUKO TRANSFERENTZIAK	2.326.338	2.675.483	6.013.789	7.898.322	18.913.932
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	47.477.932	83.551.441	290.528.888	1.978.805.671	2.400.363.932

Iturria: GZEE-GPI 2018

Hileko batez besteko datuak, garbiak



13.b. Taula

Biztanleen diru-sarreraren banaketa, motaren arabera eta benetako pobrezia/ongizate eskalan dute kokalekua kontuan hartuta.

Hileko batez besteko datuak, garbiak. 2018

(% bertikalak)

Diru-sarrera mota	Pobrezia	Ongizate gabeziaren beste era bat	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	GUZTIRA
Lana	30,5	46,1	53,9	67,9	64,7
Higiezinaren sarrerak	0,3	0,2	0,6	2,0	1,7
Higigarrien sarrerak, pentsio-funtsak eta antzekoak	0,7	0,6	1,3	2,3	2,1
Laneko kalte-ordainak	0,1	0,1	0,3	0,2	0,2
Auto-kontsumoa	0,1	0,2	0,1	0,1	0,1
DIRU-SARRERA PROPIOAK	31,7	47,2	56,2	72,6	68,9
Babes orokorra: erretiroa, baliaezintasuna eta alarguntza	9,3	23,5	33,2	23,1	24,1
Beste babes orokor bat: langabezia eta beste batzuk	12,1	9,0	6,5	3,7	4,3
SEGURANTZAKO ETA ANTZEKO SARRERAK	21,4	32,5	39,6	26,8	28,4
DBE/EPO/GLL sistema	38,5	15,4	1,5	0,0	1,5
Bestelako gizarte-laguntzak	3,6	1,7	0,6	0,3	0,4
GIZARTE-LAGUNTZEN SARRERAK	42,1	17,1	2,1	0,3	1,9
GIZARTEAREN BARRUKO TRANSFERENTZIAK	4,9	3,2	2,1	0,4	0,8
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: GZEE-GPI 2018

13.c. taula

Biztanleen diru-sarreraren banaketa, motaren arabera eta benetako pobrezia/ongizate eskalan dute kokalekua kontuan hartuta.

Hileko batez besteko datuak, garbiak. 2018

(% horizontalak)

Diru-sarrera mota	Pobrezia	Ongizate gabeziaren beste era bat	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	GUZTIRA
Lana	0,9	2,5	10,1	86,5	100,0
Higiezinaren sarrerak	0,4	0,4	4,2	95,0	100,0
Higigarrien sarrerak, pentsio-funtsak eta antzekoak	0,6	1,0	7,4	91,0	100,0
Laneko kalte-ordainak	0,5	2,0	16,2	81,3	100,0
Auto-kontsumoa	2,3	4,7	9,8	83,2	100,0
DIRU-SARRERA PROPIOAK	0,9	2,4	9,9	86,8	100,0
Babes orokorra: erretiroa, baliaezintasuna eta alarguntza	0,8	3,4	16,7	79,2	100,0
Beste babes orokor bat: langabezia eta beste batzuk	5,5	7,2	18,0	69,3	100,0
SEGURANTZAKO ETA ANTZEKO SARRERAK	1,5	4,0	16,9	77,7	100,0
DBE/EPO/GLL sistema	50,9	35,9	12,0	1,3	100,0
Bestelako gizarte-laguntzak	17,5	14,1	17,6	50,8	100,0
GIZARTE-LAGUNTZEN SARRERAK	43,7	31,2	13,2	11,9	100,0
GIZARTEAREN BARRUKO TRANSFERENTZIAK	12,3	14,1	31,8	41,8	100,0
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	2,0	3,5	12,1	82,4	100,0

Iturria: GZEE-GPI 2018

DSBE/EPO/GLL prestazioek ere eginkizun garrantzitsua betetzen jarraitzen dute pobrezia gainditzeko duen baina ongizaterik ezaren beste adierazpide batzuei aurre egiten dien taldean. Kolektibo horretan, diru-sarreraren zati nagusia lanetik eta beste jarduera ekonomiko batzuetatik dator (% 47,2; hala ere, 2016ko % 49,3tik behera). Alde horretatik, EAEko babes-sistemak kolektiboaren diru-sarreraren % 15,4aren ekarpena egiten du, baina proportzio hori % 17,1era handitzen da, EAEko beste laguntza publikoak kontuan hartzearen ondorioz (hala ere, 2016ko % 19,6 eta % 20,3tik behera).

Ekarpen horren garrantziaren egiaztagarri, argi eta garbi gainditzeko du langabeziari lotutako babes-sistematik eta beste estatu-laguntza orokor batzuetatik datorren % 9,0a (% 9,1a 2016an). 2018an

argiago urruntzen da pentsioei dagokien % 23,5etik (goranzko bide argian 2016ko % 15arekin alderatuta).

DSBE/EPO/GLL sistema da, bestalde, arreta nagusiki ongizatea izateko arazoak dituzten kolektiboetan jartzen jarraitzen duen bakarra da. Prestazioen eta laguntzen % 50,9, egun, benetako pobreak eragindako kolektiboentzat da; % 35,9, berriz, ongizaterik ez dutenentzat; eta % 12 nagusiki ongizatea izan arren arrisku-errealitateak ere badituztenentzat. Horrenbestez, egindako gastuaren % 98,7 arazo sozial handienak dituzten kolektiboetan metatzen da, eta % 1,3 baino ez da bideratzen erabateko edo ia erabateko ongizatea duten taldeetara.

Guztiz bestela, EAEko gainerako asistentziazko laguntzek gastuaren % 50,8 bideratzen dute ongizate-egoeran dauden talde horietara. Ildo beretik, kolektibo mesedetuenetan ere biltzen da langabezian eta pentsioen politika orokorra ez diren beste gizarte-politika batzuetan egiten den estatu-gastuaren % 69,3.



2. Arrisku handieneko egoeran dauden gizarte-taldeak eta eremuak

2.1. Benetako pobreziaren eragina, demografia-aldagaien arabera

Azterketarako oinarritzko erreferentziatzat hartuta benetako pobreziaren adierazlea, ondoren adierazle horrek 2008 eta 2018 artean EAEko kolektibo sozio-demografiko nagusiei dagokienez izandako dinamika aztertzen da, bereziki aipatuta 2016-2018 aldiko aldaketak⁸.

a) Gora egin du benetako pobreziak seme-alabak dituzten familietan duen eragina

Familia-talde mota kontuan hartzean, 2016 eta 2018 artean izandako okertze nagusia guraso bakarreko familietan pobrezia handitzeari lotuta dago. Talde horretan, benetako pobreziaren eragina goraka ari zen 2014 eta 2016 artean (% 12,7tik % 13,4ra), baina goranzko joera hori 2016-2018 aldian areagotu egin zen, eta 2018an % 15ekoa izan zen. Ehuneko hori 2012an soilik izan zen txikiagoa (% 18,2).

Hain deigarria izan gabe ere, nabarmena da, halaber, seme-alabak dituzten bikoteetan benetako pobreziaren adierazleak gora egin izana. Talde horretan, benetako pobreziaren eragina etengabe handitu zen 2008ko % 3,3tik 2012ko % 3,7ra eta 2014ko % 5,5era, baina % 4,5era murriztu zen 2016an. EAEko batezbestekoaren eta 2014ko mailaren azpitik jarraitu arren, tasa % 5eraino igo da 2018an.

14.a. taula. Benetako pobrezia-eta prekaritate-egoeren bilakaera, familia-talde bakoitzeko 2008-2018
Familia etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekaritate-mota		Bakarrik bizi diren pertsonak	Seme-alabarik gabeko bikotea	Seme-alabadun bikotea	Bakarrik bizi diren pertsonak/ Bestelako familia-taldea	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	3,9	4,4	13,7	9,7	5,7
	2012	5,2	5,3	19,2	10,9	7,3
	2014	4,2	7,4	13,9	13,4	8,2
	2016	3,7	5,5	13,8	11,3	7,1
	2018	3,6	6,2	17,3	11,7	8,0
Metatze-pobrezia	2008	0,9	1,2	4,1	2,4	1,5
	2012	1,2	1,1	4,7	1,0	1,4
	2014	0,4	1,9	5,5	1,8	2,0
	2016	0,6	1,1	3,7	2,7	1,6
	2018	0,4	0,9	2,0	0,7	0,9
Benetako pobrezia	2008	1,9	3,3	13,2	6,4	4,2
	2012	2,5	3,7	18,2	7,5	5,3
	2014	2,1	5,5	12,7	8,2	5,9
	2016	2,2	4,5	13,4	8,2	5,7
	2018	2,3	5,0	15,0	7,0	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	4,8	6,8	19,9	12,9	8,2
	2012	6,2	7,2	29,1	16,1	10,1
	2014	5,6	9,7	25,9	16,6	11,5
	2016	6,7	7,5	24,3	16,4	10,8
	2018	6,3	9,9	30,4	14,9	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

⁸ Aurkezten diren taulek ere informazio orokorragoa ematen dute pobreziak dituen alderdiez eta benetako ongizaterik ezaren adierazleaz.

14.b. taula
Benetako pobrezia-eta prekarietate-egoeren bilakaera, familia-talde bakoitzeko 2008-2018
Familia etxebizitzetan bizi direnak.
(% horizontalak)

		Bakarrik bizi diren pertsonak	Seme-alabarik gabeko bikotea	Seme- alabadun bikotea	Bakarrik bizi diren pertsonak/ Bestelako familia-taldea	Guztira
Pobrezia- edo prekarietate-mota						
Mantenu-pobrezia	2008	12,2	50,3	20,3	17,3	100,0
	2012	15,7	42,1	25,1	17,1	100,0
	2014	10,7	50,5	18,6	20,2	100,0
	2016	9,8	42,2	24,9	23,1	100,0
	2018	8,0	42,0	25,8	24,2	100,0
Metatze-pobrezia	2008	10,1	51,3	22,7	15,9	100,0
	2012	18,1	42,9	31,3	7,7	100,0
	2014	3,8	54,7	30,1	11,4	100,0
	2016	7,0	38,8	29,3	24,9	100,0
	2018	7,2	53,4	25,7	13,7	100,0
Benetako pobrezia	2008	8,0	50,1	26,6	15,3	100,0
	2012	10,5	40,6	32,7	16,1	100,0
	2014	7,3	51,9	23,6	17,2	100,0
	2016	7,3	42,2	29,9	20,6	100,0
	2018	6,8	44,7	29,4	19,1	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	10,3	53,4	20,4	15,8	100,0
	2012	13,5	40,9	27,4	18,3	100,0
	2014	10,0	47,4	24,7	17,9	100,0
	2016	11,7	37,6	28,6	22,0	100,0
	2018	8,9	42,7	28,9	19,6	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Pobreziaren banaketan ikusitako dinamikaren ondorioek seme-alabak dituzten bikoteei eragiten diete batez ere, eta berriz handitu da benetako pobreziako egoeretan dagokien ehunekoa: 2016ko % 42,2tik 2018ko % 44,7ra. Proportzio hori, ordea, urrun geratzen da 2008ko % 50,1etik eta 2014ko % 51,9tik.

Eragin erlatiboa handitu arren, pisua zertxobait jaisten da benetako pobreziako guztizko egoeretan, guraso bakarreko familiei dagokienez: % 29,4, 2018. urtean; 2016ko % 29,9aren eta 2012ko % 32,7aren azpitik. Proportzioa, ordea, handiagoa da 2008ko % 26,6a eta 2014ko % 23,6a baino.

Oro har, guraso bakarreko familiek eta seme-alabak dituzten bikoteek benetako pobrezia-kasuen % 74,1 bildu dute 2018. urtean, 2016ko % 72aren eta 2012ko % 73,4aren gainetik. Hala ere, proportzioa 2014ko % 75,5aren eta 2008ko % 76,7aren azpitik dago.

Seme-alabak dituzten familietan ez bezala, egoerak hobera egin du bakarrik bizi diren pertsonen artean eta familia-nukleo batean oinarrituta ez dauden taldeetan. Kasu honetan, 2008 eta 2014-2016 artean % 6,4tik % 8,2ra handitu ondoren, benetako pobreziaren tasa % 7ra jaitsi da 2018an (2008ko maila baino ez du gainditzen). Horrelako etxeek pobreziaren banaketan duten pisuak jarraitu arren 2008 eta 2014 artean izandako % 15,3tik % 17,2ra bitarteko balioen gainetik, 2008. urteaz geroztik lehen aldiz jaitsi da benetako pobreziako egoeretan duen parte-hartzea (% 20,6tik % 19,1era).



Seme-alabarik gabeko bikoteak dira oraindik ere gutxien eragindako taldea, 2018an % 2,3 izaki benetako pobrezia tasa; hots, horrelako familietan 2008tik izandako % 1,9-% 2,5 tartean jarraituta. 2018an, kolektibo horrek pobrezian beste gutxieneko ekarpen-maila bat izan du, EAEko benetako pobrezia kasuen % 6,8 baino ez baitu bildu.

Baina haur-pobrezia atzera egiten du

Seme-alabak dituzten familietan pobrezia handitzeak ez du automatikoki esan nahi haur-pobrezia gora egiten duenik. Izan ere, intzidentzia erlatiboan, 2008tik lehendabizikoz egin du behera horrelako pobrezia eraginak. Hartara, 14 urtetik beherako adingabeak dituzten etxeetako biztanlerian, benetako pobrezia tasa 2014 eta 2016 artean % 10,1-% 10,2 izan ondoren % 9,5era jaitsi da 2018an. Pobrezia dauden pertsona guztiei dagokienez, adingabeak dituzten etxeetako biztanleak % 50,2 izan dira 2018an. Ehuneko hori 2008-2018 aldiko txikiena da. Proportzioa oso argi urruntzen da 2008ko % 63,1etik.

Izandako aldaketa gorabehera, garrantzitsua da nabarmentzea benetako pobrezia tasa, seme-alabak dituzten familietan, 2018an argiki handiagoa izaten jarraitzen duela (% 9,5) 2008an (% 7,6) eta 2012an (% 8,5) baino. 2018ko % 9,5a, gainera, urte horretan adingaberik gabeko etxeei dagokien proportzioa (% 4,4) halako bi baino handiagoa da. Hala ere, egun, horrelako etxeetan biltzen da pobrezia-egoeren % 49,8; hau da, 2016an (% 44,1) eta 2012an (% 46,2) baino gehiago. Agerikoa da 2008an adingaberik gabeko etxeetan biltzen ziren pertsona pobreen % 36,9arekiko aldea.

15.a. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, etxeen unitatean 14 urtetik beherako
adingabekoak egoteagatik. 2008-2018.
Familia etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Adingaberik gabe	Adingabeekin	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	4,0	8,8	5,7
	2012	5,6	10,7	7,3
	2014	6,1	12,4	8,2
	2016	5,2	11,1	7,1
	2018	6,7	10,7	8,0
Metatze-pobrezia	2008	1,2	2,1	1,5
	2012	0,8	2,7	1,4
	2014	1,1	3,8	2,0
	2016	1,1	2,7	1,6
	2018	0,6	1,5	0,9
Benetako pobrezia	2008	2,4	7,6	4,2
	2012	3,7	8,5	5,3
	2014	3,8	10,1	5,9
	2016	3,7	10,2	5,7
	2018	4,4	9,5	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	5,5	13,2	8,2
	2012	8,4	13,3	10,1
	2014	9,2	16,1	11,5
	2016	8,1	16,6	10,8
	2018	9,9	18,0	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

15.b. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, etxekoen unitatean 14 urtetik beherako
adingabekoak egoteagatik. 2008-2018.
Familia etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Adingaberik gabe	Adingabeekin	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	46,1	53,9	100,0
	2012	51,2	48,8	100,0
	2014	49,4	50,6	100,0
	2016	51,0	49,0	100,0
	2018	57,1	42,9	100,0
Metatze-pobrezia	2008	51,4	48,6	100,0
	2012	37,5	62,5	100,0
	2014	36,8	63,2	100,0
	2016	46,8	53,2	100,0
	2018	45,3	54,7	100,0
Benetako pobrezia	2008	36,9	63,1	100,0
	2012	46,2	53,8	100,0
	2014	42,6	57,4	100,0
	2016	44,1	55,9	100,0
	2018	49,8	50,2	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	43,7	56,3	100,0
	2012	56,1	43,9	100,0
	2014	53,2	46,8	100,0
	2016	52,0	48,0	100,0
	2018	54,0	46,0	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Haur-pobreziaren dinamika ona 14 urtetik beherakoen egoera soilik kontuan hartzean ere ikusten da. Hartara, 2008an % 7,3 izatetik 2012an % 9,5 eta 2014an % 11,2 izatera aldatu ondoren, haur-pobreziaren eragina 2016an % 10,6 izatera jaitsi zen, eta jaitsiera horrek, motelago bada ere, jarraitu egin zuen, 2018an % 10,3 izan arte. Benetako pobreziako kasu guztietan, 14 urtetik beherakoek duten pisuak, 2014an % 25,7ra handitu ondoren, behera egin du 2016an (% 23,1) eta 2018an (% 22,4; proportziorik txikiena 2008. urteaz geroztik).

Hobekuntza nabarmena den arren, oraindik ere mugatua dela adierazi behar da. Hartara, 14 urtetik gorako biztanleen benetako pobreziaren tasa 1,7 puntu handiagoa da 2018an 2008koa baino (% 5,4 eta % 3,7, hurrenez hurren), baina aldea 3 puntukoa da 14 urtetik beherako biztanleen kasuan (% 10,3 2018an eta % 7,3, berriz, 2008an). 2018an, adingabeen benetako pobreziaren tasak, gainera, 14 urtetik gorakoena ia halako bi baino handiagoa izaten jarraitzen du (% 10,3 eta % 5,4).

Nolanahi ere, nabarmendu behar da handituz joan dela 14 urtetik gorako biztanleen pobrezia-tasa. 2008an % 3,7 izan ondoren, % 4,6ra igo zen 2012an, eta goranzko joera izan du ordudanik, neurrizkoa bada ere, 2018an % 5,4 izan arte. 14 urtetik gorakoek pobreziaren banaketan duten pisuak, izan ere, gehienekoa izan du 2018an: % 77,6.



16.a. taula

Adinaren arabera benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera (14 urtetik gorako edo beherako biztanleria). 2008-2018

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		< 14 urte	14 urte edo gehiago	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	9,3	5,1	5,7
	2012	11,8	6,6	7,3
	2014	13,7	7,3	8,2
	2016	12,0	6,4	7,1
	2018	11,5	7,4	8,0
Metatze-pobrezia	2008	1,8	1,5	1,5
	2012	2,6	1,3	1,4
	2014	4,1	1,7	2,0
	2016	2,6	1,5	1,6
	2018	1,6	0,8	0,9
Benetako pobrezia	2008	7,3	3,7	4,2
	2012	9,5	4,6	5,3
	2014	11,2	5,1	5,9
	2016	10,6	5,0	5,7
	2018	10,3	5,4	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	12,9	7,4	8,2
	2012	14,1	9,4	10,1
	2014	17,1	10,6	11,5
	2016	16,9	9,9	10,8
	2018	19,3	11,5	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

16.b. taula

Adinaren arabera benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera (14 urtetik gorako edo beherako biztanleria). 2008-2018

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

% horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		< 14 urte	14 urte edo gehiago	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	22,4	77,6	100,0
	2012	21,5	78,5	100,0
	2014	22,7	77,3	100,0
	2016	21,1	78,9	100,0
	2018	19,1	80,9	100,0
Metatze-pobrezia	2008	16,2	83,8	100,0
	2012	23,5	76,5	100,0
	2014	27,8	72,2	100,0
	2016	20,3	79,7	100,0
	2018	23,5	76,5	100,0
Benetako pobrezia	2008	24,0	76,0	100,0
	2012	23,8	76,2	100,0
	2014	25,7	74,3	100,0
	2016	23,1	76,9	100,0
	2018	22,4	77,6	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	21,7	78,3	100,0
	2012	18,6	81,4	100,0
	2014	20,1	79,9	100,0
	2016	19,5	80,5	100,0
	2018	20,4	79,6	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

b) Benetako pobrezia behera egiten du emakume bat erreferentziazko pertsona duten etxeetan, eta zertxobait handitzen da gainerako etxeetan

2018an bere horretan jarraitu du benetako pobrezia tasa txikitzeko joerak emakume bat erreferentziazko pertsona duten etxeetan⁹. Etxe horietan, 2008 eta 2012 artean izandako gorakada handiaren ondoren (% 8,8tik % 11,1era), etengabe iraun du 2012tik beheranzko joerak, eta balioa % 9,3 izan da 2018an, hau da, 2016ko % 9,9a baino 0,6 puntu txikiagoa. Hala eta guztiz ere, tasa oraindik ere portzentajezko 0,5 puntu handiagoa da 2008ko % 8,8a baino.

Emakumeak buru dituzten etxeetan izandako hobekuntza hasierako tasa konparatu handiak zehazten du, % 8,8 baitzen 2008an, hau da, ia hiru bider handiagoa urte hartan erreferentziazko pertsona gizon bat zuten etxeen % 3,3a baino. Oza-ozta 2014-2016 aldia salbuetsita, ildoan, ordea, goranzkoa da epe luzean gizon bat buru duten etxeetan. 2018ko % 4,5a, 2016. urteko % 4az den bezainbatean beste gorakada bat adierazteaz gain, baliorik handienetako bat da 2008tik: soil-soilik hamarren bat txikiagoa gehienekoa (2014 % 4,6a) baino.

17.a. taula
Benetako pobrezia-eta prekarietate-egoeren bilakaera, erreferentziazko pertsonaren sexuaren arabera. 2008-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	4,8	10,2	5,7
	2012	5,8	12,6	7,3
	2014	6,7	13,1	8,2
	2016	5,4	11,2	7,1
	2018	5,8	12,4	8,0
Metatze-pobrezia	2008	1,2	3,2	1,5
	2012	1,2	2,5	1,4
	2014	1,7	3,1	2,0
	2016	0,9	3,3	1,6
	2018	0,7	1,4	0,9
Benetako pobrezia	2008	3,3	8,8	4,2
	2012	3,7	11,1	5,3
	2014	4,6	10,3	5,9
	2016	4,0	9,9	5,7
	2018	4,5	9,3	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	6,7	15,7	8,2
	2012	7,4	20,0	10,1
	2014	8,9	20,1	11,5
	2016	7,9	17,8	10,8
	2018	9,3	19,1	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

⁹ Etxean edo bizikidetzat-unitatean informazioa emateko erreferentziazko pertsona bat erreferentziazko pertsona delakoa. Kontzeptua guztiz parekagarria izan gabe ere, txostenean, idazkera errazteko, baliokide balira bezala erabiltzen dira honako hauek; alde batetik, *ezaugarri sozio-demografiko hau edo hori duen erreferentziako pertsona bat duen etxea*; bestetik, *ezaugarri horiek berak dituen pertsona bat buru duen etxea*.



Emakumeak pisu handiagoa lortu du gizartean bezala familien barruan ere, eta aldaketa sozio-kultural horrek etxe moten barne-banaketa aldatu du, eta gero eta etxe gehiagotan da emakume bat erreferentziazko pertsona. Etxe horietan pobreziaren eragina oraindik askoz handiagoa izateak adierazten du ezen, bilakaera konparatua hobeia izan arren, emakumeak buru dituzten etxe horietan benetako pobrezia kasu guztien % 50,6 bildu zela 2018an; hau da, 2008an (% 33,9) baino 15 puntutik gora gehiago.

17.b. taula
Benetako pobrezia-eta prekariedade-egoeren bilakaera, erreferentziazko pertsonaren sexuaren arabera. 2008-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekariedade-mota		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	71,2	28,8	100,0
	2012	63,7	36,3	100,0
	2014	63,2	36,8	100,0
	2016	54,4	45,6	100,0
	2018	48,7	51,3	100,0
Metatze-pobrezia	2008	66,3	33,7	100,0
	2012	63,8	36,2	100,0
	2014	64,6	35,4	100,0
	2016	40,8	59,2	100,0
	2018	48,8	51,2	100,0
Benetako pobrezia	2008	66,1	33,9	100,0
	2012	56,2	43,8	100,0
	2014	59,8	40,2	100,0
	2016	50,3	49,7	100,0
	2018	49,4	50,6	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	69,2	30,8	100,0
	2012	58,4	41,6	100,0
	2014	59,9	40,1	100,0
	2016	52,4	47,6	100,0
	2018	49,7	50,3	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Aurreko aldeek ez dute esan nahi gizonezko eta emakumezko biztanleei berez eragiten dietenik hain pobrezia-alde handi horiek; besterik gabe, adierazten dute zer eragin duen fenomeno horretan etxeko erreferentziazko pertsonaren generoak.

Egoera oro har alderatzen bada, pertsona bakoitzaren sexuaren arabera, benetako pobreziaren tasak elkarrengandik hurbilago daude emakumeen eta gizonen artean: % 5,6 eta % 6,5, hurrenez hurren. Kasu horretan, ordea, joerazko okertze-ildoak gertatzen ari da emakumezko biztanleen artean. Izan ere, alde batetik, gizonen benetako pobreziaren tasa 2008 eta 2012 artean % 4tik % 5,4ra handitu ondoren, % 5,4-5,6 balioaren inguruan egonkortu da geroago. Bestetik, emakumezko biztanleei dagokienez, 2008an gizonen balioen antzekoak zituzten, % 4,3, baina goranzko joera ez zen bakarrik gertatu 2008-2012 aldian (% 5,2 azken urte horretan), baizik eta 2018ko % 6,5era arte luzatu da, 2014-2016 aldian pixka bat jaitsi ondoren (% 6,1etik % 5,9ra).

18.a. taula
Benetako pobrezia-eta prekarietate-egoeren bilakaera, sexuaren arabera, 2008-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	5,3	6,1	5,7
	2012	7,2	7,3	7,3
	2014	7,7	8,7	8,2
	2016	6,9	7,2	7,1
	2018	7,4	8,5	8,0
Metatze-pobrezia	2008	1,5	1,6	1,5
	2012	1,6	1,3	1,4
	2014	2,1	1,9	2,0
	2016	1,5	1,7	1,6
	2018	0,9	0,9	0,9
Benetako pobrezia	2008	4,0	4,3	4,2
	2012	5,4	5,2	5,3
	2014	5,6	6,1	5,9
	2016	5,6	5,9	5,7
	2018	5,6	6,5	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	7,9	8,4	8,2
	2012	9,6	10,5	10,1
	2014	11,3	11,7	11,5
	2016	10,2	11,3	10,8
	2018	11,7	13,3	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

18.b. taula
Benetako pobrezia-eta prekarietate-egoeren bilakaera, sexuaren arabera, 2008-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	45,2	54,8	100,0
	2012	47,3	52,7	100,0
	2014	45,2	54,8	100,0
	2016	48,2	51,8	100,0
	2018	45,1	54,9	100,0
Metatze-pobrezia	2008	46,3	53,7	100,0
	2012	52,0	48,0	100,0
	2014	51,2	48,8	100,0
	2016	44,7	55,3	100,0
	2018	47,1	52,9	100,0
Benetako pobrezia	2008	46,6	53,4	100,0
	2012	48,7	51,3	100,0
	2014	46,0	54,0	100,0
	2016	47,6	52,4	100,0
	2018	44,8	55,2	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	46,9	53,1	100,0
	2012	45,8	54,2	100,0
	2014	47,4	52,6	100,0
	2016	46,5	53,5	100,0
	2018	45,4	54,6	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

c) Adina: gero eta pisu handiagoa adin handieneko etxeetako pobrezia-egoeretan, eta okerrera 15-24 urteko gazteei dagokienez

Gauza paradoxiko bat gertatu zen 2014-2016 aldian: aldi horretako pobrezia-egoeraren jaitsiera txikia (% 5,9tik % 5,7ra) bateragarria izan zen 65 urtetik gorako pertsonen etxeetan benetako pobrezia-egoeraren tasa egonkortzearekin, bai eta tasa hori gainerako etxe mota guztietan handitzearekin ere.

2016 eta 2018 artean, adierazlean izandako goranzko joera txikiarekin batera (% 5,7tik % 6,1era aldatu baita EAEn), elkarrengandik askoz gehiago urruntzen diren dinamikak izan dira etxe motaren arabera. Alderik onenean, eta bat etorrita haur-pobrezia-egoeraren beheranzko ildoarekin, argi murriztu dira benetako pobrezia-egoeraren tasak 35 eta 44 urte arteko erreferentziazko pertsona duten etxeetan. 2008an eta 2012an % 7,5etik hurbil zeuden balioetatik abiatuta, 2014an horrelako etxeen egoerak zitzaien benetako pobrezia-egoeraren tasetan izandako gehikuntzarik handiena, eta % 11,1era iritsi ondoren, goranzko joerak motelago jarraitu zuen aurrera, 2016an % 11,7 izan arte. 2012-2016 aldiko goranzko ildo hori 2016 eta 2018 artean eten zen, pobrezia-tasa % 9,9ra arte murriztuta. Hala ere, balioa oraindik da portzentajezko 2,5 puntu inguru handiagoa 2008koa eta 2012koa baino.

Horrelako etxeetan 2014 eta 2016 artean pobrezia-egoerak izandako hazkunde konparatiboki txikiagoarekin eta 2016-2018 aldiko jaitsiera handiarekin batera, asko jaitsi da etxe-talde horren pisua pobrezia-egoeraren banaketan. Pisu hori 2014ko % 44,3tik 2016ko % 41era eta 2018ko % 35,7ra jaitsi da, bai eta 2008an etxe horietako biztanleei zegokien balioetik (% 45,5) behera ere. 2012ko % 31,5 balioa baino ez da handiagoa.

Pixka bat gorantz egin arren, benetako pobrezia-egoeraren tasak nolabaiteko egonkortasuna du 55 eta 65 urte arteko pertsona bat buru duten etxeetan bizi direnen artean, kolektibo horri konparatiboki gutxiago eragin baitio pobrezia-egoerak EAEn, 2018an % 4,4 izaki. Tasa 2008an eta 2012an % 2,7 eta % 2,9 artekoa izan ondoren, % 4ra igo zen 2014an, eta goranzko joera txikia izan du egungo 4,4aren arte.

Deigarriagoa da 45 eta 54 urte arteko pertsonen etxeetan bizi direnen benetako pobrezia-egoeraren tasan izandako igoera. Kasu horretan, pobrezia-egoeraren eragina etengabe handitu da 2008ko % 2,6tik 2018ko % 6,6ra arte. 2008. urtearen ondorengo aldian, taldearen tasak 2016an lehendabizikoz gaitzitu zuen EAEnko batezbestekoa; urte hartan, puntu hamarren bat baino ez zen handiagoa izan (% 5,8 eta % 5,7). Aldea puntu erdira handitu da 2018an (% 6,6 eta % 6,1).

Okertze konparatu hori argi ikusten da benetako pobrezia-egoeraren banaketan. 45 eta 54 urte arteko pertsonen etxeetan bizi zirenak pobrezia-egoeraren % 14,6 baino ez ziren 2008an, baina, ehunekoa etengabe handitu ondoren, guztien % 26,3 dira 2018an. Oro har, problematika murriztu arren 55-64 urtekoen etxeetan bizi direnen artean, 45 eta 64 urte arteko erreferentziazko pertsona bat duten etxeetako biztanleak 2008an benetako pobrezia-egoeraren % 26,9 izatetik 2018an % 41,1 izatera pasatu dira. Azken urte horretan, 5,5 puntu gehiago dira 35 eta 44 urte arteko pertsona bat buru duten etxeetako pertsonen dagokien balioa (% 35,7) baino. 2008an, berriz, azken horiek portzentajezko 18,6 puntu gehiago ziren 45 eta 64 urteko arteko erreferentziazko pertsona bat zuten etxeetako pertsonak baino (% 45,5 eta % 26,9, hurrenez hurren).

35 eta 44 urte arteko pertsona bat buru duten etxeen multzoak 2016 eta 2018 artean izandako bilakaera ona, ordea, ez da hedatu gazteenak diren etxe guztietara. Izan ere, erreferentziazko pertsona 35 urtetik beherakoa duten etxeetako biztanleen artean, benetako pobrezia tasak gorantz egin du aldi honetan, eta gizarte-fenomeno honek gehien eragiten dion talde moduan finkatzen du bilakaera horrek. 2018ko % 16,2ak, 2012ko % 18aren parera iristen ez bada ere, argi eta garbi gaitzen du 2008ko % 9,4a, eta etengabeko goranzko ildoak erakusten du 2014ko % 13,6aren eta 2016ko % 15,3aren artean. Etxe gazteenek EAEko egungo gizartean gero eta pisu txikiagoa izan arren, benetako pobrezia banaketan duten pisua berriz handitzen da, eta 2018an % 15,6 izan da: 2014ko % 15,8tik hurbil, eta 2016ko % 13,1a baino handiagoa. Proportzioa, ordea, urrun dago 2012ko % 30,6tik; are 2008ko % 18,6tik ere.

Besteak beste 35 eta 44 urte arteko pertsona bat buru duten etxeetan pobrezia berriki murrizteaz gain, zahartze-prozesua ere lagungarria da, nolabait ere, pobrezia-egoera guztien barruan biztanleriaren pisua murrizteko 45 urtetik beherakoen etxeetan. 2008an % 64,1 izan ondoren, pisu horrek behera egin zuen 2014an, eta joera hori 2016an eta 2018an areagotu zen, azken urte horretan biztanleriaren % 51,3 besterik ez izaki. 2018. urtea, beraz, nolabaiteko mugarria da aldatze-prozesuan, urte horretan 45 urtetik gorako eta beherako etxeetan kopuruak antzekoak direlako benetako pobrezia egoerei dagokienez.

19.a. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, erreferentziazko pertsonaren adinaren arabera 2008-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		< 35 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 65 urte	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	11,8	8,4	3,8	4,8	3,2	5,7
	2012	19,7	10,0	5,3	4,7	4,2	7,3
	2014	15,9	13,1	8,9	6,5	2,1	8,2
	2016	18,3	12,9	6,9	6,3	1,8	7,1
	2018	19,0	11,5	8,5	6,6	3,4	8,0
Metatze-pobrezia	2008	2,7	3,0	0,4	0,7	1,3	1,5
	2012	3,9	1,7	0,8	0,1	1,9	1,4
	2014	3,3	4,5	1,3	0,6	1,0	2,0
	2016	2,6	4,1	1,3	0,5	0,7	1,6
	2018	2,0	1,7	0,9	0,4	0,4	0,9
Benetako pobrezia	2008	9,4	7,6	2,6	2,7	1,6	4,2
	2012	18,0	7,4	4,1	2,9	1,7	5,3
	2014	13,6	11,1	5,3	4,0	1,1	5,9
	2016	15,3	11,7	5,8	4,2	1,1	5,7
	2018	16,2	9,9	6,6	4,4	1,7	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	14,4	13,2	6,1	5,3	5,0	8,2
	2012	28,2	11,6	9,3	4,9	6,6	10,1
	2014	23,2	16,9	11,9	7,7	5,7	11,5
	2016	24,8	18,8	12,1	7,0	4,5	10,8
	2018	27,7	16,9	13,1	10,5	6,9	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018



19.b. taula

Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, erreferentziazko pertsonaren adinaren arabera 2008-2018. Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		< 35 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 65 urte	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	17,2	36,9	15,9	16,3	13,6	100,0
	2012	24,3	31,0	18,7	11,7	14,2	100,0
	2014	13,3	37,8	27,1	15,4	6,4	100,0
	2016	12,7	36,9	23,8	19,2	7,4	100,0
	2018	14,0	31,4	25,7	17,0	11,9	100,0
Metatze-pobrezia	2008	14,3	49,0	6,8	9,4	20,4	100,0
	2012	24,2	27,2	14,1	1,6	32,8	100,0
	2014	11,4	53,7	16,2	6,3	12,5	100,0
	2016	8,0	51,6	19,7	7,4	13,4	100,0
	2018	12,9	40,2	24,8	8,7	13,4	100,0
Benetako pobrezia	2008	18,6	45,5	14,6	12,2	9,0	100,0
	2012	30,6	31,5	19,9	10,0	7,9	100,0
	2014	15,8	44,3	22,4	13,0	4,6	100,0
	2016	13,1	41,0	24,7	15,6	5,6	100,0
	2018	15,6	35,7	26,3	14,8	7,5	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	14,6	40,4	17,7	12,5	14,8	100,0
	2012	25,2	26,0	23,8	8,9	16,1	100,0
	2014	13,9	34,9	25,7	13,0	12,6	100,0
	2016	11,3	35,2	27,4	13,9	12,2	100,0
	2018	13,0	29,5	25,3	17,1	15,1	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

45 eta 54 urte artekoen etxeen egoera okertzeak baino askoz eragin gutxiago izanda ere, 65 urtetik gorakoen etxeetan, hau da, 2016ra arte bilakaerarik onena zuen taldean, egoera okertzea da 2016 eta 2018 artean adin handieneko taldeetan pobrezia presentzia handiagoa izatea eragin duten elementuetako bat. Kasu horretan, benetako pobrezia eragina % 1,1ean egonkortu da 2014 eta 2016 artean: argi eta garbi 2008-2012 aldiko % 1,6-% 1,7 balioetatik behera. 2018an benetako pobrezia tasak ikuspuntu konparatibo batetik oraindik oso txikia izaten jarraitu arren, 2008-2012 aldiko mailetara itzuli da, % 1,7 izan baita.

Besteak beste zahartze-prozesuak eraginda, adin handiko pertsonen talde horrek pobrezian duen parte-hartzeak gora egin du, % 7,5 izan baita 2018an, 2014ko % 4,6az den bezainbatean pixkanaka gertatzen ari den igoeraren adierazgarri. Hala eta guztiz ere, 65 urtetik gorakoen etxeetan bizi diren taldeak oso ekarpen txikia du EAEko benetako pobrezia egoeretan, dagokien parte-hartzea oraindik baita argi eta garbi 2008an zutena (% 9) baino txikiagoa.

20. taulan ikus daitekeen bezala, adinaren eragina alderatzen bada kontuan hartu gabe etxearekiko lotura pertsona nagusiaren adinaren arabera, eta bai, ordea, gizabanako bakoitzaren adinaren arabera, adinez adineko benetako pobrezia tasek 45 urtetik gorako pertsonen taldeek erlatiboki okerrera egiteko joera berresten dute, talde horien ezaugarria baitzen orain arte benetako pobrezia tasak batezbesteko balioak baino dezente txikiagoak izatea.

20.a. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, adinaren arabera 2008-2018.
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		< 15 urte	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 65 urte	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	9,1	6,9	5,3	5,8	3,3	5,6	4,3	5,7
	2012	11,7	8,4	9,8	7,4	5,1	5,4	4,6	7,3
	2014	13,7	10,2	8,6	10,1	8,0	7,1	2,2	8,2
	2016	11,7	10,4	7,9	9,7	5,9	6,1	2,0	7,1
	2018	11,5	11,7	8,8	8,3	8,3	6,5	4,2	8,0
Metatze-pobrezia	2008	2,0	2,2	1,6	2,3	0,5	0,6	1,5	1,5
	2012	2,7	1,7	1,8	1,6	0,8	0,6	1,0	1,4
	2014	4,1	3,0	2,3	2,7	1,2	0,6	0,8	2,0
	2016	2,8	1,7	1,9	2,5	1,7	0,5	0,6	1,6
	2018	1,6	2,1	0,9	1,1	0,6	0,3	0,4	0,9
Benetako pobrezia	2008	7,4	6,9	4,0	4,8	2,4	2,7	2,1	4,2
	2012	9,5	7,2	8,7	5,4	3,6	3,0	1,7	5,3
	2014	11,1	8,7	7,0	8,0	4,7	3,8	0,8	5,9
	2016	10,5	9,1	7,1	8,0	4,6	3,9	1,1	5,7
	2018	10,4	10,4	6,7	6,8	5,7	4,1	2,1	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	13,0	11,2	7,0	9,9	5,5	5,1	6,0	8,2
	2012	14,1	14,2	15,1	10,3	8,1	6,0	5,8	10,1
	2014	17,1	16,3	13,7	14,5	10,3	7,5	4,9	11,5
	2016	16,7	15,8	12,8	13,3	11,1	7,1	4,5	10,8
	2018	19,3	16,3	14,2	13,7	11,8	9,5	7,3	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

20.b. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, erreferentziazko pertsonaren adinaren arabera 2008-2018. Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		< 15 urte	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 65 urte	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	23,3	12,2	12,2	17,2	8,4	12,7	13,9	100,0
	2012	22,7	11,1	17,1	16,3	11,4	9,1	12,3	100,0
	2014	24,2	10,4	12,4	20,7	15,8	11,3	5,3	100,0
	2016	21,9	13,4	11,7	21,4	13,2	12,5	6,0	100,0
	2018	20,4	12,7	10,8	16,9	16,6	11,9	10,7	100,0
Metatze-pobrezia	2008	18,9	14,3	13,9	25,7	4,5	5,0	17,7	100,0
	2012	26,8	11,7	16,1	17,9	9,2	5,2	13,1	100,0
	2014	29,3	12,6	13,5	22,7	9,9	4,0	7,9	100,0
	2016	23,2	9,8	12,7	24,8	16,8	4,5	8,1	100,0
	2018	25,4	20,1	9,7	19,1	11,2	5,3	9,1	100,0
Benetako pobrezia	2008	25,8	16,5	12,4	19,3	8,1	8,3	9,5	100,0
	2012	25,3	13,2	20,9	16,4	11,1	6,9	6,3	100,0
	2014	27,2	12,2	13,9	22,8	12,7	8,5	2,7	100,0
	2016	24,2	14,5	12,8	21,6	12,7	9,9	4,3	100,0
	2018	24,2	14,9	10,9	18,2	14,9	9,8	7,1	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	23,2	13,7	11,2	20,5	9,7	8,1	13,5	100,0
	2012	19,7	13,6	19,0	16,2	13,1	7,3	11,1	100,0
	2014	21,5	11,8	14,1	21,1	14,5	8,6	8,4	100,0
	2016	20,4	13,3	12,4	19,3	16,1	9,6	9,0	100,0
	2018	21,7	11,3	11,1	17,9	15,0	11,1	11,9	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018



45 urtetik gorakoei dagokienez, 2016-2018 aldiko okertze argiena 45 eta 54 urte arteko pertsonen artean gertatu da. Kasu horretan, benetako pobrezia-tasa % 2,4tik % 4,7ra handitu zen 2008 eta 2014 artean, eta % 4,6an egonkortu zen 2016an. 2018an, berriz gora egin du, eta EAEko batezbestekotik (% 5,7) oso hurbil egotera iritsi da: % 6,1. 55 eta 64 urteko pertsonen ere goranzko ildoan dute ezaugarri: 2008tik aurrera (% 2,7) pixkanaka egin dute gora, motelago bada ere, 2018ko % 4,1era arte (2014ko eta 2016ko % 3,8-% 3,9 balioak baino handixeagoa). 2008 eta 2014 artean % 2,1etik % 0,8ra jaitsi ondoren, benetako pobrezia-tasa gehikuntza-ildoa 65 urtetik gorakoengana zabaldu da orduz geroztik, eta 2018an berriz % 2,1 izan da. Pobrezia-tasa, ordea, EAEko batezbesteko orokorretik oso urrun geratzen da kasu horretan.

Dinamika horrek funtsean aldatzen du adinaren arabera benetako pobrezia-egoeren barne-banaketa. Lehendabizikoz 2008tik, 2018an 45 urtetik gorakoek 25-44 urtekoek baino parte-hartze handiagoa dute egoera horietan: % 31,9 eta 29,1, hurrenez hurren. Ehuneko horiek 2008koen oso bestelakoak dira, orduan benetako pobrezia-egoeren % 31,8 25 eta 44 urte artekoek baitzegokien; 45 urtetik gorakoei, berriz, % 25,9.

Izan ere, bilakaera konparatu ona izan da azken urteetan 25 eta 44 urte arteko pertsonen pobrezia-tasetan. Alde horretatik, 25-34 urteko pertsonen kasuan, pobrezia-tasa etengabe jaitsi da 2012ko % 8,7tik 2018ko % 6,7ra; 35-44 urtekoek dagokienez, hobetze hori 2016-2018 aldian baino ez da gertatu, baina oso deigarria da bi urteko horretan, 2014ko eta 2016ko % 8tik 2018ko % 6,8ra jaitsi baita. Pobrezia-tasek, ordea, argi eta garbi jarraitzen dute 2008koen gainetik: % 4koa da 25 eta 34 urte artekoen artean; eta % 4,8koa, berriz, 35-44 urtekoen artean.

Gazteenak kontuan hartzean, zeinak, oro har, oraindik bizi baitira beren jatorriko etxeetan, 25 eta 44 urte artekoen dinamika onak zerikusia du 2014tik pobrezia-behera egitearekin 15 urtetik behekoen artean. 2008ko % 7,4tik 2014ko % 11,1era bitarte gertatutako gehikuntza handiaren ondoren, gazteen pobrezia-tasa % 10,5era jaitsi zen 2016an, eta, orain motelago, % 10,4ra 2018an. Nolanahi ere, tasa hori oraindik portzentajezko hiru puntu handiagoa da 2008koa baino, eta daukan dinamika ez da 25 eta 44 urte artekoena bezain ona. Dinamika diferentzial bat da, zerikusia duena pobrezia-tasa handiagoa izatearekin seme-alabak dituzten familietan, seme-alabarik gabeko bikote gazteen artean baino.

Hala ere, 2016-2018 aldiko daturik nabarmenenak, zeina 45 eta 54 urte artekoen artean gertatutako okerraldia baita, zerikusia du benetako pobrezia handitzearekin 15 eta 24 urte arteko pertsonen artean. Kasu horretan, bere egoera epe ertainean gehien okertu zaion kolektiboa da. 2008an % 6,9ko pobrezia-tasa (15 urtetik behekoen % 7,4a baino txikiagoa) izan ondoren, tasa zertxobait handitu zen 2012an (% 7,2), eta argiago egin zuen gora 2014an eta 2016an, % 9tik hurbil egon arte. 2016 eta 2018 artean, adin-talde guztiak kontuan hartuta, kolektibo horretan gertatu da igoerarik handiena, eta % 9,1etik % 10,4ra aldatu da. Lehenengo aldiz 2008tik, talde horren pobrezia-tasa 15 urtetik behekoen artean dagoenaren parean jarri da.

Nolanahi ere, pobrezia 15 eta 24 urte arteko pertsonen artean duen bilakaerak honako paradoxa hau azaltzen du: seme-alabak dituzten familien pobrezia-tasak gora egitea EAEn, haur-pobrezia murrizten ari delako testuinguruan.

d) Tasek egonkor irauten dute nazionalitatearen arabera, eta pobrezia eragin handiagoa dauka argi eta garbi atzerritarren artean

2008an, pobrezia mota guztien eragina oraindik ere neurritz gain handiagoa da erreferentziazko pertsona atzerritar bat duten etxeetan bizi direnen artean. Estatuko nazionalitatea duen pertsona bat buru duten etxeetako artean, benetako pobrezia-tasa % 2,9tik % 4ra handitu zen 2008-2014 aldian, eta % 4-% 4,2 balioen inguruan egonkortu zen 2014 eta 2018 artean. Egonkortze-ildo hori atzerritar bat buru duten etxeetan bizi direnei ere egokitu zaie, % 30,7 izan baitute 2016an eta 2018an (2012ko % 32ko tasa eta 2014ko % 36,2koa baino txikiagoa). 2008ko % 27,7a baino ez du gaintitzen.

Nolanahi ere, oraindik handia da tasen artean nazionalitatearen arabera dagoen aldea. Hartara, benetako pobrezia-tasa zazpi bider baino gehiago handiagoa da oraindik ere atzerritarren etxeetan bizi direnen artean: % 30,7; biztanleria nazionalaren etxeetan, berriz, % 4,2.

21.a. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, erreferentziazko pertsonaren herritartasunaren arabera. 2008-2018. Familia etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Estatua	Munduko gainerako herrialdeak		Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	4,4	28,5		5,7
	2012	5,3	34,3		7,3
	2014	6,4	36,6		8,2
	2016	5,3	34,3		7,1
	2018	6,1	33,6		8,0
Metatze-pobrezia	2008	1,4	3,4		1,5
	2012	1,2	4,5		1,4
	2014	1,2	15,2		2,0
	2016	1,4	4,7		1,6
	2018	0,5	6,8		0,9
Benetako pobrezia	2008	2,9	27,7		4,2
	2012	3,3	32,0		5,3
	2014	4,0	36,2		5,9
	2016	4,1	30,7		5,7
	2018	4,2	30,7		6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	6,4	39,9		8,2
	2012	7,1	51,0		10,1
	2014	8,8	53,7		11,5
	2016	8,6	44,7		10,8
	2018	9,2	56,9		12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018



21.b. taula
Benetako pobrezia- eta prekariedade-egoeren bilakaera, erreferentziazko pertsonaren herritartasunaren arabera. 2008-2018. Familia etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekariedade-mota		Estatua	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	74,2	25,8	100,0
	2012	67,9	32,1	100,0
	2014	73,4	26,6	100,0
	2016	70,6	29,4	100,0
	2018	70,6	29,4	100,0
Metatze-pobrezia	2008	88,5	11,5	100,0
	2012	78,8	21,2	100,0
	2014	54,9	45,1	100,0
	2016	82,2	17,8	100,0
	2018	47,3	52,7	100,0
Benetako pobrezia	2008	65,9	34,1	100,0
	2012	58,8	41,2	100,0
	2014	63,6	36,4	100,0
	2016	67,6	32,4	100,0
	2018	64,7	35,3	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	74,9	25,1	100,0
	2012	65,4	34,6	100,0
	2014	72,3	27,7	100,0
	2016	74,9	25,1	100,0
	2018	68,3	31,7	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Benetako pobreziaren banaketan, 2008 eta 2012 artean, atzeritarren etxeetan bizi zirenen pisua % 34,1etik % 41,2ra aldatu zen. Nazionalizazioek, bai eta EAEtik irteteko prozesuek ere, zeinak 2012 eta 2016 artean areagotu baitziren, proportzio hori 2014n % 36,4ra arte eta 2016an % 32,4ra arte jaisten lagundu zuten. Atzeritarren etxeei dagozkien tasak egonkortu arren 2016 eta 2018 artean, immigrazioa berriz suspertzeak berekin ekarri du etxe horietan biztanleen pisua berriz handitzea, eta 2018an pobrezia-egoerak % 35,3 izan dira, berriz ere 2008ko balioa (% 34,1) baino handiagoa.

Irudi bera errepikatzen da aurreko datuak 22. taulan pertsona bakoitzaren egungo nazionalitatearen (eta ez etxeko pertsona nagusiak daukanaren) arabera aztertzean. Izan ere, benetako pobreziako egoeren banaketa osoan, berriz ere handitzen da kolektibo atzeritarrari dagokion pisua: % 31,3, 2018. urtean: 2016ko % 28,4a baino handiagoa, baina 2008ko eta 2014ko % 31-% 31,1aren oso antzekoa. 2018ko proportzioa, nolana ere, 2012ko % 35,6a baino nabarmen txikiagoa da.

Etxeko erreferentziazko pertsonaren nazionalitatearen arabera egindako azterketak ez bezala, azterketa hertsiki pertsonalak dinamika txarxeagoa erakusten du atzeritarren pobrezia-tasaren bilakaeran: 2016ko % 27,4tik 2018ko % 28,5era handitu da (2012ko % 28,6ko balioaren antzekoa, bana argiki handiagoa 2008ko % 25,2a baino). Edozeinetara ere, 2014 eta 2016 artean izandako jaitziera (% 32,5etik % 27,4ra) 2016 eta 2018 artean eten da.

Bestalde, 2008ko % 3aren eta 2012ko % 3,6aren gainera bada ere, eta pixka bat gorantz egiteko ildo batean, egonkortzea du ezaugarri biztanle nazionalen arteko benetako pobrezia bilakaerak, azken lau urteetan balioak 2014ko % 4,3aren eta 2018ko % 4,5aren artekoak izan baitira.

22.a. taula. Benetako pobrezia-eta prekarietate-egoeren bilakaera, herritartasunaren arabera. 2008-2018.
Familia etxebizitzetan bizi direnak.

		Intzidentzia %-tan		
Pobrezia- edo prekarietate-mota	Estatua	Munduko gainerako herrialdeak		Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	4,6	26,0	5,7
	2012	5,6	31,2	7,3
	2014	6,7	33,7	8,2
	2016	5,6	30,3	7,1
	2018	6,2	32,7	8,0
Metatze-pobrezia	2008	1,4	3,0	1,5
	2012	1,2	4,4	1,4
	2014	1,4	12,1	2,0
	2016	1,5	3,8	1,6
	2018	0,5	6,0	0,9
Benetako pobrezia	2008	3,0	25,2	4,2
	2012	3,6	28,6	5,3
	2014	4,3	32,5	5,9
	2016	4,4	27,4	5,7
	2018	4,5	28,5	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	6,5	39,3	8,2
	2012	7,5	46,2	10,1
	2014	9,2	49,5	11,5
	2016	8,6	45,7	10,8
	2018	9,7	51,5	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

22.b. taula. Benetako pobrezia-eta prekarietate-egoeren bilakaera, herritartasunaren arabera. 2008-2018.
Familia etxebizitzetan bizi direnak.

		% horizontalak		
Pobrezia- edo prekarietate-mota	Estatua	Munduko gainerako herrialdeak		Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	76,5	23,5	100,0
	2012	71,7	28,3	100,0
	2014	76,7	23,3	100,0
	2016	74,5	25,5	100,0
	2018	72,7	27,3	100,0
Metatze-pobrezia	2008	90,1	9,9	100,0
	2012	79,6	20,4	100,0
	2014	65,8	34,2	100,0
	2016	85,9	14,1	100,0
	2018	55,7	44,3	100,0
Benetako pobrezia	2008	69,0	31,0	100,0
	2012	64,4	35,6	100,0
	2014	68,9	31,1	100,0
	2016	71,6	28,4	100,0
	2018	68,7	31,3	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	75,3	24,7	100,0
	2012	69,7	30,3	100,0
	2014	75,7	24,3	100,0
	2016	74,8	25,2	100,0
	2018	72,6	27,4	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

e) Lehen mailako ikasketak dituen pertsona bat buru duten etxeen egoera okertzea

Etxeko erreferentziazko pertsonaren ikasketa-mailaren arabera, 2016an eta 2018 artean nabarmendu beharreko funtsezko kontua da okerrera egin duela benetako pobreziaren tasak lehen mailako ikasketak dituen pertsona bat buru duten etxeetan bizi direnen artean. Kasu horretan, tasa 2008ko % 5,4tik 2012ko % 6,7ra handitu zen, eta ondoren % 6,0-% 6,2 balioetara jaitsi 2014an eta 2016an. Aldi horretan, jada, tasaren emendatze kasu bakarra zen, argi eta garbi beste taldeetan gertatu ez bezala, jaitsierak izan baitzituzten. Okertzeko joera 2016-2018 biurtekoan areagotu da, tasa % 6,2tik % 8,8ra igo baita, EAEko batezbesteko orokorra baino 2,5 puntutik gora handiagoa izaki. 2008an bezala, orduan aldea portzentajezko 0,2 punturena baino ez izan arren, 2018an berriz izan da handiagoa lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen etxeetako benetako pobrezia, bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak edo erdi-mailako lanbide-heziketa dauzkaten pertsonak buru dituzten etxeei dagokiena baino (% 8,8 eta % 7,8).

Nahiz eta 2012ko % 15,8tik behera egin, benetako pobreziaren tasarik handienak oraindik ere dagozkie 2008an ikasketarik ez duten (eta lehen mailako ikasketak osatu ez dituzten) pertsonen etxeetan bizi direnei. 2018ko % 12,5ak nolabaiteko egonkortze-ildo bat adierazten du 2014ko % 12,8a eta 2016ko % 12,4a kontuan hartuta, baina argi gainditzen du 2008ko % 8,8a.

Pobrezia-egoeren banaketan, gehienez ere lehen mailako ikasketak dituen pertsona bat buru duten etxeetako pertsonak etengabe dute parte-hartze handiagoa 2014ko % 52,5az geroztik; 2018an, % 57,3 izan zen (2012ko % 54,3a baino handiagoa ere bai).

Adierazitako proportzioa, ordea, urrun dago 2008ko % 70,5etik. Arrazoi nagusiak zerikusia du erreferentziazko pertsona bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak edo erdi-mailako lanbide-heziketa dituen pertsona bat den etxeetan bizi direnek pobrezian duten pisua handitzearekin. 2018an kolektibo horri dagokion ehunekoa (% 29,8) 2008koa (% 20,3) baino askoz handiagoa da. Hala ere, 2012an % 38,5 izatera iritsiz geroztik, talde horri benetako pobreziako egoeretan dagokion ekarpenak behera egiten du pixkanaka. 2014ra arte, jaitsiera hori bateragarria izan zen pobrezia-tasak handitzearekin (2008ko % 5,2tik 2012ko % 8,9ra eta 2014ko % 10era), baina, geroago, lotura du hobekuntza nabarmena gertatzearekin, oraindik apala 2016an, % 9,5era jaitsi baitzen, baina askoz garrantzitsuagoa 2018an, tasa % 7,8 izan baitzen (2008an izandakoa, % 5,2, baino ez da hobe).

Ikasketa kualifikatuak (goi-mailako lanbide-ikasketak edo unibertsitate-ikasketak) dituzten pertsonak buru dauzkaten familietan bizi diren biztanleek dute oraindik ere benetako pobreziaren eragin txikiena. Kasu horretan, benetako pobreziaren tasa % 2,2tik % 1,8ra jaitsi zen 2014 eta 2016 artean, eta gero, 2018an, % 1,9an egonkortu da (maila hori ozta-ozta da handixeagoa 2008-2012 aldiko % 1-% 1,2 tartea baino. Hala eta guztiz ere, 2018ko tasa handiagoari lotuta dago urte horretan parte-hartze handiagoa izatea benetako pobreziako egoeretan: % 12,9; gutxienekoak, berriz, 2012koa (% 7,2) eta 2008koa (% 9,2) izan ziren. 2018ko balioa, ordea, 2014koa (% 14,3) baino txikixeagoa da.

23.a. taula. Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, erreferentziazko pertsonaren ikasketa-mailaren arabera 2008-2018. Familia etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Ikasket. gabeak	Lehen mailakoa	Bigarren mailako ez prof. / LH I - Erdi Mailakoa	Kualifikatuak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	10,4	7,2	6,5	2,4	5,7
	2012	14,7	9,6	10,2	2,6	7,3
	2014	13,6	8,5	13,5	4,0	8,2
	2016	10,6	7,9	11,5	3,3	7,1
	2018	14,6	11,1	9,3	3,8	8,0
Metatze-pobrezia	2008	4,4	2,0	1,6	0,5	1,5
	2012	7,8	2,2	1,2	0,5	1,4
	2014	4,5	2,2	3,6	0,4	2,0
	2016	6,0	1,9	1,5	0,3	1,6
	2018	2,1	1,0	1,6	0,2	0,9
Benetako pobrezia	2008	8,8	5,4	5,2	1,2	4,2
	2012	15,8	6,7	8,9	1,0	5,3
	2014	12,8	6,0	10,0	2,2	5,9
	2016	12,4	6,2	9,5	1,8	5,7
	2018	12,5	8,8	7,8	1,9	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	13,0	9,8	10,9	3,7	8,2
	2012	28,4	13,1	14,5	3,2	10,1
	2014	20,0	13,5	16,7	5,3	11,5
	2016	20,0	12,2	17,6	4,1	10,8
	2018	21,0	18,3	17,1	4,2	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

23.b. taula. Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, erreferentziazko pertsonaren ikasketa-mailaren arabera 2008-2018. Familia etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Ikasket. gabeak	Lehen mailakoa	Bigarren mailako ez prof. / LH I - Erdi Mailakoa	Kualifikatuak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	6,5	61,5	18,7	13,2	100,0
	2012	3,6	51,0	32,2	13,3	100,0
	2014	15,1	33,3	32,3	19,3	100,0
	2016	15,3	33,6	32,2	18,9	100,0
	2018	13,7	40,0	27,1	19,2	100,0
Metatze-pobrezia	2008	10,2	63,5	16,6	9,6	100,0
	2012	9,7	59,6	18,4	12,3	100,0
	2014	20,7	35,2	35,4	8,7	100,0
	2016	37,9	34,9	19,0	8,2	100,0
	2018	17,5	30,9	40,7	10,9	100,0
Benetako pobrezia	2008	7,4	63,1	20,3	9,2	100,0
	2012	5,3	49,0	38,5	7,2	100,0
	2014	19,7	32,8	33,2	14,3	100,0
	2016	22,1	32,5	32,7	12,7	100,0
	2018	15,4	41,9	29,8	12,9	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	5,6	58,1	21,9	14,3	100,0
	2012	5,0	50,4	32,8	11,8	100,0
	2014	15,8	37,7	28,6	18,0	100,0
	2016	18,8	33,7	32,2	15,3	100,0
	2018	12,5	42,0	32,0	13,5	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Nolanahi ere, esan behar da ezen, 2008. urtearekin alderatuta, oraindik ere erabakigarria dela gutxienez bigarren mailako ikasketak egin dituzten pertsonen etxeetan bizi direnei benetako pobreziako egoeretan dagokien ekarpena handitzea. 2008an, pobrezia-egoeren % 29,5 baino ez zegokien, baina pobrezian duten pisu erlatiboak gora egin zuen 2012an (% 45,7ra), eta gehienekora iritsi 2014an (% 47,5). 2016an % 45,4ra eta 2018an % 42,7ra jaitsita ere (susperraldi ekonomikoak kolektibo horrentzat duen garrantziaren adierazgarri), ekarpen erlatiboak 2008koa baino ia portzentajezko 13 puntu handiagoa izaten jarraitzen du.

f) Pobreziaren gehikuntza lanik ez duten kolektiboetan

2016 eta 2018 artean, benetako pobreziaren tasek gora egin dute pertsona aktibo guztiak produkzio-sistematik kanpo dituzten etxeetan. Gehikuntzarik deigarriena pertsona guztiak lanik gabe dituzten etxeetako biztanleei dagokie. Kasu horretan, benetako pobreziaren tasa 2012an % 37,9 izatetik 2014an eta 2016an % 39,1-% 39,6 balioetara aldatu zen, eta 2018an, berriz, % 45,6ra (2008an izandako tasa baino ez da handiagoa: % 49,7).

Pobrezia-tasaren igoera hori, ordea, bateragarria da langabezia jaistearekin, eta horrek ere beherantz bultzatzen du langabeen etxeetako kolektiboaren pisua pobreziaren banaketa orokorrean. Etxe horietako pertsonen benetako pobrezia-kasuen % 26,2 zegokien 2008an; % 46,8, berriz, 2012an; eta % 56,8, azkenik, 2014an. Susperraldiaren hasierak, ordea, berekin ekarri du kolektibo horren pisuak nabarmen behera egitea, 2016. urtean % 38,1 eta 2018an % 37 balioak egokitu baitzaizkio.

2016-2018 aldian ere gora egin du pobrezia-tasak heldu guztiak ez-aktibo diren etxeetan. Talde horretan, benetako pobreziaren tasa % 5,7tik % 3,1era jaitsi zen 2008 eta 2012 artean, eta ondoren etengabe handitu, 2016an % 4,8 izan arte. 2018an, tasak oso gorakada deigarri bat adierazten du, % 7,8ra artekoa; berriz ere, 2008an gertatu bezala, tasa hori EAEko batezbestekoa baino puntu eta erdi inguru handiagoa da.

Pertsona ez-aktiboen etxeetan pobrezia handitu izana bereziki deigarria da benetako pobrezia-egoeretan parte-hartzearen ikuspegitik. 2008 eta 2012 artean % 22tik % 10,4ra jaitsi ondoren, eta 2014an oraindik % 11,7 txikia izanda ere, orduz geroztik etxe horietako biztanleek pobrezian duten parte-hartzea nabarmen handitu da, % 14,8 izan baitzen 2016an, eta are % 23,9 ere 2018an (jada 2008ko % 22tik gora).

Produkzio-sistematik kanpo dauden etxeetan ez bezala, pobrezia-tasen hobekuntza deigarria da lan egonkorrik gabeko landunen etxeetan. Kasu horretan, 2008 eta 2012 artean % 14,7tik % 17,3ra handitu ondoren, benetako pobreziaren tasak % 12,7ra jaitsi zen 2014an, eta berriz igo 2016an % 16ra arte (2012ko gehienekotik hurbil berriz ere). Hala ere, benetako pobreziaren tasa nabarmen txikitu da 2018an, eta % 11,9 izan da, 2008-2018 aldiko apalena.

24.a. taula. Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, familiak jarduerarekin, lanarekin eta langabeziarekin duen harremanaren arabera. 2008-2018. Familia etxebizitzetan bizi direnak.

Intzidentzia %-tan

		Landun aktibo egonkorrak	Beste kasu batzuk, landun egonkorra	Norbait landun ezegonkorra	Guztiak langabezia	Ez-aktiboak	Guztira
Pobrezia- edo prekarietate-mota							
Mantenu-pobrezia	2008	3,1	0,9	13,2	54,0	9,4	5,7
	2012	2,1	2,0	18,4	45,7	7,0	7,3
	2014	1,7	4,6	16,7	47,4	6,9	8,2
	2016	1,9	3,4	16,5	47,1	6,9	7,1
	2018	1,9	5,1	18,1	51,8	11,3	8,0
Metatze-pobrezia	2008	0,5	0,6	4,5	15,8	2,2	1,5
	2012	0,3	0,7	3,3	10,9	0,8	1,4
	2014	0,4	1,9	2,7	10,6	1,7	2,0
	2016	0,5	0,8	5,4	8,2	1,1	1,6
	2018	0,4	0,5	1,9	5,3	1,2	0,9
Benetako pobrezia	2008	1,4	0,6	14,7	49,7	5,7	4,2
	2012	1,1	0,9	17,3	37,9	3,1	5,3
	2014	0,9	2,5	12,7	39,6	3,8	5,9
	2016	1,2	2,8	16,0	39,1	4,8	5,7
	2018	1,8	2,7	11,9	45,6	7,8	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	4,0	5,3	22,3	61,2	10,1	8,2
	2012	3,2	4,6	32,9	49,3	7,8	10,1
	2014	2,7	9,6	27,4	54,2	9,3	11,5
	2016	3,2	8,4	28,7	53,0	9,7	10,8
	2018	5,8	8,3	23,9	66,4	15,5	12,5

24.b. taula. Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, familiak jarduerarekin, lanarekin eta langabeziarekin duen harremanaren arabera. 2008-2018. Familia etxebizitzetan bizi direnak.

% horizontalak

		Landun aktibo egonkorrak	Beste kasu batzuk, landun egonkorra	Norbait landun ezegonkorra	Guztiak langabezia	Ez-aktiboak	Guztira
Pobrezia- edo prekarietate-mota							
Mantenu-pobrezia	2008	27,9	3,3	20,8	21,0	27,0	100,0
	2012	12,3	6,6	22,9	41,0	17,2	100,0
	2014	9,1	12,0	14,4	49,1	15,4	100,0
	2016	12,5	10,5	22,7	37,3	17,1	100,0
	2018	12,6	10,3	19,0	31,9	26,3	100,0
Metatze-pobrezia	2008	18,1	8,8	26,4	22,8	23,8	100,0
	2012	8,0	12,2	20,7	49,4	9,7	100,0
	2014	9,6	20,3	9,5	45,1	15,6	100,0
	2016	15,2	10,9	32,7	28,7	12,5	100,0
	2018	21,1	8,9	17,2	28,9	23,9	100,0
Benetako pobrezia	2008	17,2	3,0	31,6	26,2	22,0	100,0
	2012	9,0	4,2	29,7	46,8	10,4	100,0
	2014	7,1	9,2	15,3	56,8	11,7	100,0
	2016	9,3	10,5	27,2	38,1	14,8	100,0
	2018	15,4	7,3	16,4	37,0	23,9	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	25,5	13,6	24,4	16,5	20,1	100,0
	2012	13,3	11,3	29,7	31,9	13,7	100,0
	2014	10,5	17,9	16,8	40,0	14,8	100,0
	2016	13,6	17,1	25,9	27,5	15,9	100,0
	2018	24,2	10,7	16,0	26,1	23,0	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharra: Landunei dagokienez, bi motatako biztanle aktiboak daude: egonkorrak eta ez-egonkorrak, enpresarekin duten harremanaren arabera. Lanik ez duen biztanleria aktiboa langabetzat hartzen da, nahiz eta, hertsiki esanda, langabe izan litekeena izan (ez baitago informaziorik zehaztu ahal izateko zer lotura duen bilatze-gestioak egitearekin; izan ere, litekeen jarduerarik eza erabakitzeko balioko lukete).



Landun egonkorrak dituzten etxeetan, benetako pobreziaren tasa oraindik ere txikia da, baina pixka bat gorantz egiteko joera du. Hala gertatzen da, bereziki, pertsona aktibo guztiak landun egonkorrak diren etxeetan. Kasu horretan, 2014 eta 2016 arteko goraldia (% 0,9tik % 1,2ra) mantentzen da, tasa % 1,8 izan baita 2012an, 2008ko % 1,4a baino handiagoa. Oraindik, ordea, benetako pobrezia-maila apalak dira EAEko testuinguruan.

Era berean, EAEko batez bestekotik nabarmen behera dago benetako pobrezia, kide guztiek lan egonkorrik izan ez arren, gutxienez pertsona bat lanean duten familietan. Kasu horretan, tasak gero eta gehiago handitzeko joera eten da, benetako pobreziaren mailak % 0,6-% 0,9 izan baitziren 2008-2012an, eta gero handitu baitziren, 2,5era 2014. urtean eta % 2,8ra, berriz, 2016an. Jaitsiera adierazgarria ez bada ere, tasen balioa behintzat egonkortu egin dela adierazten du 2018ko % 2,7ak.

Landunen etxeetan, benetako pobreziaren tasetan 2014 eta 2016 artean gertatutako jaitsierak eraginda (elkartutako biztanleei dagokienez % 2,5etik % 3,5era handitu zela), eta susperraldi ekonomikoaren ondorioz etxe horien kopurua handitzearekin batera, nabarmen egin zuen gora pobrezia-kasuen banaketan zegokien proportzioak. 2008ko % 51,8tik 2012an % 42,8ra eta 2014an % 31,5era jaitsi ondoren, etxe horiei benetako pobreziaren kasu guztietan zegokien proportzioak gora egin zuen % 47ra arte 2016an (oso hurbil, beraz, 2008ko proportziotik). 2018an, ordea, lana dutenen baldintza orokorren hobekuntza konparatua gertatu da (benetako pobreziaren tasa jaitsita 2016ko % 3,5etik 2018ko % 3,1era), eta, horren adierazgarri, berriz ere egin du behera pobrezia-egoeretan dagokien proportzioak (guztizkoaren % 39,1, 2018an).

Lan egonkorra duten kolektiboen okertze erlatiboak, ordea, ez du berekin ekarri proportzio erlatibo handiagoa izatea pobrezia-egoeretan, eta guztizkoaren % 22,7 egokitu zaie 2018an (landunen etxeei egotz dakizkien guztien % 58). Baliorik handienak dira 2008tik, urte hartan benetako pobrezia-egoeren guztizkoan % 20,2ko proportzioa izan ondoren (landunen etxeei zegozkien % 39,1). Nahiz eta batezbestekoa baino askoz maila apalago batzuetatik izan, lana dutenen artean, beraz, benetako pobrezia-egoerek gero eta lotura handiagoa dute produkzio-sisteman sartzeko modu egonkorrekin.

g) Ikuspegi sintetikoa

Kontuan hartutako aldagai nagusietara hurbilketa sintetikoa eginda, egiaztatzen da 2018an benetako pobreziako egoeren % 66,4 lau etxe mota espezifiki dagokiela: Europar Batasunetik kanpo etorritako atzerritarren etxeak (% 31,5); lan egonkorrik ez duten 45 urtetik gorako pertsonen familia-taldeak (% 13,6); aurreko familia-talde mota hori bera, lan egonkorrik gabeko pertsona titularra 45 urtetik beherakoa bada (% 12,4); eta lan egonkorrik gabeko eta 45 urtetik beherako emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak (% 10,7).

Pobrezia-tasak % 20ko langa gainditzen du ia egoera horietan guztietan, edo langa horretara iristen da. Salbuespen bakarra lan egonkorrik ez duten 45 urtetik gorakoen familia-taldeak dira, % 10,6 baitagokie (nolanahi ere, batez bestekotik nabarmen gora). Gainera, talde horretan baino ez da batera gertatzen 2016 eta 2018 artean, alde batetik, pobrezia osoari egiten dion ekarpen erlatiboa handitzea (% 13tik % 13,6ra) eta, bestetik, benetako pobreziaren tasak gora egitea (% 8,6tik % 10,6ra).

Lau talde horiek benetako pobreziako egoeretan zuten pisu erlatiboak gora egin zuen 2008ko % 61,2tik 2012ko % 71,6ra. 2014an % 70etik gorakoa (% 70,5) izanda ere, zeukan pisua % 62,7ra jaitsi zen 2016an; hots, jaitsiera adierazgarria izan zen, orduan atzeritarren taldea nazionalizatzeko prozesuari lotzen zitzaiona. 2018an, proportzioa % 66,4ra igo zen, atzeritarren immigrazioa suspertzeak bultzatuta neurri handi batean. Horren ondorioz, 2016 eta 2018 artean, EBtik kanpoko etorkinen etxeek benetako pobreziako egoeretan daukaten proportzioa % 26,4tik % 31,5era handitu da. Hala eta guztiz ere, talde honetan, biurteko horretan, benetako pobreziaren tasa % 37,2tik % 34ra jaitsi da.

2018an ere handia da benetako pobreziaren tasa adin aktiboan daudenen beste talde batzuetan. Hartara, % 10eko langa gainditu da lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familietan, bai eta, gizonezkoak edo emakumezkoak izanda ere, bakarrik bizi diren lan gabeko pertsonen artean ere, zein 45 urtetik gorakoak zein beherakoak izan. 2018. urtean, benetako pobreziaren errealitateen % 13,7 dagokie horrelako familiei. Ekarpen hori argi handitu ondoren aldi batzuetan (2008ko eta 2012ko % 10,6-% 11,7tik 2014ko % 16,7ra eta 2016ko % 17,2ra), 2018an, ordea, behera egin du kolektibo horien ekarpenak. Aldaketa lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako emakumeen artean benetako pobreziaren tasa murrizteari lotzen zaio (% 20,7tik % 12,2ra guraso bakarreko familietan, eta % 23,1etik % 20,4ra bakarrik bizi diren emakumeei dagokienez).

Orokorrean, 2018an benetako pobreziako egoeren % 80,1 lehen aipatutako etxe motetan metatzen da.

Benetako pobreziaren tasa bateratua oso handia da aztertutako taldeetan. 2018. urtekoa (% 21,2) 2014koa (% 22,2) baino txikiagoa da oraindik, baina 2016koa (% 21) baino handixeagoa. Maila hori nabarmen handiagoa da 2008ko eta 2012ko balio handiak baino (% 15,8 eta % 18,7, hurrenez hurren).

Aldea bereziki nabarmena da pobreziak gutxien eragindako taldeei bagagozkie; izan ere, talde horietan lan egonkorra duten etxe-kategoriak, 65 urtetik gorako pertsonen etxeak eta gizon bat buru duten guraso bakarreko familiak sartzen dira. Talde horietan, batera hartuta, benetako pobreziaren tasa % 1,6 da 2018an. Balioak, 2014koa (% 1) baino handiagoa izanda ere, 2008kotik (% 1,4) hurbil jarraitzen du.

Talde horietako batzuek EAEko pobrezia-egoeretan duten pisuak, ordea, gora egin du etxe mota batzuetan 2016 eta 2018 artean, pobrezia-tasak 2008tik izandako gehieneko mailetara edo gehieneko horietatik hurbil dauden beste maila batzuetara igotzeak eraginda (fenomenoaren eragin-maila konparatiboki txikien barruan izan arren). Hala gertatu da lan egonkorra duten 45 urtetik gorako pertsonak buru dituzten familia-taldeetan (pobrezia-tasa % 0,3tik % 1,2ra, 2016 eta 2018 artean), eta, batez ere, 65 urtetik gorako emakumeak buru dituztenetan (% 1,6tik % 3ra). Benetako pobreziako egoera guztietan dagokien proportzioak behera egin ondoren 2008 (% 10,3) eta 2016 (% 4) artean, 2018. urtean berriz izan da % 10,3 bi etxe mota horiei egotz dakiekeen proportzioa.



25.a. taula

Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, etxeko unitatearen mota soziodemografikoaren edo erreferentziazko pertsonaren arabera 2008-2018.

Familia etxebizitzetan bizi direnak.

Intzidentzia %-tan

Mota soziodemografikoa	Mantenu-pobrezia					Metatze-pobrezia					Benetako pobrezia					Benetako ongizate-gabezia				
	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez < 45 urte	47,1	60,7	58,3	36,8	63,3	24,4	12,8	11,5	26,4	3,0	60,7	63,8	50,3	50,0	58,9	82,8	79,8	77,6	86,8	84,4
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez >= 45 urte	15,4	20,3	17,0	24,6	14,4	2,2	1,4	2,7	3,1	0,0	9,7	18,8	16,2	20,7	12,2	19,3	31,9	29,1	36,3	30,4
Emakumeak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorra	6,7	3,7	7,9	10,7	9,9	3,7	1,0	2,0	0,0	0,9	6,9	2,7	7,2	8,6	9,2	12,6	11,0	13,7	17,5	21,5
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez < 45 urte	5,4	24,0	41,8	26,6	40,4	8,5	4,1	0,5	5,2	0,0	5,4	16,1	22,5	18,7	19,2	27,6	48,4	45,2	35,6	41,0
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez >= 45 urte	44,5	42,4	44,2	30,6	36,5	1,6	3,6	3,2	8,1	0,9	30,1	23,3	24,1	23,1	20,4	39,4	38,2	32,2	32,7	33,5
Emak. bakarrik. < 65 lan egonkorra	9,4	0,7	3,1	4,0	2,7	2,2	0,0	0,2	2,4	0,0	4,1	0,7	2,0	2,6	2,1	6,7	4,4	8,3	8,9	7,2
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorra	1,3	0,9	1,3	2,7	1,9	0,2	0,5	0,0	0,8	0,0	0,0	0,5	0,0	0,8	0,0	1,7	3,3	3,0	2,4	3,2
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorrik ez	35,5	29,6	37,6	30,5	32,7	6,7	2,3	2,8	3,5	2,8	24,1	22,6	20,7	19,7	22,9	29,0	35,5	34,9	34,9	34,7
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorrik ez	13,5	21,7	27,5	30,0	23,3	9,7	7,9	9,6	5,8	5,4	19,1	19,0	21,8	23,6	20,0	26,1	24,5	32,0	31,4	28,1
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorrik ez	5,9	7,1	16,2	11,3	16,0	1,4	0,8	1,5	2,0	0,8	2,8	3,9	9,3	8,6	10,6	5,6	10,4	18,0	15,8	16,6
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorra	3,8	3,3	1,9	2,7	1,0	0,9	0,0	0,0	0,7	0,0	1,3	0,6	0,9	2,3	0,8	5,0	2,0	2,6	5,0	3,1
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorra	1,2	0,9	1,6	0,6	1,8	0,2	0,1	0,3	0,1	0,0	0,8	0,6	0,4	0,3	1,2	3,2	2,1	3,5	2,3	4,1
Gizonak > 65 urte	2,8	3,4	1,4	1,2	1,7	0,9	1,6	1,0	0,5	0,3	1,1	1,0	0,8	0,9	0,7	3,3	4,4	4,3	3,9	4,2
Emakumeak >65 urte	4,1	5,8	3,5	2,9	6,2	2,2	2,6	1,0	1,3	0,7	2,4	3,1	1,6	1,6	3,0	8,0	11,7	8,1	5,3	11,3
EBtik kanpoko herrialdeak	35,0	38,6	47,6	42,1	36,2	4,5	3,7	18,7	7,0	7,5	34,5	37,3	47,2	37,2	34,0	51,1	59,6	67,2	54,7	62,6
Gizonak. Guraso bakarreko familiak	14,6	25,0	5,2	11,0	8,1	0,0	5,1	3,6	0,8	0,7	7,4	18,2	2,8	7,1	5,1	10,8	21,3	15,1	13,2	10,8
Guztira	5,7	7,3	8,2	7,1	8,0	1,5	1,4	2,0	1,6	0,9	4,2	5,3	5,9	5,7	6,1	8,2	10,1	11,5	10,8	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

25.b. taula

Benetako pobrezia eta prekarietate egoeren bilakaera, etxeko unitatearen mota soziodemografikoaren edo erreferentziazko pertsonaren arabera 2008-2018.

Familia etxebizitzetan bizi direnak.

% horizontalak

Mota soziodemografikoa	Mantenu-pobrezia					Metatze-pobrezia					Benetako pobrezia					Benetako ongizate-gabezia				
	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez < 45 urte	5,1	7,1	5,2	6,4	7,2	9,7	7,5	4,2	20,2	3,1	8,9	10,2	6,2	10,7	8,9	6,2	6,7	4,9	9,8	6,2
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez >= 45 urte	3,0	3,7	5,0	5,0	3,7	1,6	1,3	3,3	2,8	0,0	2,5	4,7	6,6	5,2	4,1	2,6	4,2	6,1	4,9	4,9
Emakumeak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorra	1,8	1,2	2,2	5,0	3,2	3,7	1,6	2,3	0,0	2,4	2,5	1,2	2,7	5,0	3,9	2,4	2,5	2,7	5,4	4,4
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez < 45 urte	0,2	0,8	2,4	2,0	2,2	1,1	0,7	0,1	1,7	0,0	0,3	0,7	1,8	1,7	1,4	0,7	1,1	1,9	1,8	1,4
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez >= 45 urte	5,4	3,0	5,7	4,8	4,5	0,7	1,3	1,7	5,6	1,0	5,0	2,3	4,3	4,4	3,3	3,3	2,0	2,9	3,3	2,6
Emak. bakarrik. < 65 lan egonkorra	1,4	0,1	0,5	0,8	0,6	1,2	0,0	0,2	2,1	0,0	0,9	0,1	0,5	0,6	0,6	0,7	0,5	1,0	1,1	1,1
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorra	0,3	0,1	0,2	0,9	0,7	0,2	0,4	0,0	1,1	0,0	0,0	0,1	0,0	0,3	0,0	0,3	0,4	0,4	0,5	0,8
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorrik ez	4,2	2,8	5,2	7,2	5,4	3,0	1,1	1,6	3,7	4,0	3,9	2,9	4,0	5,8	4,9	2,4	2,4	3,4	5,4	3,6
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorrik ez	8,0	15,1	16,5	13,1	11,0	21,1	27,8	23,7	11,2	22,5	15,2	18,2	18,1	12,6	12,4	10,6	12,4	13,7	8,9	8,5
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorrik ez	9,4	9,3	16,6	13,9	15,7	8,4	5,6	6,2	11,1	6,5	5,9	7,1	13,2	13,0	13,6	6,1	9,8	13,1	12,7	10,4
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorra	15,9	8,8	4,3	5,5	1,8	14,3	0,3	0,1	6,6	0,0	7,4	2,1	2,8	5,8	2,1	14,5	3,9	4,3	6,7	3,7
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorra	6,2	3,3	5,3	2,3	5,9	3,4	2,3	4,1	2,3	0,0	5,7	3,0	1,9	1,4	5,3	11,2	5,8	8,3	5,6	8,6
Gizonak > 65 urte	7,9	8,2	2,9	3,5	3,7	9,0	20,0	8,4	5,8	5,3	4,4	3,4	2,4	3,1	2,1	6,6	7,6	6,4	7,2	5,8
Emakumeak >65 urte	5,7	5,6	3,5	3,9	7,9	11,4	12,8	4,0	7,6	7,8	4,6	4,1	2,1	2,6	5,0	7,7	8,2	5,7	4,7	9,1
EBtik kanpoko herrialdeak	23,3	27,1	24,1	24,3	25,4	11,1	13,2	38,8	17,8	46,5	31,2	36,0	33,1	26,4	31,5	23,7	30,2	24,2	20,6	28,0
Gizonak. Guraso bakarreko familiak	2,3	3,8	0,5	1,6	1,1	0,0	4,0	1,3	0,5	0,8	1,6	3,8	0,3	1,3	0,9	1,2	2,4	1,0	1,3	0,9
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

2.2. Benetako pobreziaren lurralde-eragina

- * Lurraldeari dagokionez, 2018an azpimarratu beharreko kontu nagusia da Arabak nabarmen egin duela hobera, Gipuzkoak eta, oso bereziki, Bizkaiak ez bezala.

2016ra arte, Arabaren bilakaera EAEko kezkagarriena zen, elkarren osagarri diren bi faktorerengatik. Alde batetik, lurraldeak, krisian zehar, benetako pobreziaren handitze diferentziala zuen ezaugarri. Hori horrela, benetako pobreak, Araban, % 4,1eko datua eman zuen 2008an, % 5,6koa 2012an, eta % 8,2koa 2014an. Agerikoa da, beraz, nabarmen azkartu zela adierazle horren igoera 2012 eta 2014 bitartean. Igoera hori apalagoa izan zen Gipuzkoan, eta aintzat hartu behar da abiapuntuko egoera ere apalagoa zuela. Lurralde horretan, tasa % 2,5koa zen 2008an, % 3,8ra igo zen 2012an eta % 4,2ra 2014an. 2008an tasa handiagoa izanda ere, Bizkaiak, berriz, ezaugarri izan zuen aldi horretan arazo gehikuntza askoz txikiagoa izatea, eta benetako pobreziaren tasa 2008an % 5,2 izan ondoren 2012an % 6,1 izan zen eta 2014an % 6,4.

2014 eta 2016 artean, bestalde, aurreko urteetako joera txarra luzatu egin zen Araban; Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, hoberako aldaketa izan baitzuten. Hartara, benetako pobreziaren tasak handitzen jarraitu zuen barnealdeko lurraldean (% 8,2, 2014. urtean; % 10,4, berriz, 2016an). Gipuzkoan, ordea, tasak poliki egin zuen behera: % 4,2, 2014an; % 4, berriz, 2016an. Bizkaiak zuen bilakaerarik onena, behera egin baitzuen 2014 (% 6,4) eta 2016 (% 5,5) artean.

2016 eta 2018 arteko aldian, Arabako dinamika aldatu egin zen, 2016ra arteko prozesuetan ezkutuan egondako alde ona bilduta. Izan ere, lurralde horretan, etxeetan gertatutako benetako pobrezia handitzearen parte bat gazteak emantzipatzeko prozesuak areagotzearen ondorio ziren, ezkutuko pobreziaren adierazpideak eratutako etxeetako benetako pobrezia-egoera bihurtzen baitzituen. Emantzipazio-prozesu horiek, ordea, gerta zitezen ahalbidetzen zuen suspertze ekonomikoaren adierazgarri ziren. Eta, hain zuzen ere, Araban izandako susperraldiaren oinarri on hori azken bi urteetan azaleratu da, benetako pobreziaren tasak jaitsiera handia izan baitu 2016 (% 10,4) eta 2018 (% 6,3) artean; azken tasa hori argi eta garbi dago 2014ko tasaren azpitik (% 8,2), eta 2012kotik hurbil (% 5,6). 2008ko baliotik (% 4,1) baino ez da nabarmen urruntzen.

Gipuzkoak eta Bizkaiak, pobrezia ezkutuaren adierazleak 2016an okertze-zantzuak eman ondoren, bestelako bilakaera izan dute 2016-2018 biurtekoan. Guztiarekin ere, benetako pobreziaren tasaren igoera ez da handiegia izan Gipuzkoan. Balioa % 4tik % 4,5era aldatu da 2016 eta 2018 artean, gehiegi urrundu gabe 2012ko eta 2014ko balioetatik (% 3,8-% 4,2). Horrenbestez, Gipuzkoa da oraindik ere pobreak gutxien eragindako EAEko lurraldea, baina benetako pobreziaren eragina bi puntu handiagoa da 2018an 2008an baino (% 2,5).

26.a. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, lurralde historiko bakoitzeko. 2008-2018. Familia
etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Total
Mantenu-pobrezia	2008	5,8	3,9	6,7	5,7
	2012	7,3	6,3	7,9	7,3
	2014	10,5	6,6	8,5	8,2
	2016	9,7	5,1	7,5	7,1
	2018	7,7	5,6	9,6	8,0
Metatze-pobrezia	2008	1,8	0,4	2,1	1,5
	2012	1,1	0,9	1,8	1,4
	2014	1,5	1,5	2,5	2,0
	2016	2,3	0,4	2,2	1,6
	2018	1,1	0,1	1,3	0,9
Benetako pobrezia	2008	4,1	2,5	5,2	4,2
	2012	5,6	3,8	6,1	5,3
	2014	8,2	4,2	6,4	5,9
	2016	10,4	4,0	5,5	5,7
	2018	6,3	4,5	7,0	6,1
Benetako ongizate-gabezia	2008	6,5	5,7	10,1	8,2
	2012	9,7	8,2	11,3	10,1
	2014	15,3	7,7	12,8	11,5
	2016	14,2	8,3	11,3	10,8
	2018	12,4	11,0	13,5	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

26.b. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, lurralde historiko bakoitzeko. 2008-2018. Familia
etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Total
Mantenu-pobrezia	2008	14,7	22,3	63,0	100,0
	2012	15,1	28,6	56,3	100,0
	2014	18,9	26,7	54,4	100,0
	2016	19,9	23,9	56,2	100,0
	2018	14,2	23,4	62,5	100,0
Metatze-pobrezia	2008	16,6	8,8	74,6	100,0
	2012	11,9	21,2	66,9	100,0
	2014	11,1	24,3	64,7	100,0
	2016	21,0	7,6	71,4	100,0
	2018	18,5	5,4	76,0	100,0
Benetako pobrezia	2008	14,1	19,5	66,5	100,0
	2012	16,1	23,7	60,3	100,0
	2014	20,6	23,3	56,1	100,0
	2016	26,4	23,1	50,6	100,0
	2018	15,2	24,5	60,3	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	11,4	22,9	65,7	100,0
	2012	14,5	26,8	58,6	100,0
	2014	19,7	22,2	58,2	100,0
	2016	19,1	25,5	55,4	100,0
	2018	14,6	29,0	56,4	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018



2016. urtean bezala, 2018an ere izan da Bizkaia krisiaren aurreko balioekiko aldaketa txikiena izan duen lurraldea: % 7,0 2018an; 2008an, berriz, % 5,2. Hala ere, 2014 eta 2016 artean hobetu ondoren, 2018an okertze aipagarria gertatu da Bizkaiko tasan, 1,5 puntu handitu baita 2016ko balioarekin (% 5,5) alderatuta. Hartara, Bizkaia berriz izan da, 2012 arte gertatu bezala, pobrezia gehien eragindako EAEko lurraldea: % 7; Araban, berriz, % 6,3, eta Gipuzkoan, % 4,5.

Bizkaian pobrezia izandako igoera diferentzialak eraginda, nabarmen handitu da lurralde horri EAEko benetako pobrezia egoeretan dagokien proportzioa. 2018an % 60,3 izan du, 2012koaren antzeko proportzioa, baina oraindik argi eta garbi dago 2008ko balioaren azpitik (% 66,5). Gipuzkoan, pisu erlatiboa 2008 (% 19,5) eta 2012 (% 23,7) artean handitu ondoren, % 23-% 24tik hurbil dauden balioetan egonkortu zen 2012 eta 2016 artean, eta berriz handitu da 2018an, % 24,5eko gehienekora arte. Araban, ordea, EAEko benetako pobrezia daukan pisua etengabe handitu zen 2008 (% 14,1) eta 2016 (% 26,4) artean, baina jaitsiera handia izan du 2018an (% 15,2ra artekoa), 2008koa (% 14,1) baino handixeagoa izan arren.

- * Lurraldeen arabera azterketak (27. taula) aukera ematen du lurralde-aldaketetan sakontzeko. EAEko eremu urbanizatuaren artean, Gasteiz aldeko egoera nabarmen hobetzea da azpimarragarria. Eskualde horrek 2014an gaititu zuen Bilbo benetako pobrezia eraginaren ikuspuntutik, eta aldaketa hori 2016an finkatu zen. Hartara, Gasteiz tasak gora egin zuen 2008 (% 4,4) eta 2016 (% 10,6) artean, baina Bilbokoak, 2012 eta 2014 artean % 7,6tik % 9,5era handitu ondoren, behera egin zuen 2014an (% 8,4) eta 2016an (% 7,7).

Oraintsuko bilakaera desberdina izan da berriz ere bi lurralde-esparru horietan. Gasteiz, benetako pobrezia tasa asko txikitu da 2016ko % 10,6tik 2018ko % 6,9ra (2014ko % 8,9aren azpitik eta 2012ko % 6,2tik hurbil). Berriz hurbildu da EAEko batezbesteko maila (% 6,1), eta soil-soilik da 2008ko % 4,4a baino argi eta garbi handiagoa.

Bilbo, ordea, EAEko eremu askotan 2016 eta 2018 artean izandako okertze erlatiboak gehien eragindako eskualdeetako bat da. Benetako pobrezia tasa portzentajeazko 2,4 puntu handitu da aldi horretan, eta 2016an % 7,7 izan ondoren, % 10,1 izan du, baliorik handiena 2012ko 9,5az geroztik. 2018an, aztertu diren artean, Bilbo da benetako pobrezia % 10eko atalasea gaititzen duen eskualde-esparru bakarra.

Hala ere, Bilboko okertze hori bateragarria da metaketako pobrezia-adierazleak hobetzearekin, % 2,4 izaki 2008ko eta 2012ko % 2,3ko gutxienekoetara hurbildu baitira. Adierazle horretan, nolahi ere, Bilbo da gehien eragindako eremua, Ezkerraldearen (% 1,4) eta Gasteiz (% 1,3) gainetik.

Ezkerraldeak ere izan du bilakaera zaila azken urteetan. Benetako pobrezia eragina eskualde horretan ere handitu arren 2012 eta 2014 artean (% 5,8tik % 6,5era), Gasteiztik eta Bilbotik urrundu zen orduan, fenomeno gutxiago handitzeagatik 2008 eta 2012 artean (% 5,6tik % 5,8ra). Gainera, Bilbok geroago ezaugarri izandako hobekuntzan parte hartu zuen, eta benetako pobrezia tasak behera egin zuen 2014-2016 aldian % 6,5etik % 5,2ra (lehenengo aldiz 2008tik EAEko batezbestekotik beherako maila).

27.a. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, eskualde bakoitzeko 2008-2018.
Familia etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Eskualdea	Mantenu-pobrezia					Metatze-pobrezia					Benetako pobrezia					Benetako ongizate-gabezia				
	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018
Gasteiz	6,1	7,4	11,3	9,7	8,2	1,7	1,3	1,3	2,4	1,3	4,4	6,2	8,9	10,6	6,9	6,6	10,8	15,9	14,6	13,7
Aiaraldea	4,3	6,4	5,6	9,8	4,2	2,1	0,1	2,4	1,8	0,0	2,3	2,2	4,4	9,1	2,2	6,2	3,5	11,3	11,9	4,5
Eskuinaldea	5,3	5,5	5,2	3,5	6,0	0,2	0,7	0,5	0,8	0,2	3,0	5,1	3,3	2,4	3,3	5,7	9,1	7,3	4,8	6,4
Bilbo	10,1	10,6	11,4	8,8	12,6	2,3	2,3	3,5	4,0	2,4	7,6	9,5	8,4	7,7	10,1	13,8	13,6	15,9	14,2	18,5
Ezkerraldea	5,8	8,0	9,2	8,6	10,0	3,3	2,7	3,5	2,1	1,4	5,6	5,8	6,5	5,2	7,7	11,8	12,4	14,1	13,6	15,2
Bizkaia-Kosta	3,2	6,9	6,3	8,0	7,6	1,3	1,1	0,7	0,3	0,1	2,0	2,9	5,9	5,6	4,6	5,2	6,0	11,7	7,8	10,1
Durangaldea	5,3	3,8	4,9	5,8	6,5	1,1	0,2	0,6	1,2	1,0	2,8	2,4	4,3	4,7	4,0	3,5	10,3	8,4	8,6	8,0
Donostialdea	4,7	6,9	7,0	5,1	5,7	0,4	0,8	1,6	0,3	0,1	3,1	4,1	4,0	4,0	5,0	6,6	8,7	7,7	8,6	12,6
Tolosa-Goierrri	2,1	6,8	5,1	4,0	4,6	0,3	2,4	1,8	0,7	0,1	1,3	4,5	5,0	3,7	2,4	4,7	6,7	7,5	8,2	7,9
Debagoiena	1,2	2,5	4,8	4,7	4,0	0,9	0,1	0,2	0,0	0,2	0,4	2,0	4,1	1,3	3,1	1,9	8,4	8,5	3,7	5,4
Debarrena	3,4	4,9	8,4	7,9	9,3	0,0	0,2	0,6	0,7	0,2	1,8	2,2	3,8	8,1	5,9	4,9	6,9	6,7	11,4	10,3
Guztira	5,7	7,3	8,2	7,1	8,0	1,5	1,4	2,0	1,6	0,9	4,2	5,3	5,9	5,7	6,1	8,2	10,1	11,5	10,8	12,5

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

27.b. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, eskualde bakoitzeko 2008-2018.
Familia etxebizitzetan bizi direnak.
% bertikalak

Eskualdea	Mantenu-pobrezia					Metatze-pobrezia					Benetako pobrezia					Benetako ongizate-gabezia				
	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018	2008	2012	2014	2016	2018
Gasteiz	13,2	13,1	17,5	17,1	13,1	13,9	11,8	8,5	18,8	18,5	13,0	15,1	19,1	23,3	14,5	9,9	13,8	17,6	17,0	13,9
Aiaraldea	1,5	1,9	1,4	2,7	1,0	2,8	0,2	2,5	2,2	0,0	1,1	0,9	1,5	3,1	0,7	1,5	0,8	2,0	2,2	0,7
Eskuinaldea	6,8	5,5	4,6	3,7	5,5	1,1	3,7	1,7	3,6	1,8	5,2	7,1	4,1	3,1	3,9	5,0	6,6	4,6	3,4	3,7
Bilbo	29,3	22,4	21,9	19,6	23,9	24,9	24,5	27,6	39,6	40,1	30,0	27,6	22,6	21,1	25,1	28,0	20,8	21,8	20,8	22,3
Ezkerraldea	18,9	19,9	20,2	21,7	22,6	39,9	33,5	31,7	23,2	27,7	25,0	19,8	19,7	16,1	22,9	26,9	22,1	21,9	22,5	21,8
Bizkaia-Kosta	3,2	5,7	4,4	6,6	6,0	5,0	4,5	2,0	0,9	0,4	2,7	3,3	5,7	5,7	4,8	3,6	3,6	5,7	4,2	5,1
Durangaldea	4,9	2,8	3,4	4,7	4,5	3,7	0,6	1,7	4,1	5,9	3,6	2,5	4,0	4,6	3,7	2,2	5,6	4,1	4,5	3,5
Donostialdea	18,4	20,7	18,8	16,2	15,8	6,1	11,6	18,1	4,2	3,7	16,6	16,8	14,9	15,5	18,3	17,8	18,8	14,9	17,9	22,2
Tolosa-Goierri	1,9	5,2	3,5	3,0	3,1	0,9	9,1	5,2	2,3	0,4	1,6	4,7	4,7	3,4	2,2	3,0	3,7	3,7	4,0	3,4
Debagoiena	0,6	1,0	1,7	1,9	1,5	1,8	0,2	0,2	0,0	0,7	0,3	1,1	2,0	0,6	1,5	0,7	2,4	2,1	1,0	1,3
Debarrena	1,4	1,8	2,7	2,8	2,9	0,0	0,3	0,8	1,1	0,7	1,0	1,1	1,7	3,6	2,4	1,4	1,9	1,5	2,7	2,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Ezkerraldearen oraindik oraingo bilakaera Bilbok izandakoarekiko paraleloa izan da, eta portzentajezko 2,5 puntu handitu da benetako pobrezia-aren tasa. % 5,2tik % 7,7ra aldatu da 2016 eta 2018 artean, eta berriz gaintu du EAEko batezbesteko maila. 2018ko balioak, gainera, 2008-2016 aldiko guztiak gaintzen ditu. Aldi horretan aurreko gehienekoa 2014an izan zen (% 6,5).

EAEko eskualde populatuenen artean, Donostialdea eta Eskuinaldea dira oraindik ere gutxien eragindako lurralde-esparruak, baina, neurri apalagoan bada ere, egokitu zaie 2016 eta 2018 artean EAEko hiri-eremu handiek, Gasteiz soilik salbuetsita, izan duten ezaugarri bat, benetako pobrezia-tasen goranzko joera.

Donostialdean, tasa, 2008-2012 aldian % 3,1etik % 4,1era handitu ondoren, % 4an egonkortu zen 2016an, baina igoera garrantzitsua izan du berriz 2016 eta 2018 artean, azken urte horretan % 5 izan baita, eta, hartara, ia bi puntu urrundu da 2008ko % 3,1etik. Eskuinaldean, 2008-2012 laurtekoko igoera oso antzekoa izan zen, %3tik % 5,1erakoa, baina, gerora, etengabe egin zuen behera, harik eta 2016an % 2,4 izan arte, EAEn orduan biztanle gehien zituzten guneen arteko txikiena. Benetako pobrezia-aren tasa 2018an % 3,3ra igo arren eskualde horretan, EAEko hiri-eremu handien artean horretan bakarrik jarraitzen du 2018ko balioak 2008ko balioetatik hurbil.

EAEn biztanle gehien biltzen dituzten eremuak alde batera utzita, 2016an deigarria zen honako bi eskualde hauek datu erlatiboetan ageri zuten joera negatiboa: Aiara eta Debabarrena. Horietako lehenak, Aiarak, Gasteizekin partekatzen zuen Arabak 2014 eta 2016 artean erakusten zuen joera negatiboa. 2008an eta 2012an tasa konparatiboki txikietan (% 2,3 eta % 2,2) egon ondoren, benetako pobrezia-aren eragina 2014an % 4,4ra eta 2016an % 9,1era handitu zen. Oso antzeko dinamika zuen Debabarrenean. Eskualde horrek % 2 inguruko datuak izan zituen 2008. eta 2012. urteen bitartean, baina benetako pobrezia-aren tasa % 3,8ra igo zen 2014an, eta % 8,1eraino 2016an.

Bai Aiaraldean bai Debabarrenean, 2016 eta 2018 artean, dinamika ebolutiboa Gasteizkoaren antzekoa izan da, eta benetako pobrezia-aren tasek nabarmen egin dute behera 2018an. Tasa % 2,2ra jaitsi da Aiaraldean, eta berriz itzuli da 2008ko eta 2012ko balioetara (% 2,3 eta % 2,2 hurrenez hurren). Debabarrenean, aldaketa ez da hain bat-batekoa, baina tasaren jaitsiera oso nabarmena da, % 8,1etik (2016) % 5,9ra (2018) artekoa; hala ere, oraindik oso urrun dago 2008ko eta 2012ko balioetatik (% 2 ingurukoak). Nolanahi ere, 2018an, Debabarrenean, benetako pobrezia-aren eragina EAEko batezbestekoa baino txikiagoa da berriz ere.

EAEko gainerakoan, gutxien urbanizatutako eremuetako joera orokorrak ezaugarri du, halaber, benetako pobrezia-aren tasek behera egitea, argi eta garbi erkidegoko hiri-eremu handietan, Gasteizen izan ezik, ez bezala.

Bizkaia-Kostan eta Durangaldean, berriz, beheranzko joera hori benetako pobrezia-aren tasak erlatiboki egonkortu diren aldi baten ondoren gertatu da. Lehenean, tasa pixka bat jaitsi zen 2014 eta 2016 artean (% 5,9tik % 5,6ra); Durangaldean, berriz, zertxobait handitu zen (% 4,3tik % 4,7ra), eta, horrenbestez, bi eskualdeetako tasak nolabait elkarrengana hurbildu ziren. 2016 eta 2018 artean Bizkaia-Kostan benetako pobrezia-aren tasak izandako jaitsiera absolutu handiagoak (% 5,6tik % 4,6ra;



Durangaldean, berriz, % 4,7tik % 4era) eraginda, bi eskualde horietako tasak areago hurbildu dira elkarrengana. Kasu bietan, benetako pobrezia eraginak 2008ko eta 2012ko mailak baino ez ditu gainditzen, aldi horretan tasak % 2,0 eta % 2,9 artekoak izan baitziren.

Benetako pobrezia tasa murrizteko joera Tolosa-Goierri eskualdean ere gertatu da 2016 eta 2018 artean, eta 2014-2016 aldikoa luzatu du. Eskualde horretan, benetako pobrezia tasa behera egin du % 5etik (2014an) % 3,7ra (2016an) eta % 2,4ra (2018an), soil-soilik 2008ko ehunekoaren gainetik (% 1,3).

Gutxien urbanizatutako EAEko eremuetan, Debagoiena da salbuespen bakarra. Kasu horretan, benetako pobrezia intzidentzia % 0,4tik % 4,1era handitu zen 2008 eta 2014 artean, eta gero % 1,3ra jaitsi zen 2016an, EAEko eskualde guztietako maila apalenera. 2018an, ordea, egoerak okerrera egin du, eta adierazlea % 3,1 izan da, soil-soilik, 2008-2018 aldian, 2014koa (% 4,1) baino txikiagoa, eta oso urrun, Gipuzkoako eskualde horretan, 2008ko baliotik (% 0,4).

Pobrezia-tasak elkarrengandik urruntzeak, nolahi ere, eskualdeetan pobrezia dagokionez izan ohi duten egoera desberdina finkatzen du. Mutur okerreanean, Bilbok berriz gainditu du 2018an % 10eko langa, % 10,1 izan baitu. 2016 eta 2018 artean hobekuntza handia izan arren, Gasteiz EAEko batezbestekotik gora dago oraindik ere, % 6,9 baitu; hala ere, Ezkerraldearen azpitik dago (% 7,7). Batezbestekotik hurbil, azpitik bada ere, Debabarrenak % 5,9 du, eta % 5, berriz, Donostialdeak.

Debabarrena salbuetsita, gutxien urbanizatutako EAEko eskualdeak % 5etik behera daude. Gehien eragindakoei dagokionez, Bizkaia-Kosta eta Durangaldea % 4,0 eta % 4,6 artean daude. Aiaraldeak, Tolosa-Goierri eta Debagoienak, bestalde, % 2,2 eta % 3,1 arteko tasak dituzte 2018an. Zertxobait gainera, % 3,3 duela, eta EAEn gehien urbanizatutako eskualdeen artean, soil-soilik Eskuinaldea dago egoera onenean dauden lurraldeen artean.

- * Ikusitako lurralde-joerek eragin nabarmena dute benetako pobrezia-egoerek EAEn duten banaketan. 2016-2018 aldian izandako aldaketa nagusien artean, bereziki nabarmentzen da Bilboaldeko eskualdeek protagonismoa berreskuratu izana, Eskuinaldeak barne. Hiru eskualde horietan, benetako pobrezia zuten garrantzi erlatiboak behera egin zuen 2008 eta 2016 artean, zegokien pisua 2008ko % 60,2tik 2016ko % 40,3ra jaitsi baitzen. Bilboaldeko hiru eskualdeetako tasetan gertatutako okertzeak proportzio hori % 51,9ra igoarazi du 2018an. Proportzio hori urrun egon arren 2008kotik, are 2012kotik ere (% 54,5), Ezkerraldean, Eskuinaldean eta Bilboaldean biltzen dira berriz ere EAEn benetako pobrezia dagokionez dauden kasurik gehienak.

Donostialdeak eta Gasteizek, pixka bat gorantz egin arren 2008arekin (% 29,6) alderatuta, benetako pobrezia egoeren % 32,8 biltzen dute, 2012ko eta 2014ko balioen ildotik (% 32 eta % 33,9 artean). Gasteizen benetako pobrezia jaisteak bloke horren garrantzia txikitzen du, 2016an kasuen % 38,8 bildu ondoren.

lido beretik, 2016 eta 2018 artean gutxien urbanizatutako EAEko eremuetan benetako pobreziaren tasetan gertatutako jaitsiera ia orokortuak etengabe gora egiteko dinamika eten du pobrezia-egoerei dagokienez Aiaraldean, Bizkaia-Kostan, Durangaldean, Debarrenean, Debagoienan eta Tolosa-Goierri. Izan ere, 2008. urtean % 10,2 egin zuen gora, eta % 21, berriz, 2016an. Eskualde horietako gehienetan 2016 eta 2018 artean egoera nabarmen hobetzeak eraginda, azken urte honetako proportzioa % 15,3 izan da, oraindik handiagoa ez bakarrik 2008koa (% 10,2) baino, bai eta 2016koa (% 13,6) baino ere.



3. Desparekotasun-adierazle nagusiak

* Krisiak aurrera egin ahala, desparekotasun-egoerak nabarmen handitu ziren 2012-2014 aldian. 2014 eta 2016 artean, ordea, enplegua suspertzea, gutxien mesedetutako kolektiboen emigrazioaz gain, lagungarria izan zen aipatutako gorakadaren alde garrantzitsu bat mugatzeko. Ildo on hori 2016 eta 2018 artean eten da, biurteko horretan desparekotasun-adierazleek berriz ere egin dutelako gorantz EAEn.

Gini koefizienteari dagokionez, argi aldatu zen zeukan bilakaeraren noranzkoa 2012 eta 2014 artean. 2012ra arte etengabe behera egin ondoren (1996an % 28,0 izan baitzen; 2008an, berriz, % 25,2; eta 2012an % 25,3an egonkortu baitzen), gorantz egin zuen 2014an (% 27,1). 2016an % 25,8ra jaitsi zen eta gero, 2018an, Gini koefizienteak goranzko joerari berrekin dio (% 26,7).

2018ko Gini koefizientea 1996-2000 aldiak ezaugarri izan zituen eta 2014ko goraldia seinalatu zuten 27 puntutik gorako balioak baino txikiagoa izan da. Hala ere, koefizientean, 2004-2012 aldia eta, 2014. urtetik aurrerako hobekuntzaren ondoren, 2016. urtea ezaugarritu zuen 25,2 eta 26 puntu arteko tartea gainditzeko. 2014. urtea alde batera uzten bada, igoera nolabait neurritz gainekoa izan baitzuen, garrantzitsua da ohartzea ezen, adierazleak 1996 eta 2008 artean behera egin ondoren, badirudiela 2008. urteaz geroztik (% 25,2) desparekotasunaren joerazko handitze-aldi bat hasi zela egitan, 2018ko % 26,7ra artekoa.

28. taula
Euskal Autonomia Erkidegoko desberdintasun-adierazleak. 1996-2018
Gini koefizientea eta S80/S20 ratioa
eta pertsona pobreenen % 10ek guztirako diru-sarreretan duten parte- hartzearen %a

	Gini koefizientea	S80/S20 ratioa	Biztanle pobreenen % 10ren diru-sarreraren %a
1996	28,0	4,2	3,68
2000	27,3	4,1	3,55
2004	26,0	3,9	3,76
2008	25,2	3,6	3,88
2012	25,3	3,7	3,75
2014	27,1	4,2	3,41
2016	25,8	3,9	3,48
2018	26,7	4,1	3,35

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Antzeko joera adierazten du EAEko biztanleria aberatsenaren % 20aren diru-sarrerak eta biztanleria pobreenaren % 20aren diru-sarrerak erkatzen dituen ratioak. Ratio horrek behera egin zuen 1996 (4,2) eta 2008 (3,6) bitartean. Ordudanik gora egin du: hasieran pixkaka, 2012an 3,7 izan baitzen; eta, geroago, azkarrago, 2018an 4,1 izan arte.

Kasu horretan, ordea, 2018ko adierazlea argiago hurbiltzen da 4,2ko gehienekora (2014koa), eta ez du adierazten Gini koefizientean 1996-2000 aldiari dagokionez ikusten zen jaitsiera maila. Alde horretatik, 2018ko balioaren antzekoa S80-S20 ratioan aldi horretan izandako 4,1-4,2 balioa.

- * 2012 eta 2014 artean, dinamikarik kezkagarriena EAEn baliabide gutxien dituen biztanleriaren % 10ari biztanle guztien diru-sarreretatik iristen zaion zatiari buruzko adierazleari zegokion. 2000. urteko % 3,55etik 2008ko % 3,88ra igo ondoren, adierazlea % 3,75era jaitsi zen 2012an, eta % 3,41era 2014an. 2016an % 3,48ra igo arren, adierazlea berriz jaitsi da 2008an, % 3,35 izan baita, 1996-2018 aldiko baliorik apalena.

2018ko balioa portzentajezko 0,53 puntu txikiagoa da 2008ko gehienekoa baino, eta joera-aldaketa bereziki argia da 2012tik aurrera (portzentajezko 0,40 punturen alde negatiboa 2018an, aipatu azken urte horretako % 3,75arekiko). Are 2016ko hobekuntza ere (% 3,48) hurbilago dago 2014ko eta 2018ko gutxienekoetatik (% 3,41 eta % 3,35) 1996 eta 2012 artean izan ohi zirenetatik baino.

- * EAEn 2018an baliabide gutxien dituen biztanleriaren % 10aren pisuari buruzko adierazlean finkatutako okertzeak lotura du diru-sarrerak diru-sarreraren mailari dagozkion biztanleria-dezilen arabera izandako oso bilakaera desberdinarekin. Hartara, biztanleko batezbesteko diru-sarrera arrunt garbiak % 10 eta % 12,1 artean handiagoak izan dira 2018. urtean 2008an baino gizartearen % 50 aberatsenean, baina beste % 50aren dinamika ez da hain ona izan, batez ere % 20 pobreenean. Eta hala, batezbestekotik behera baina egoera hobean dagoen % 30a biltzen duten deziletan batez besteko diru-sarrera arruntak % 7-% 9,2 handitu ziren 2008 eta 2016 artean, baina errenten bigarren dezilean diru-sarrera arruntak % 2,3 soilik dira handiagoak 2018an 2008an baino. Biztanleen arteko % 10 behartsuenean, bestalde, diru-sarrera horiek -% 6 jaitsi dira.

EAEn egoerarik prekarioenean dagoen % 20aren diru-sarreraren bilakaera okerragoa 2008 eta 2014 artean, bereziki 2012-2014 aldian, izandako diru-sarrerak behera egitearen ondorio izan da. Ikuspegi baikorrako batetik, 2014-2016 aldiko dinamikan, diru-sarrera arrunten suspertze argia gertatu zen biztanle prekarioenen deziletan, igoerak % 7,2 eta % 9,9 artekoak izan baitziren biztanleriaren % 30 behartsuenean diru-sarreretan, gizartearen gainerakoan artean baino handiagoak (izan ere, balioak % 5,3-% 6,7 izan ziren D4tik D6ra bitarteko deziletan, % 4,5 D7an eta % 1,3-% 2,2 D8tik D10era artekoetan).

Baina, adierazgarriki, konparatiboki hobetzeko ildo horretan ez bezala, agerikoa bera EAEko gizartearen %10 pobreenak 2014 eta 2016 artean izandako diru-sarreraren pisuaren goranzko bidean, 2016 eta 2018 artean, susperraldia askoz argiagoa da EAEko gizartearen % 70 aberatsenean, batez ere diru gehien duen % 30ean. Hartara, D8 eta D10 arteko deziletan, diru-sarreraren batezbestekoaren igoera % 6,8-% 7,0 da, hau da, D4 eta D7 artekoetan baino handiagoa (% 3,8-% 4,6). EAEko gizartearen % 30 behartsuenean, 2016-2018 biurtekoan izandako gehikuntza % 1,6 eta % 1,8 artekoa da D2 eta D3 deziletan, eta gutxienekoa D1 dezilean dago (% 1,3), autonomia-erkidegoko % 10 pobreena biltzen duenean.



29. taula

Biztanle bakoitzaren batez besteko diru-sarrera baliokideak, sarreraren dezilak kontuan hartuta (hileko sarrera garbi arruntak).
2008-2018 aldia

Biztanle bakoitzaren hileko sarrera garbi arruntak										
	2008	2012	2014	2016	2018					
Diru-sarreraren dezila	Media	Media	Media	Media	Media	Bilakaera 2008/2012	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2014/2016	Bilakaera 2016/2018	Bilakaera 2008/2018
%10 pobreena (D1)	575,51	562,90	498,18	534,07	541,18	-2,2	-11,5	7,2	1,3	-6,0
%10-20 (D2)	820,21	816,44	752,63	826,01	839,28	-0,5	-7,8	9,8	1,6	2,3
%20-30 (D3)	973,43	979,35	929,91	1.022,35	1.041,17	0,6	-5,0	9,9	1,8	7,0
%30-40 (D4)	1.137,12	1.146,88	1.107,17	1.181,31	1.230,54	0,9	-3,5	6,7	4,2	8,2
%40-50 (D5)	1.288,59	1.304,10	1.275,73	1.345,29	1.407,32	1,2	-2,2	5,5	4,6	9,2
%50-60 (D6)	1.438,34	1.473,68	1.441,16	1.517,93	1.584,13	2,5	-2,2	5,3	4,4	10,1
%60-70 (D7)	1.607,57	1.649,95	1.630,56	1.703,56	1.768,20	2,6	-1,2	4,5	3,8	10,0
%70-80 (D8)	1.812,61	1.881,01	1.856,64	1.897,79	2.026,62	3,8	-1,3	2,2	6,8	11,8
%80-90 (D9)	2.094,43	2.190,18	2.186,46	2.214,62	2.348,35	4,6	-0,2	1,3	6,0	12,1
%10 aberatsena (D10)	3.000,89	2.942,58	3.031,88	3.098,33	3.315,16	-1,9	3,0	2,2	7,0	10,5
Guztira	1.474,95	1.494,92	1.470,67	1.534,33	1.611,00	1,4	-1,6	4,3	5,0	9,2

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

4. Prekarietatearen ezaugarriak adingabeen artean

PGDI inkestak lehen aldiz jaso du, 2016an, adingabeen gabezia materialak neurtzeko adierazle berariazkoen modulu bat. Horren helburua da jakitea zer neurritan iristen diren familietan hautemandako gabezia orokorrak haietan bizi diren adingabekoengana. Prekarietate handiko adierazleei argiago lotutako azterketa ardatz izanda ere, GZEE-GPIak ikuspegi horri eusten dio 2018ko lanean.

Ondoren, urtebete eta 15 urte arteko biztanleei dagozkien 2018ko datu nagusiak aurkezten dira.

- * 2016an bezala 2018an ere, nabarmendu beharrekoa da ongizate-egoeran (erabatekoan edo ia erabatekoan) bizi diren taldeetan soilik esan daitekeela adingabeak, gehien-gehienetan, inolako gabeziarik gabe bizi direla, baldin eta ongizate-egoera horrek ez badu lotuta arrisku garrantzitsurik. Ongizate-egoera horretan, adingabeen % 0,5ak bakarrik (2016ko ehuneko berak) egin behar izan dio aurre 2018an GZEE-GPIan kontuan hartutako oinarritzko arazo nagusietako bati.
- * Ongizate-bizimodua nagusi izan arren oraindik ere arrisku-egoera adierazgarri jakin batzuk dituzten etxeetan, oinarritzko gabezia-arazo nagusien eragina oraindik txikia da, baina ez guztiz bazterrekoa, ongizate-egoeran dauden adingabeen artean ez bezala.

Kolektibo horretan, onena da oinarritzko arazoen eraginak behera egin duela 2016 eta 2018 artean (% 8tik % 6,1era). Hala ere, arropa izateari lotutako gabeziek okerrera egin dute nolabait 2016 eta 2018 artean. Hartara, % 3,3ra handitu da sasoi bakoitzerako zapata-pare bat edo, bestela, bi zapata-pare ez dituzten adingabeen proportzioa, eta % 0,3tik % 5,4ra handitu da arropa berririk ezin izan dezaketen adingabeen kopurua.

- * Pobrezia izan gabe ongizaterik ezari lotutako arazoak dituzten etxeetan, 2016-2018 biurtekoan, oinarritzko arazo nagusien eragina nabarmen handitu da adingabeen artean. Horren adierazgarri, oinarritzko arazoaren bat zuten adingabeak % 25,7 izan ziren 2016an, baina 2018an, berriz, % 44,6 izan dira. Eragina askoz txikiagoa izan arren oinarritzko arazo larri-larriei dagokienez, horiek ere gora egin dute, 2016an eragindako adingabeak % 5,2 izan baitziren, eta 2018an, berriz, % 17.

Kasu horretan, igoera nagusiak arazo larrienen barruan, portzentajezko 10 puntutik hurbil edo gora daudenak, oinetako egokiak izateari lotuta daude (2018. urtean kasuen % 11,5; % 0, berriz, 2017an), bai eta larritasun txikiagoko oinarritzko arazoaren adierazleei ere. 2018an, ongizaterik gabeko egoeran dauden etxeetako adingabeen artean, gutxi gorabehera herenek ezin dute arropa berririk izan (% 36,4), ospakizun berezirik egin (% 30,6), edo ez dute aire zabalean jolasteko aisialdiko ekipamendurik (% 28,7).

30. taula
Adingabekoek pobrezia/benetako ongizatea eskalan dituzten gabeziak, familia-egoeraren arabera. 2016-2018
Familiarekin bizi diren 1 eta 15 urte bitarteko adingabeak
(Talde bakoitzeko biztanleria %-etan)

	2016					2018				
	Benetako pobrezia	Ongizate-gabeziako bestelako egoerak	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	Guztira	Benetako pobrezia	Ongizate-gabeziako bestelako egoerak	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	Guztira
Adierazleak	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Proteinarik gabeko jatekoak egunero	17,4	3,3	2,8	0,0	2,3	12,5	6,5	0,4	0,0	1,9
Fruta edo barazkirik gabe egunero	10,7	1,9	0,0	0,4	1,5	6,6	3,0	0,4	0,0	1,0
Ez ditu bi zapata-pare (edo pare bat urte-sasoi bakoitzeko).	12,8	0,0	0,0	0,4	1,6	23,1	11,5	3,3	0,1	4,0
Oinarrizko arazo oso larriak	25,5	5,2	2,8	0,4	3,5	32,2	17,0	3,7	0,1	5,4
Ez du arropa berririk	40,1	19,9	0,3	0,4	5,5	44,3	36,4	5,4	0,1	8,7
Ez du aisialdirako ekipamendurik (kalean erabiltzekoak)	25,3	9,2	5,0	0,0	3,7	24,4	28,7	2,4	0,1	5,6
Ezin ditu ospakizun bereziak ospatu	38,2	13,9	4,0	0,5	5,6	39,1	30,6	2,7	0,5	7,5
Oinarrizko beste arazo batzuk	38,6	20,5	5,2	0,1	5,9	31,6	27,6	2,4	0,4	6,3
OINARRIZKO ARAZO NAGUSIAK	64,1	25,7	8,0	0,5	9,4	63,8	44,6	6,1	0,5	11,8

Iturria: PGDI 2016 eta GZEE-GPI 2018



- * Benetako pobreziako egoera duten etxeetan, oinarritzko arazo nagusien eragina nagusi da oraindik ere 2018an, eta adingabeen % 63,8 dago eraginda. Ongizaterik ez duen taldean ez bezala, balioak, ordea, egonkor jarraitu du, eta adingabeen % 64,1ek gabeziak zituen 2016an. Hala ere, oso arazo larriak kontuan hartzen badira, arazoon eragina goranzkoa da, eta 2016an aztertutako biztanleen % 25,5i eragin ondoren, % 32,2ri eragin dio 2018an.

Oso arazo larriei dagokienez, bilakaerarik txarrenak zerikusia du bi zapata-pare ez izatearekin: % 12,8tik % 23,1era handitu da 2016 eta 2018 artean. Alde onari erreparatuta, behera egin du elikadura-arazoen eraginak. Hartara, egunero janari proteinikorik ez duten adingabe pobreen ehunekoak behera egin du % 17,4tik % 12,5era 2016 eta 2018 artean. Jaitsiera % 10,7 eta % 6,6 artekoa da egunero frutarik edo barazkirik ez duten adingabeei dagokienez.

Oso larriak ez diren oinarritzko arazoei dagokienez, 2018an, adingabe pobreen % 44,3k ez du arropa berririk izan, eta % 39,1ek ezin du ospakizun berezirik egin. % 24,4k ez du ekipamendurik aire zabalean jolasteko. Proportzio horiek ez dira gehiegi aldatu 2016arekin alderatuta, arropa berria izateari dagokionez izan ezik, ehunekoa nabarmen handitu baita (% 40,1etik % 44,3ra).

- * Urtebete eta 15 urte arteko adingabeen artean, 2018an % 11,8k esan du GZEE-GPlan kontuan hartutako oinarritzko arazo nagusietako bat dagoela; hartara, proportzioa 2016koa (% 9,4) baino handiagoa izan da. Deigarria da okertzeak batez ere oso problematika larriei eragitea, eta eragindako adingabeak 2016an % 3,5 izan ondoren % 5,4 izan dira 2018an (% 5,9tik % 6,3ra arteko aldaketa gertatuta larritasun txikiagoko arazoei dagokienez).

Adierazleen azterketa zehatzak elkarrengandik urruntzen diren ildo guztiz garrantzitsu batzuk erakusten ditu. Alderik onenean, behera egin du 2016 eta 2018 artean elikadura-adierazleekin zerikusia duten arazoak dituzten adingabeen proportzioak: % 2,3tik % 1,9ra, egunero janari proteinikoa ez izateari dagokionez; % 1,5etik % 1era, egunero fruta eta barazkiak ez jateari dagokionez.

Arropa edo oinetakoak izateak, ordea, okerrera egin du nabarmen. Eta hala, 2016 eta 2018 artean, % 1,6tik % 4ra handitu da bi zapata-pare edo zapata egokirik ez duten adingabeen proportzioa. Ez da hain larria arropa berria ez izateari dagokionez gertatutako igoera, % 5,5etik % 8,7ra artekoa.

Larritasun gutxiagokoak izan arren oinarritzkoak diren beste arazo batzuen eragina ere areagotu da, motelago bada ere: % 3,7tik % 5,6ra, aire zabalean jolasteko aisialdiko ekipamendurik ez izateari dagokionez; eta % 5,6tik % 7,5era, ospakizun bereziak egiteko aukerari dagokionez.

Aurkeztutako datuek oro har adierazten dute eragin diferentzial erabakigarria dutela adingabeen artean pobrezia larriko egoerek eta prekarietatearen beste adierazpide batzuek (ongizaterik eza pobrezia izan gabe). Aldi berean, 2016 eta 2018 artean talde behartsuenen bizi-baldintzen barne-narriadura gertatu dela adierazten dute, zeina bereziki agerikoa baita pobrezia larriarekiko mugan dauden kolektiboen artean eta, oso bereziki, arropa eta oinetako egokiak izateari dagokionez.

Alde onean, era berean azpimarra daiteke jaitsiera nabarmena izan duela oso elikadura-arazo larrien eraginak, batez ere etxe pobreenetako adingabeen artean,



5. Euskadi Europako testuinguruan

Krisiak Europako hegoaldeko herrialdeetan izandako eragin diferentziala dela-eta, 2008 eta 2014 artean nabarmen egin zuen okerrera Euskadik Europako testuinguruan pobrezia- eta prekarietate-adierazle konparatuetan zuen lekuak. Susperraldia gorabehera, okertze horren ondorioak oraindik hautematen dira 2018an, batez ere diru-sarreraren gizarte-banaketaarekin zerikusi handiena duten alderdietan.

- * Errealitate horren adierazpide nagusia da 2018. urtean 2014ko egoerara itzuli izana; izan ere, orduan, EAEko pobrezia erlatiboaren tasa (medianaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen ehunekoa) EBko herrialde guztiei zegokien mailaren gainetik zegoen. 2018an, tasa hori % 17,7 izan da EAEn; EB-28an, berriz, % 16,9; eta euro-eremuan (18 herrialde), % 17. Aldea (portzentajeazko puntu batetik beherakoa), ordea, 2014koa baino txikiagoa da, EAEko tasa, orduan, ia bi puntu handiagoa izan baitzen EB-28ari zegokion maila baino (% 18,5 eta % 16,7). Datu horiek hertsiki konparagarriak ez izan arren, lurraldeek ez dituztelako erreferentziazko atalase berak¹⁰, EAEko egoera, 2018an, berriz ere konparatiboki txarragoa da Europan, 2014 arte izan ohi zuena baino.

2014 eta 2016 artean agerikoa izan ondoren, argi eta garbi berretsi da 2018an Europako herrialde sozialki aurreratuenetik urruntzea. Alderaketa egiteko erreferentziazko estatu bakoitzeko atalaseak hartuta, eta beroriek doituta erosteko ahalmenaren parekotasunen arabera (atalase baliokideak EAPetan), mediana baliokidearen % 60tik beherako pertsonen proportzioa % 50etik gora handiagoa da 2018an EAEn besteak beste herrialde hauei dagokiena baino: Luxenburgoko, Herbehereak, Danimarka, Finlandia, Frantzia eta Austria. Proportzioa % 28,9 eta % 39,1 artean handiagoa da Belgikari, Alemaniari eta Suediari dagokienez.

- * Herrialde sozialki aurreratuenetik aipatu distantzia are handiagoa da pobrezia larriaren arrisku-adierazleei dagokienez (% 40tik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen proportzioa). EAEko EAPetan (adierazle doitua) baliokide diren tasak % 50etik gora handiagoak dira kasu honetan lehen aipatutako edozein herrialderi dagozkionak baino; alderik txikiena Suediarekikoa da (% 54,3). 2018an, pobrezia larriaren arrisku-adierazle doitua EAEn 2,5 puntu handiagoa izan da Suedian baino, 2,9 handiagoa Alemanian baino, 3,2-3,5 handiagoa Belgikan, Herbehereetan, Austrian, Danimarkan eta Finlandian baino, 3,9 handiagoa Frantzian eta Suedian baino eta 7,8 puntu handiagoa Luxenburgon baino. 2018an, pobrezia larriaren EAEko adierazle doitua are portzentajeazko puntu bat handiagoa da Irlandakoa eta hiru hamarren handiagoa Ziprekoka baino.

Hala eta guztiz ere, EAEko pobrezia larriaren tasa, 2018an, EB-28ari eta euro-eremuko 18 herrialdeei dagozkienak baino txikiagoa izan da (% 5,1; % 6, berriz, Europan).

¹⁰ Eurostat-ek ez du ematen Europar Batasuneko tasak lortzeko erabiltzen diren atalaseen gaineko informaziorik; beraz, ezin da jakin zer tasa legokiokkeen EAEn atalase horiek erabiliz gero.

31. taula

Pobreziaren, prekarietatearen eta desberdintasunaren adierazle konparatuak. EAE eta Europar Batasuneko estatu adierazgarrienak. 2017/2018

Lurraldea	Sarrerren medianatik beherako % EAEko tasa konparatzeko oinarri den lurraldearen atalasearekin		Sarrerren medianatik beherako % Lurralde bakoitzeko tasa		AROPE adierazle %a	2 egunik behin proteinad un jatordurik ez dutenen %a	Ez ordaintzen edo atzeratutako ordainketen %a	Tenperatura egokia mantentzeko arazoak %a	Arazo ekonomikoen -gatik oporrik gabe daudenen %a	Aparteko gasturik ordaindu ezin dutenen %a	GINI koef. %a	S80/S20 indizea	Pobreen en % 10aren guztirako sarrerren %a
	40%	60%	40%	60%									
EAE	5,1	17,7	5,1	17,7	20,7	2,3	6,5	9,3	20,1	23,1	26,7	4,1	3,4
EB-28	--	--	6,0	16,9	22,4	7,9	9,1	7,8	30,0	33,8	30,7	5,1	2,8
EB-18	--	--	6,0	17,0	22,1	7,4	8,3	7,8	27,9	32,7	30,4	5,0	2,8
Luxemburg	13,6	33,9	5,8	18,7	21,5	2,2	3,0	1,9	10,9	20,4	30,9	5,0	2,9
Frantzia	7,0	21,1	3,1	13,3	17,1	7,1	9,1	4,9	23,1	29,6	29,3	4,4	3,4
Finlandia	5,4	18,2	1,9	11,5	15,7	2,6	10,8	2,0	15,4	28,5	25,3	3,5	4,2
Herbehereak	7,0	21,0	3,6	13,2	17,0	1,9	4,6	2,4	15,2	20,7	27,1	4,0	3,5
Danimarka	7,4	22,6	4,1	12,4	17,2	2,1	6,0	2,7	13,8	25,1	27,6	4,1	3,3
Austria	8,5	24,3	5,2	14,4	18,1	5,5	5,9	2,4	14,2	20,6	27,9	4,3	3,1
Belgika	6,6	20,5	3,4	15,9	20,3	5,6	5,3	5,7	25,3	25,3	26,0	3,8	3,6
Alemania	7,3	22,4	4,4	16,1	19,0	7,0	4,4	3,3	15,3	29,3	29,1	4,5	3,2
Suedia	7,1	21,8	4,6	15,8	17,7	1,8	5,1	2,1	8,8	19,7	28,0	4,3	3,2
Irlanda	4,1	14,6	3,1	15,6	22,7	1,7	13,0	4,4	35,5	41,6	30,6	4,6	3,4
Zipre	3,0	10,4	2,7	15,7	25,2	3,8	24,8	22,9	52,3	50,1	30,8	4,6	3,7
Eslovenia	2,9	9,6	3,3	13,3	17,1	6,5	15,2	3,9	23,1	37,1	23,7	3,4	4,0
Txekia	1,6	5,4	2,2	9,1	12,2	7,1	3,2	3,1	25,0	28,1	24,5	3,4	4,3
Brit.Handia	4,3	15,4	5,1	17,0	22,0	5,1	8,0	5,9	23,7	32,9	33,1	5,4	2,8
Hungaria	0,7	1,7	4,6	13,4	25,6	16,4	15,7	6,8	48,2	31,5	28,1	4,3	3,1
Polonia	1,2	3,5	5,2	15,0	19,5	6,3	10,3	6,0	38,4	34,8	29,2	4,6	3,1
Eslovakia	1,1	3,4	5,3	12,4	16,3	14,8	7,4	4,3	42,3	34,6	23,2	3,5	3,2
Italia	3,3	11,4	8,8	20,3	28,9	13,4	6,1	15,2	43,0	38,3	32,7	5,9	2,0
Portugal	1,1	3,3	7,5	18,3	23,3	3,0	7,7	20,4	44,3	36,9	33,5	5,7	2,6
Espainia	2,7	9,5	10,5	21,6	26,6	3,7	9,3	8,0	34,3	36,6	34,1	6,6	1,9
Grezia	0,7	1,9	9,3	20,2	34,8	13,2	44,9	25,7	50,9	52,7	33,4	6,1	2,2

OHARRAK:

Europako datuak 2017. urteari dagozkio, eta EAEkoak, berriz, 2018. urteari. Herrialdeak ordenatzeko oinarria izan da pobrezia larriak EAEkoarekin alderatuta eragin handiagoa ala txikiagoa izatea.

Konparatzeko oinarri den lurraldeko atalaseetan oinarritutako pobrezia- eta prekarietate-tasak atalase horiek, erosteko ahalmenaren parekotasunen ikuspegitik doituta, EAERI aplikatzeari dagozkio.



- * Europako testuinguru orokorrean, EAEk pobrezia larriaren Eurostat adierazleetan daukan egoera konparatiboki hobe desparekotasunaren eraginari lotuta dago, EAEn, 2008tik aurrera izandako okertzea gorabehera, EBko maila orokorren azpitik iraun duelako. EAEko Gini koefizientea, 2018an, EBkoa baino lau puntu txikiagoa izan da (% 26,7 eta % 30,7), eta 3,7 puntu txikiagoa euro-eremuko herrialdeetakoa baino (% 26,7 eta % 30,7).
- * Azaldutako adierazle guztietan, EAEko egoerak konparatiboki hobe izaten jarraitzen du beti Europako hegoaldeko herrialdeen testuinguruan, pobrezia larriaren eta erlatiboaren arriskua askoz txikiagoa delako. Pobrezia larriari dagokionez, eta Espainiako atalasea kontuan hartuta, adibidez, ikusten da EAEk % 2,7ko tasa duela, eta tasa hori % 10,5ekoa dela estatu osoan. Ildo beretik, EAPetan baliokide den atalaseak EAEko pobrezia larria Italiari dagokiona baino ia hiru bider beherago kokatzen du (% 3,3 eta % 8,8, hurrenez hurren). Aldeak are handiagoak dira alderaketa Portugalekin (% 1,1 eta % 7,5) edo Greziarekin (% 0,7 eta % 9,3) eginez gero.

Alde horiek noranzko berekoak dira ongizaterik ezaren adierazleei dagokienez (EAEn % 9,5 dira diru-sarreraren medianaren % 60tik behera dauden pertsonak, eta Espainian, berriz, % 21,6 estatuko atalasearen arabera; eta EAEn % 11,4 eta % 20,3, berriz, Italian, EAP baliokidetan adierazitako Italiako atalasea kontuan hartuta). Distantzia erlatiboa are handiagoa da Portugalekin edo Greziarekin alderatuz gero (% 3,3 eta % 18,3, eta % 1,9 eta % 20,2, hurrenez hurren).

Alde horiek zerikusia dute desparekotasunak EAEn askoz eragin txikiagoa izatearekin. Hartara, EAEn % 20 aberatsenaren diru-sarrerak 4,1 bider handiagoak dira % 20 pobreenak baino, baina Portugalen 5,7, Italian 5,9, Grezian 6,1 eta Espainian 6,6 bider handiagoak. EAEn, biztanleriaren % 10 pobreenak EAEko diru-sarrera guztien % 3,4 du, baina proportzio hori % 2,6 da Portugalen, % 2,2 Grezian, % 2 Italian eta % 1,9 (gutxienezkoa) Espainian.

- * Adierazi behar da, gainera, EAEren eta Europako herrialde aurreratuenen arteko aldeak batez ere Eurostat arrisku-adierazle orokorretan (medianaren % 40 eta % 60) gertatzen direla. Adierazle horiek, are erosteko ahalmenaren parekotasunen arabera doitzen direnean ere, nekez ematen dute benetan egokia den erreferentzia konparatiborik.

Alde horretatik, pobrezia larriaren bizipenarekin (adibidez, elikadura-arazoen eraginarekin edo ez ordaintzearen eta atzeratuta ordaintzearen intzidentziarekin) zerikusi zuzenagoa duten adierazleen azterketak askoz irudi hobe ematen du EAerentzat. Adierazle horietan, Luxenburgoko, Herbehereak, Danimarka eta Suedia bakarrik daude beti Euskadi baino egoera hobean. Herrialde horiekiko aldeak, gainera, txikiak dira, bereziki proteina-janaria izateko arazoei dagokienez (% 2,3 Euskadin; kontuan hartutako lau herrialdeetan, berriz, % 1,8 eta % 2,2 artean). Ez ordaintzeari bagagozkio, % 6,5 EAEn, eta % 3 eta % 6 artean herrialde horietan.

Gainera, EAEko balioak argi eta garbi txikiagoak dira 2018an honako adierazle hauetan Europako batezbestekoak baino. % 2,3 bi egunez behin janari proteinikorik izan gabe EAEn, balio hori % 7,9 izanik EB-28an eta % 7,4 euro-eremuan; % 6,5, berriz, ordainketa atzeratu edo egin gabekoei dagokienez, balio hori % 9,1 izanik EB28an eta % 8,3, berriz, euro-eremuko herrialdeetan.

- * EAEko egoera konparatu ona nabarmentzen den beste alderdi bat lotuta dago astebeteko oporraldi bat edo litezkeen ezohiko gastuak ordaintzeko gutxieneko aurrezki batzuk izatearekin zerikusia duten aldagaiekin.

Arrazoi ekonomikoengatik astebeteko oporraldia ezin izan dezaketen pertsonen proportzioari dagokionez, % 20,1 da EAEn: ia zortzi puntu txikiagoa euro-eremuko herrialdeetako batezbestekoa (% 27,9) baino, eta ia hamar txikiagoa EB-28 osoari dagokiona baino (% 30).

Ilido beretik, ezohiko gastuei aurre egiteko baliabiderik gabeko etxeetako pertsonen proportzioa % 23,1 izan da EAEn 2018an, % 33,8 EB28an eta % 32,7, azkenik, euro-eremuko 18 herrialdeetan.

Batera aztertuta, soil-soilik Luxenburgo, Herbehereak, Austria eta Suedia daude bi adierazle horietan EAEn dagozkion balioen azpitik.

- * Aurrekoaren kontrara, 2018an neguan tenperatura egokia izateko arazoak eragina handiagoa da EAEn Europan baino. Neguan tenperatura egokia izateko arazoak dituzten etxeetako pertsonen ehunekoa (% 9,3) handiagoa da EB-28ko eta euro-eremuko herrialdeetako batezbestekoa baino (% 7,8). Are Espainiakoa (% 8) baino handiagoa ere.



1. ERANSKINA: Adierazleen eta definizioen glosarioa

Eranskin honetan, labur daude bilduta txostenean garatutako edo kontuan hartutako adierazleei dagozkien alderdi nagusiak, lotutako definizio nagusiak aintzat hartuta¹¹.

1. Pobrezia eta prekarietatea mantentzeari edo diru-sarrereri dagokienez

Egoera ekonomiko txarra zenbait modutan nabarmentzen da. Etxe batzuetan, balia dezaketen errenta-maila aski ez izatearen ondorioz, arazoak dituzte ohiko gastuei eta dauzkaten premiei aurre egiteko, eta, mantentzeari edo diru-sarrereri dagokienez, prekarietateak etxe horien arazoekin dauka zerikusia.

Balia daitezkeen diru-sarrerak edo errentak etxeetako baliabide ekonomiko bakarrak ez diren neurrian (kontuan hartu behar da, behar izanez gero, ondare-baliabideetara edo kreditura jotzeko aukera, bai eta kanpoko edozein laguntza mota baliatzekoa ere), mantentze-arloko arazoek zerikusi handiagoa dute litezkeen prekarietate-egoerekin beharrak betetzen ez direlako benetako egoerekin baino. Alde horretatik, arriskuaren aldetik defini daitezke egokiro.

PGDIan kontuan hartutako mantentze-arazoetan, funtsean, bi egoera mota biltzen dira:

- a) Pobrezia-arriskua dagoen egoeretan, egora horien ezaugarria da balitekeela diru-sarrerak aski ez izatea behar oinarritzkoenak betetzeko, bereziki zerikusia dutenak elikadurarekin, etxebizitzarekin, arroparekin eta oinetakoekin.
- b) Ongizaterik ez izateko arriskua dagoen egoeretan, berriz, egoeren ezaugarria ez da balitekeela diru-sarrerak aski ez izatea oinarritzko beharren betetze hutsa lortzeko; aitzitik, aski ez izatea gizarte jakin batean, EAEkoan kasu honetan, espero diren gutxieneko ongizate- eta erosotasun-mailei eusteko egin behar diren ohiko gastuak ordaintzeko.

Askotarikoak dira mantentze-arloko pobrezia neurtzeko moduak eta ongizaterik ezaren adierazpideak, eta, horri dagokionez, metodologia bat baino gehiago daude. Txostenean ematen diren datu nagusiak Eusko Jaurlaritzak 1986an egindako azterketatik erabilitako metodologiaren arabera kalkulatu dira (PDGI metodoa). Era berean, mantentze-arloko pobrezia aztertzeko beste metodo batzuk erabiltzearen ondoriozko informazioa ere ematen da. Aipamen berezia merezi dute Europar Batasunak eta Eurostat-ek garatutako metodoak.

1.1. Definizioak

PGDIak, mantentze-pobreziari dagokionez, etxeen egoera aztertzean, hiru egoera desberdin zehazten ditu: pobrezia, ongizaterik eza (pobreziarik gabe) eta ongizatea.

¹¹ Eranskin honetan garatu gabeko beste definizio batzuetarako, ikus Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak argitaratutako lan hau: *25 urtez pobretasuna ikertzen Euskadin. 1984-2008*.

a) Mantentze-pobrezia:

Epe laburrean oinarritzko beharrak (batik bat elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetakoekin zerikusia dutenak) erregularitasunez betetzeko gastuei aurre egiteko behar adina diru-sarrerarik ez izateari dagokio.

Pobrezia larriko arriskuan egoteko, pertsonak, familiek edo etxeek, erreferentzia-aldi jakin batean, oinarritzko beharrei aurre egiteko adierazitako atalaseak baino diru-sarrera urriagoak izan beharko dituzte.

b) Ongizaterik eza, mantentzeari dagokionez

Mantentzeari dagokionez, ongizaterik ezaren arloko arazoez zerikusia dute behar adina diru-sarrerarik ez izatearekin aurre egiteko gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate- eta erosotasun-maila eusteko beharrezkotzat jotako ohiko gastuei. Gastu horiek, praktikan, aukera ematen dute parte hartzeko, –gutxieneko mailan– bada ere, gizarte horretan normaltzat jotzen diren jardueretan, ohituretan eta bizimoduan.

Ongizaterik ez izateko arriskuan dauden pertsonak, familiek edo etxeek, erreferentzia-aldi jakin batean, bizi diren gizartean esperotako gutxieneko ongizate-mailak izateko adierazitako atalaseak baino diru-sarrera gutxiago dituzte.

c) Ongizatea mantentzeari dagokionez

Egoera horretan daude, mantentzeari dagokionez, pobrezia-aren edo ongizaterik ezaren arloan arazorik ez duten pertsonak, familiak edo etxeak. Ezaugarri dute epe laburrean ez egokitzea diru-sarrerarik ez izatea oinarritzko beharrak betetzeko, edo esperotako gutxieneko ongizatea ezaugarri duten egoeretan egoteko egin beharreko gutxieneko gastuei aurre egiteko.

1.2. Mantentze-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak

PGDIak Leyden-en erregresio-eredua aplikatzen du elkarren osagarri diren bi atalase lortzeko: pobreziarena, zentzu hertsian, eta ongizaterik ezarena. Atalase bakoitza zehazteko ekuazioa hau da:

$$Y^*_{\min} = \hat{\alpha}_0 + \hat{\alpha}_1 fs + \hat{\alpha}_2 g$$

non:

$Y^*_{\min}$: Pobreziaren edo ongizaterik ezaren atalasea, kasuaren arabera

fs : Familiaren neurria

g : Familien ohiko gastu arrunta

Hurbilbide honetan, elkarrizketatutako etxeek honako galdera hauei emandako erantzunei buruz landa-lanean lortutako emaitzetatik abiatuta lortzen da $y_{\min}$ aldagaia, zeinetik $y^*_{\min}$ atalasea eratortzen baita:

- * *Zuen etxekoen egungo egoeran, zein da hilaren amaierara iristeko benetan behar den gutxieneko diru-sarrera? (ongizaterik ezaren atalasea kalkulatzeko) eta;*
- * *Zuen etxekoen egungo egoeran, zein da oinarritzko beharrak betetzeko benetan behar den gutxieneko diru-sarrera? Elikadura, arropa eta oinetakoak, eta benetan oinarritzotzat jotako gainerakoak (pobrezia-atalasearen kalkulurako).*

G aldagaia, gastuari dagokiona, etxeek honako galdera honi emandako erantzunetatik lortzen da: *Batez beste, zenbatekoak dira familia honen hileko gastuak?*

Pobrezia gainditzeko edo, bizi-zikloko unearen arabera, eta etxeko erreferentziazko pertsonaren adina oinarritzat hartu eta neurtuta ondorio praktikoetarako, ongizate-maila nahikoa izateko premia-atalase batzuk baliatzen ditu PGDI metodoak. Hiru etxe mota kontuan hartzen dira, erreferentziazko pertsonaren adinaren arabera: 45 urtetik beherakoak, 45-64 urtekoak eta 65 urtetik gorakoak. Adierazi behar da adinaren araberrako atalaseak elkarrengana hurbiltzeko nolabaiteko prozesua gertatzen ari dela 2012tik.

2018an, metodoa aplikatzearen ondoriozko atalaseak hauek dira:

Mantentze-arloko pobrezia-atalasea eta ongizaterik ezari dagokion atalasea, PGDI metodoaren arabera 2018

(Datuak eurotan)

Etzekoen unitatearen tamaina	< 45 urte		45-64 urte		> 65 urte	
	Pobrezia	Absentzia ongizatea	Pobrezia	Absentzia ongizatea	Pobrezia	Absentzia ongizatea
Lagun 1	896,72	1.308,43	820,66	1.237,79	743,45	1.108,74
2 lagun	1.117,64	1.623,10	1.077,31	1.612,41	922,72	1.410,58
3 lagun	1.271,31	1.841,17	1.263,20	1.882,11	1.047,00	1.623,93
4 lagun	1.392,99	2.013,44	1.414,23	2.100,41	1.145,20	1.794,60

Iturria: GZEE-GPI 2018

1.3. Mantentze-arloko Eurostat pobrezia- eta prekariedade-adierazleak

PGDI metodoan, honako Eurostat adierazle hauek erabiltzen dira mantentze-pobrezia eta -prekarietatea neurtzeko:

a) Pobrezia larriaren adierazlea:

Biztanleko balia daitezkeen batez besteko diru-sarrera garbi baliokideen % 40tik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonak edo etxeak.

b) Pobrezia erlatiboaren edo diru-sarrera txikien adierazlea:

Biztanleko balia daitezkeen batez besteko diru-sarrera garbi baliokideen % 60tik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonak edo etxeak.

Metodoak baliokidetasun-eskala hau erabiltzen du (OCDE eskala zuzendua):

- Lehen heldua: 1,0
- Heldu gehigarri guztiak: 0,5
- Ardurapean dagoen 14 urtetik beherako seme-alaba bakoitza: 0,3

Ikuspegi horri dagozkion atalase espezifikoak hauek dira:

Diru-sarrera apalen eta pobrezia larriaren atalaseak, Eurostat metodoaren arabera. 2018

(Datuak eurotan)

Etzekoen unitatearen tamaina	Pobretasun larria	Pobrezia erlatiboa/ Diru-sarrera txikiak
Lagun 1	597,08	895,63
2 lagun	895,63	1.343,44
3 lagun	1.074,75	1.612,13
4 lagun	1.253,88	1.880,81

Iturria: GZEE-GPI 2018

0,5eko eskala bigarren pertsonarentzat, eta 0,3koa gainerakoentzat.

PGDI ikuspegiak pobrezia-tasari eta bazterketa-tasari (AROE) dagokien informazioa ere jasotzen du. Tasa horien esanahia metodologikoki zehazteko, ikus Eustat-en orri hau:

http://eu.eustat.eus/document/datos/PI_metod/INDES_europa2020_80_e.html

1.4. Pobrezia- eta prekariedade-adierazleak tratatzeko erabilitako indizeak

Bai PGDI metodoan bai Eurostat metodoan, pobrezia- eta prekariedade-adierazleak zenbait indize estatistiko kontuan hartuta zehatz daitezke. Hauek dira nagusiak:

a) H indizea, edo pobreziaren edo ongizaterik ezaren tasa orokorra

PGDIaren txostenetan eta tauletan baliatu ohi den adierazleak pobreziaren edo ongizaterik ezaren arrisku-tasari egiten dio erreferentzia, honela definituta:

$$H = q / n$$

Non:

q : kontuan hartutako egoerak eragindako populazioa baita.

n : populazio osoa.

b) Foster, Greer eta Thorbecke (FGT) indizeak

Indize horiek formula honetan oinarritzen dira:

$$FGT_{\alpha} = (1/n) \sum_{i=1}^q (g_i / z)^{\alpha-1}$$

Honela definitzen dira, α FGT(1), FGT(2), FGT(3) eta FGT(4)ri emandako balioetatik abiatuta. FGT(1) H pobrezia-tasaren berdina da.

Gainerako FGT adierazleei dagokienez, txostenean FGT(2) indizea baliatzen da, HI indizearen baliokidea.

$$HI \text{ indizea} = H * I$$

Non:

H : pobrezia-tasa (edo ongizaterik ezaren tasa).

I : SEN indizea.

PGDI ikuspegian, FGT (2) edo HI indizea mantentze-arloko pobrezia- eta prekarietate-egoeren jarraipena egiteko baliagarritasun handiko adierazletzat hartzen da. Izan ere, indize horrek aukera ematen du kontuan hartzeko pobrezia neurtzean gogoan izan behar diren elementuak (intentsitatea, distantzia eta barne-desparekotasuna). Gizarte-interpretazioa, gainera, transmititzen erraza da; izan ere, indizearen baliokide den pobrezia- edo ongizaterik ezaren tasa teorikoan, eragindako guztiak inolako baliabiderik gabe egongo lirateke, hau da, inolako diru-sarrerarik gabe.

c) Sen I indizea (income gap ratioa):

$$I = (g / qz)$$

Non:

$$g: \sum_{i=1}^q g_i = z - y$$

g_i baita pobrezia- edo ongizaterik ezari dagokion z lerroaren eta y etxeko diru-sarreraren arteko distantzia.

g -k alde horien batura jasotzen du, azterketan kontuan hartutako egoerak eragindako biztanleei dagokienez.

q : kontuan hartutako egoerak eragindako populazioa.

z : batez besteko pobrezia-lerroa (edo ongizaterik ezari dagokiona).

Adierazle horrek jakinarazten du zer distantzia metatu duten prekarietate-egoeran dauden etxeek edo pertsonak kontuan hartzen diren pobrezia-atalasez edo ongizaterik ezari dagozkion atalasez den bezainbatean. Ehunekotan neurtzen da.

1.5. Diru-sarreraren kontzeptua

Mantentze-arloko pobrezia eta prekarietatea kalkulatu eta neurtzeko, etxeetako diru-sarreraz edo balia dezaketen errentaz PGDIan erabiltzen den kontzeptua lau iturri hauetatik datozen diru-sarrera garbiena hileroko baturari dagokio:



- a) Diru-sarrera propioak, lanetik edo kapitalaren etekinetatik datozenak.

Lanaren eta kapital propioaren ustiapenetik datozen mota guztietako diru-sarrera garbiak biltzen dira, Ogasunarekiko ordainketei edo itzulketei lotutako doitzeak barne.

- b) Gizarte Segurantzaren prestazioetatik eta parekoetatik datozen diru-sarrerak.

Barruan sartzen dira Gizarte Segurantzak erretiroa, alarguntza, zuztasuna dela-eta ematen dituen prestazioak, bai eta senideen aldekoak edo baliaezintasunari lotutakoak, ordaindutakoaren arabekoak izan zein ez; aurre-erretiroagatik ematen direnak; langabeziako prestazioak edo sorospinak, lanbide-prestakuntzari eta enplegua sustatzeari lotutakoak eta mugikortasunarekin nahiz berriz kokatzearekin zerikusia dutenak barne; eta familiaren babesa (jaiotza, amatasuna, haurrak edo adin nagusikoak zaintzea) eta ardurapeko seme-alabak direla-eta aldizka ematen diren prestazioak.

- c) Gizarte Laguntzatik datozen diru-sarrerak eta beste laguntza sozial batzuk.

Barruan sartzen dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte-larrialdiko Laguntzak (GLL) direla-eta izaten diren diru-sarrerak; emantzipatzeko oinarritzko errenta (oraindik indarrean dagoen zatian); jaiotzaren edo adopzioaren ondoriozko ordainketa bakarreko prestazioak; ikasteko bekei lotutako diru-sarrerak, adingabeentzako laguntzak, laguntzagatiko beste prestazio publiko batzuk (munizipalak, foralak eta abar) eta pareko beste diru-sarrera batzuk (adibidez, EPE etxebizitzarako prestazio ekonomiko berria).

- d) Gizarte zibilaren laguntza osagarrietatik datozen diru-sarrerak.

Barruan daude senide, lagun edo bizilagunen zuzeneko laguntzetatik datozen diru-sarrerak, bai eta laguntza-erakunde partikular edo pribatuei dagozkienak ere (Caritas, Gurutze Gorria eta antzekoak).

Kalkulua, oro har, etxea (edo etxearekin pareka daitezkeen bizikidetza-unitateak) oinarri hartuta egiten da. Alde horretatik, diru-sarrera hertsiki pertsonaletan oinarritutako adierazleak berariaz eskaini ezean, adierazle indibidualen kasuan PGDI hurbilbidean erabili ohi den prozedura da pertsona bakoitzari esleitzea bizi den etxeko kide guztiei dagokien errentaren zati proportzionala.

Hartara, pertsona bakoitzak pobrezia- edo prekarietate-arriskuari dagokionez duen egoera etxe osoari dagokiona bera da.

1.6. Gabezia-adierazleak

Elikadura egokia izateko arazoak

a) USDAREN adierazleak (FSS)

Adierazle horiek PGDIan 2000. urteaz geroztik "Short Form of the 12-month Food Security Scale" (FSS) aplikatzearen emaitza dira. Estatistika-metodo hori Estatu Batuetan diseinatu zen komunitate jakin batean zituzten elikadura-arazoak neurtzeko, eta herrialde horretako Nekazaritza Sailak (USDA) erabili ohi du. Metodoak sei galdera ditu bertsio erraztuan, eta helburutzat du hiru biztanle-kategoria handi zehaztea, segurtasunaren ikuspegitik elikadura-beharrak betetzeari dagokionez duten egoeraren arabera. Zehaztutako kategoriak hauek dira:

- * Elikadura-beharren estalduran segurtasuna duten etxeak.
- * Segurtasunik gabeko etxeak, baina elikadura-beharrak betetzeari dagokionez muturreko asegabetasun-egoera (elikadura-arazo larriak) dutela aditzera ematen duen adierazlerik lotuta izan gabe.
- * Segurtasunik gabeko etxeak, elikadura-beharrak betetzeari dagokionez muturreko asegabetasun-egoera dutela aditzera ematen duten adierazleak izanda. Egoera horren ondorioz, inoiz-edo gose-egoerak edo egoera horien hurbilekoak hautematen dira (oso elikadura-arazo larriak).

Azken bi kategoria horietan elikaduran segurtasunik ez duten etxe guztiak (edo etxe horietako pertsonak) biltzen dira.

Inkesta egin aurreko urteko egoera kontuan hartuta zehazten dira kategoriak.

Esan behar da FSS galdetegian gosearen pertzepzioari zuzenean lotutako galdera bat dagoela: *Inoiz-edo gose izan arren, ez zenuten jan jateko nahikorik ez lortzeagatik?*



b) EU-SILC adierazlea

2004tik aurrera, eta elikadura-segurtasunik ezari lotutako arazoetarako hurbilbidearen osagarri, kontuan hartu da Europako EU-SILC estatistikako elikadura-adierazle nagusia. Adierazleak esaten du biztanleen zer proportzio ez den gauza gutxienez bi egunean behin ganorazko otordu bat ordaintzeko (haragi-, arrain-janari proteinikoa edo dagokion aukera begetarianoa).

PGDian, adierazle hori honako galdera hau egitea oinarri hartuta lortzen da.

Ahalmena dute haragia, oilaskoa edo arraina (edo parekoa begetarianoei dagokienez) daukan otordu bat ordaintzeko gutxienez bi egunez behin?

Inkesta noiz egiten den erreferentziazat hartuta aplikatzen da adierazle honi dagokion informazioa. Hortaz, egungo egoera adierazten du, eta ez azken urtean izandako esperientzia.

Zorpetze-arriskua

Zorpetze-arriskua honako bi baldintza hauek betetzen diren egoerei dagokie:

- * Etxeko hileroko gastuak handiagoak izatea balia daitezkeen diru-sarrerak baino.
- * Aurrezkirik ez izatea edo aurreztutakoa aski ez izatea hurrengo hilabetean ohiko gastuari aurre egiteko.

2. Metaketako pobrezia- eta prekarietatea (bizi-baldintzak eta erreserbako ondarea)

Metaketaren ikuspegitik, prekarietate ekonomikoari lotutako bizi-baldintzak gure gizartean ohikotzat jotako estandarren azpitik daude, etxeen bizitza epe luzean garatzen den ohiko esparrua zehazten duten ondasunak izateari dagokionez. Alde horretatik, metaketako prekarietateak lotura du etxeek ezin eskuratu ahal izatearekin epe ertain eta luzean gutxieneko bizi-maila egokia izateko behar diren kontsumo iraunkorreko zerbitzuak eta ondasunak.

Hala ere, prekarietateak, metaketari dagokionez, lotura du orobat etxeek arazoak izatearekin diru-sarreretan batzuetan egon daitezkeen krisi-uneetan bizimodu ekonomikoki normalizatua izateko gutxienez behar diren ondare-baliabideak metatzeko.

Testuinguru horretan, metaketako pobrezia-aren adierazgarri da ia erreserbako ondarrerik ez izatea, bai eta bizi-baldintzetan gabezia larriak izatea ere, bereziki ohiko etxebizitzaren ezaugarriei dagokienez (bizigarritasuna, ekipamendu erabilgarriak eta ekipamenduen maila). Ongizaterik ez dagoenean, bestalde, arazoak daude ongizatean bizitzeari dagokionez gizartean espero diren ereduak bermatzen dituzten kontsumo iraunkorreko zerbitzuak eta zerbitzuak eskuratzeko.

PGDIan, metaketako pobrezia- eta prekarietate-egoerei heltzean, etxeen egoera aztertzen da, kontuan hartuta etxebizitzaren instalazioei eta ekipamenduei nahiz ondare-baliabideei (etxebizitza, beste ondare-ondasun batzuk, metaketako aurrezkiak eta ibilgailuak) buruzko bizi-kalitateko adierazle batzuk. 2012tik aurrera, Europar Batasunak AROPE ikuspegian ezarritako gabezia-adierazleen sistema ere kontuan hartzen da, eta metaketa-alderdian prekarietatea neurtzearekin zerikusia duten gabeziak biltzeko adierazleak baliatzen dira.

2.1. Definizioak

a) Metatze-pobrezia

Metaketako pobrezia dagoenean, egoera ez da espezifikoa, orokorra baizik, prekarietate diferentzialekoa, epe ertainean eta luzean bizi-maila behar bezain egoki bat izateko behar diren kontsumo iraunkorreko ondasunak eskuratzeari dagokionez, maila hori ulertuta, batez ere, etxebizitza egokia, behar bezain ongi hornitua eta gutxieneko bizigarritasun-arauak betetzen dituen eskuratzeko ahalmenaren ikuspegitik. Metaketako pobreziak, epe ertaineko eta luzeko prekarietatea agertzeari lotuta dagoen neurrian, zerikusia du, halaber, etxeek, diru-sarrerei lotutako krisi-egoerak sortzen direnean edo larrialdietan bizitza normalizatua egiten jarraitu eta, horrenbestez, gutxieneko segurtasun ekonomikoa izan dezaten, gutxienez behar diren ondare-baliabideak metatzeko dauzkaten arazoekin.

b) Prekarietatea metatze-alderdian

PGDIak prekarietate-egoera batzuk zedarritzen ditu metaketa-alderdian. Barruan hartzen dituen gabezia-egoerak ezin dira pobrezia-egoeren parekotzat jo, eta ezaugarri dute gizartean ohikotzat jotzen diren kontsumo-zerbitzuak eta ondasunak epe ertain eta luzean ezin eskuratu ahal izatea.



2.2. Metaketako PGDI pobrezia- eta prekarietate-adierazlea

2012tik aurrera aplikatutako PGDI adierazlea

AROE adierazleen sisteman gabeziarekin zerikusia duten alderdiak ebaluatzeak bide berriak ireki ditu GPDI ikuspegian metaketako pobrezia eta prekarietatearen azterketa eguneratzeko egin beharreko prozesuan. AROE sistema kontuan hartzeak aukera ematen du, bereziki, aurrera egin eta hobeto bereizteko pobrezia hertsiki lotuta ez dauden eta ongizaterik eza ezaugarri duten egoerak. Errealitate berri hori kontuan hartuta, metaketako PGDI pobrezia- eta prekarietate-adierazlea eguneratu da, PGDIaren 2012ko lanetik abiatuta.

Adierazle berriak mugatutako kategoriak, pobrezia eta prekarietateari buruzko gizarte-pertzepzioarekin zer lotura duten aztertu ondoren, honako arrisku-egoera hauen presentziaren edo presentziarik ezaren arabera ezartzen dira:

* ARRIS1

Etxebizitzan oinarritzko instalazio batzuk izatea balioesten du: ur beroa, instalazio elektrikoak eta komun-ontzia nahiz bainuontzia edo dutxa.

Etxebizitzak ez badu instalazio horietakoren bat 1 balioa du.

* ARRIS2

Etxebizitzako oinarritzko ekipamendu hauetakoren bat izateari dagokionez dauden gabeziak balioesten ditu: hozkailua, sukaldeko etxetresna elektrikoak, garbigailua, labea edo mikrouhina, koloretako telebista edo telefonoa.

Aipatutako gabeziak bi edo gehiago badaude, 2 balioa du, eta 1 balioa, berriz, gabezia bakar bat badago.

* ARRIS3

Etxebizitzan honako hauekin zerikusia duten **beste arazo batzuk** izatea balioesten du: hezetasun-arazoak (itoginak; hezetasuna horma, zoru, sabai edo zimenduetan; usteldura leiho-markoetan, ateetan edo zoruan); etxebizitzaren azalera kide kopurua bider 20 m² baino txikiagoa izatea; zarata- eta kutsadura-arazoak; eta etxebizitza iluna, nahiko argirik gabea, edo argi natural urrikoa izatea.

Aipatu gabezia horietako bi edo gehiago izenez gero, 1 balioa du.

Aurreko baldintza betetzeaz gain, aipatu gabeziak ongi ekipatutako, zaindutako eta kontserbatutako etxebizitza ez izateari lotuta badaude, 2 balioa du.

Era berean, 2 balioa du gabezia bi edo gehiago izateko baldintza betetzen bada oinarritzko instalazioak izateari lotutako arazoak kontuan hartzean, eta aipatutako gabeziak etxebizitza eskas bati lotuta badaude (etxebizitza ondo hornitua, zaindua eta kontserbatua den ala ez kontuan hartuta).

* ARRIS4

10 urtetik beherako antzinatasuna duen ibilgailu bat ez izatea balioesten du.

Arrazoi ekonomikoengatik gutxienez horrelako ibilgailu bat ez izanez gero, 1 balioa du.

2014ko eta 2018ko lanetan, ikuspegia zertxobait egokitu da, denboran zeharreko konparazioari eutsi ahal izateko.

* ARRIS5

Adierazlea epe ertainean nolabaiteko aurrezpen-maila metatzeko ahalmenari lotuta dagoen neurrian, **ohiko etxebizitzatik kanpo** gutxienez **astebeteko oporraldia** izateko aukera balioesten du.

Azken 12 hiletan arrazoi ekonomikoengatik horrelako oporraldirik izan ezean, 1 balioa du.

* ARRIS6

Balioesten du zenbat hiletan eutsi ahal izango liokeen erreferentziazko unitateak ohiko gastu-mailari dauzkan aurrezki eta ondasunekin, ohiko etxebizitza salbuetsita (**erreserbako ondarea**).

Aurrezkiekin gastuari eusteko ahalmena 3 eta 12 hil artekoa bada, 1 balioa du.

Erreferentziazko ahalmena hutsa edo hiru hiletik beherakoa bada, 2 balioa du.

Kontuan hartuta bazterketa-arrisku horiek eta egokitutako balioak, bai eta biztanleriaren pertzepzioan pobrezia/ongizate-eskalako egoerei dagokienez izaten diren egiturazko aldaketak (epe laburretik haratagoko ondorioak dituztenak) ere¹², honako egoera hauek zehaztu dira aipatu eskalan:

1. Pobrezia

2018an, pobrezia-egoerek lotura dute honako arrisku hauetakoren bat edo batzuk izatearekin (arriskuak, lehenago emandako definizioen arabera):

¹² Gogoratu behar da pobrezia, prekaritatea eta ongizatea aztertzeko PGDI metodoaren oinarrian dagoen asmoa dela adierazle objektiboak egokitzea gizarteak berak fenomeno horiez duen pertzepziora. 2018an, metaketa-alderdiari heltzean izandako egiturazko pertzepzio-aldaketa horiek kontuan hartu dira, aurrez nagusiki pobrezia lotutako egoera batzuekin batera; izan ere, egoera horiek denboraldi jarraitu batean ongizaterik ezaren beste adierazpide batzuen berezkotzat hartu ohi dira. PGDIaren edo GZEE-GPI moduluen garapenean gutxienez bi fase operatibotan mantendu direnez gero, kasu honetan 2016an eta 2018an 2014. urteaz den bezainbatean, pertzepzio-aldaketa horiek 2018an kontuan hartzen hasi dira. Berekin ekarri dute gizarte-pertzepzioan izandako aldaketa hori kontuan hartu gabe baino gehiago murriztea metaketako pobrezia tasa.



- * $ARRIS1 = 1$.
- * $ARRIS2 \geq 2$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 \geq 3$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 \geq 7$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 = 6 + ARRIS4 + ARRIS5 = 2 + ARRIS6 = 2$.

Horrek adierazten du pobrezia-egoerak, metaketa-alderdian, honako egoera edo zirkunstantzia hauei lotuta daudela:

- * Gabezia bat izatea etxebizitzako oinarrizko instalazioetan.
- * Gabezia bi edo gehiago izatea etxebizitzako oinarrizko instalazioetan.
- * Oinarrizko instalazioei, oinarrizko ekipamenduei eta etxebizitzako beste arazo batzuei dagozkien gabezia guztietan, 3 balioa edo handiagoa.
- * Adierazlea taxutzean kontuan hartutako gabezia guztietan, 7 puntuko edo puntu gehiagoko balioa.
- * 6 puntuko balioa adierazlea taxutzean kontuan hartutako gabezietan, honako bi zirkunstantzia metatu hauek ere presente egonda:
 - Erreserbako ondarea aski ez izatea hiru hilabete bako bako gehiagoan eusteko ohiko gastu-mailari;
 - Oinarrizko bi gabezia arrazoi ekonomikoengatik, etxebizitzako instalazioekin eta ekipamenduekin zerikusia dutenak ez diren epe ertain eta luzeko kontsumoko ondasun/zerbitzuak (10 urte baino gutxiago dituen ibilgailu bat, edo astebeteko oporraldia izatea etxetik kanpo) izateari dagokionez.

2. Ongizaterik eza

Metaketa-alderdian, ongizaterik ezaren arloko arazoak aurreko kategorian sartuta ez dauden egoerei lotuta daude, eta egoera horiek etxean arriskuen metaketa arloko bi egoera hauetako bat dagoela islatzen dute.

- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 \leq 4$ ETA $[(ARRIS4 + ARRIS5 \geq 1$ ETA $ARRIS6 = 2)$ EDO $(ARRIS4 + ARRIS5 = 2$ ETA $ARRIS6 = 1)]$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 \geq 5$ edo ≤ 6 (pobreziaren arlokoak ez bezalakoak).

Oro har, ongizaterik ezari dagozkion horrelako arazoak daude baldin eta, metaketako pobrezia-egoera izan gabe, 4 puntura arteko balioa metatzen bada adierazlea taxutzean kontuan hartutako gabezien multzoan, eta, gainera, honako hiru zirkunstantzia metatu hauek gertatzen badira:

- Erreserbako ondarea aski ez izatea urtebeteen baino gehiagoan eusteko ohiko gastu-mailari;
- Oinarrizko gabezia bat arrazoi ekonomikoengatik, etxebizitzako instalazioekin eta ekipamenduarekin zerikusia dutenak ez diren epe ertain eta luzeko kontsumoko ondasun/zerbitzuak (10 urte baino gutxiago dituen ibilgailu bat, edo astebeteko oporraldia izatea etxetik kanpo) izateari dagokionez.
- Eta 3ko balioa edo handiagoa, ondasun eta zerbitzuen azken mota hori izateari eta erreserbako ondareari lotutako adierazleetan.

Hala ere, adierazlea taxutzean kontuan hartutako gabezietan 5 edo 6 puntuko balioa izan eta, gainera metaketako pobrezia adierazpide batzuen berezko zirkunstantzia espezifikoak ez daudenean ere pentsatzen da metaketako ongizaterik ez dagoela.

3. Gutxieneko ongizatea

Metatze-alderdian gutxieneko ongizate-egoera dagoela pentsatzen da, baldin eta aurreko kategorietan kontuan hartutako zirkunstantzia problematikoak ageri ez badira baina adierazlea taxutzean kontuan hartzen diren gabezietako bat gutxienez ageri bada, honako baldintza hau beteta:

$$\text{ARRIS1} + \text{ARRIS2} + \text{ARRIS3} + \text{ARRIS4} + \text{ARRIS5} + \text{ARRIS6} \geq 1.$$

4. Erabateko ongizatea (gabeziarik gabe).

Metaketa-alderdian, ongizate-egoera erabatekoa da inolako gabeziarik ez badago aztertutako arrisku-adierazleetan; hots:

$$\text{ARRIS1} + \text{ARRIS2} + \text{ARRIS3} + \text{ARRIS4} + \text{ARRIS5} + \text{ARRIS6} = 0.$$



3. Benetako pobrezia eta prekarietatea

Mantentze- eta metaketa-arloko pobrezia-adierazleekin ez bezala (bai bailiteke batzuetan konpentsa daitezkeen arrisku-egoerak baino ez adieraztea), benetako pobreziaren eta prekarietatearen adierazleek mugatu nahi dituzten egoeretan esan daiteke –gizartearen ikuspuntu orokorretik– **beharrak behar bezain ongi betetzen ez diren benetako egoerak** direla. Kasu horietan, pobreziaren edo eskasiaren bizipena errealitate bat da, gizartean nagusi diren ikuskeren arabera, baina baliteke pertsona horien ikuspegitik hala ez izatea.

3.1. Definizioak

Benetako pobreziaren tasak kontuan hartzen dituen egoeretan, pobreziaren mantentze- eta metatze-alderdietan ageri diren oinarritzko premiak nahikoa ez asetzeko arriskua ez dago nahikoa konpentsatuta eguneroko bizitzan, eta, horrenbestez, ezinezkoa da pobreziaren bizipenetik aldentzeko nahikoa den gutxieneko ongizatea eskuratzea.

Benetako prekarietatearen gainerako adierazpideei lotutako egoeretan, ez dago behar adina konpentsazio-elementurik hitz egiteko gizartean espero den gutxieneko ongizate-mailara iristeaz, eta ongizaterik ezaren benetako adierazpideak islatzen dituzte, pobreziaren bizipenari zuzenean lotu gabeak.

3.2. Benetako pobreziaren PGDI adierazlea

2012ko PGDI adierazlea

2012ko PGDI adierazleak 2012tik indarrean jarritako metaketako pobrezia-adierazle berria kontuan hartzen du, eta ikuspegi hertsiki objektiboaren alde egiten du, benetako pobrezia- eta prekarietate-egoerak mugatzeko.

Adierazle hori taxutzean, mantentze- eta metatze-adierazleetako posizioaz gain, lotutako beste prekarietate-elementu batzuk ere kontuan hartzen dira. Azken urtean gabezia-egoerak agertu izana da garrantzitsuena. Gabezia-egoera horiek honako hauek izanez gero sortzen dira:

- * Oso elikadura-arazo larrien esperientzia.
- * Oso elikadura-arazo larrien esperientzia, bigarren eskuko jantziak eskuratu behar izatearekin batera, edo arazoekin neguan etxean tenperatura egokia izateko diru-arazoen ondorioz, eta hori guztia oinarritzko gastuen murrizketari lotuta.
- * Elikadura-arazorik gabe bada ere, bigarren eskuko jantziak eskuratu behar izatea eta zailtasuna neguan etxean tenperatura egokia izateko diru-arazoen ondorioz, oraingoan ere oinarritzko gastuak murriztuta.

Beste prekarietate-adierazle batzuk ere kontuan hartzen dira, besteak beste, egoera hauei lotutakoak: ohiko diru-sarrerak txikiagoak izatea etxean, oinarritzko beharrei aurre egiteko, beharrezkotzat jotakoak baino; edo zorpetzeko arriskua dagoen egoerak.

Kontuan hartuta gizarteak batik bat zer pertzepzio duen aintzat hartu beharreko balizko egoera bakoitzaz, hauek dira benetako pobrezia-egoera edo prekarietatearen adierazlean definitutako kategoriak, eta kategoria bakoitzean bildutako egoerak:

1. Benetako pobrezia

Honako egoera hauek biltzen ditu:

- * Metatze-pobrezia eta metaketa-pobrezia batera agertzea.
- * Mantentze-arloko pobrezia-egoera, metaketa-alderdian ongizaterik ezaren arloko arazoak izatearekin batera.
- * Mantentze-arloko pobrezia-egoera, metaketa-alderdian gutxieneko ongizatea izatearekin batera, ongizate hori gabezia-arazoei lotuta badago azken urtean, egungo ohiko diru-sarrerak txikiagoak izanik oinarritzko beharrei aurre egiteko edo zorpetze-arrisku bati erantzuteko behar direnak baino.
- * Mantentze-arloko ongizaterik eza eta metaketako pobrezia.
- * Mantentze-arloko ongizate-egoera, metaketa-arloko pobrezia-egoera, errealitate horretan gabezia-arazoak izan badira azken urtean, egungo ohiko diru-sarrerak txikiagoak izanik oinarritzko beharrei aurre egiteko edo zorpetze-arrisku bati erantzuteko behar direnak baino.

2. Benetako ongizaterik ezaren beste adierazpide bat

Pobrezia-kategorian kontuan hartutako egoerak alde batera utzita, kategoria honek egoera hauek biltzen ditu:

- * Aldi berean ongizaterik eza izatea mantentze- eta metaketa-alderdietan.
- * Mantentze-arloko ongizatea eta metaketa-arloko pobrezia aldi berean dauden kasuak, benetako pobrezia-egoera kategorian sartuta egon gabe.

- * Mantentze-arloko ongizate-egoera, metaketa-alderdian ongizate ezari lotutako arazoak izatearekin batera, errealitate hori gabezia-arazoei lotuta badago azken urtean, egungo ohiko diru-sarrerak txikiagoak izanik oinarritzko beharrei aurre egiteko edo zorpetze-arrisku bati erantzuteko behar direnak baino.

3. Ongizate- eta arrisku-elementuak

Pentsatzen da ez dagoela ez pobreziarik ez ongizate faltarik nagusitzen diren ongizate-elementuekin batera, baina bai eta arrisku-elementuekin batera ere, aurreko kategorietan kontuan hartu gabeko zirkunstantzia hauek izanez gero:

- * Mantentze-arloko beste pobrezia-kasu batzuk metaketa-alderdian gutxieneko ongizateko errealitateak izatearekin batera, aurreko kategorietan sartuta egon gabe.
- * Mantentze-arloko pobrezia-egoera eta erabateko ongizatea metaketa-alderdian.
- * Mantentze-arloko ongizaterik eza metaketa-alderdian gutxieneko ongizate-mailak edo erabateko ongizatea izatearekin batera.
- * Mantentze-alderdian ongizate-egoera izateaz gain, aurreko kategorietan sartu gabe dauden metaketa-alderdiko ongizaterik ezari lotutako arazoak dauden beste kasu batzuk.

4. Ia erabateko ongizatea

Kategoria honetan bildutako zirkunstantzietan, mantentze-arloko ongizate-egoera bat metaketa-alderdian gutxieneko ongizate-mailari (baina ez erabateko ongizateari) lotuta dago.

5. Erabateko ongizatea

Kategoria honetan bildutako zirkunstantzietan, mantentze-arloko ongizate-egoera bat metaketa-alderdian erabateko ongizate-mailari lotuta dago.

4. Desparekotasun-adierazleak

PGDIak orobat ematen ditu gizarte-desparekotasunari buruzko adierazle batzuk, funtsean errenta baliagarriaren azterketan oinarrituak.

Hauek dira PGDIan kontuan hartutako desparekotasun-adierazle nagusiak:

a) S80/S20 erlazioa

Errentaren banaketan biztanleko errenta baliokide handiena duten pertsonen % 20aren eta errenta apalena duten % 20aren arteko erlazioa.

b) Gini koefizientea

Errentaren arabera banatutako populazioaren pisu metatuaren eta daukan errentaren pisu metatuaren arteko erlazioa, formula honen arabera lortua:

$$G = \left| 1 - \sum_{k=0}^{k=n-1} (X_{k+1} - X_k)(Y_{k+1} + Y_k) \right|$$

Non:

X: eragindako biztanleen proportzio metatua baita.

Y: errenta edo diru-sarreraren proportzio metatua.

Koefizientearen balioa 0 eta 1 artekoa da, eta 0 erabateko parekotasun-egoera litzateke, eta 1, berriz, desparekotasun handieneko egoera. Datuak ehunekotan aurkezten dira.

PGDIan, eta OCDE eskala zuzenduaren arabera, diru-sarrera baliokideen ikuspegitik heltzen zaio errentaren banaketari.

c) Diru-sarreraren lehen dezilak errenta osoan duen parte-hartzea.

Adierazle horrek gizartearen guztizko diru-sarrera baliokidean biztanleriaren % 10 pobreenari dagokion zatia jasotzen du.

2. ERANSKINA: 2016-2018 aldian pobreziaren eta prekarietatearen dinamikan kontuan hartu beharreko faktoreak

2016 eta 2018 artean pobrezia- eta prekarietate-adierazleen gainean izandako goranzko presioa harrigarria da alde z aurretik, ekonomia hazi eta langabezia gutxitu den aldi batean gertatu delako. Hala ere, faktore orokor batzuek aukera ematen digute ulertzeko presio horren oinarriak. Faktore horiek labur azaltzen dira eranskin honetan.


2000. urtetik EAEko pobreziaren eta prekarietatearen dinamikan garrantzi handia izaten ari den egiturazko prozesu bati lotuta dago lehen faktore erabakigarria. Etxeen edo bizikidetzak-unitateen kopurua etengabe eta biztanleen kopurua baino askoz gehiago handitzea da faktore hori.

EAEko etxeen kopuruaren gehikuntza-lerroa A2.1 grafikoan azter daiteke. Grafikoan ikus daitekeen bezala, 2000 eta 2012 artean gorakada nabarmena eta etengabea gertatu zen EAEko etxeen edo bizikidetzak-unitateen kopuruan: 2000. urtean 688.227 izatetik 2012. urtean 856.588 izatera.

Gehikuntza hori 2012 eta 2014 artean moteldu egin zen (856.588tik 876.999ra) eta guztiz eten zen 2014an, etxeen edo bizikidetzak-unitateen kopurua pixka bat gutxitu baitzen: 876.683. Hala ere, 2016-2018 biurtekoan, etxe edo bizikidetzak-unitateen kopuruak nabarmen egin du gora, eta 923.480koa izan da 2018an. Bilakaera horrek esan nahi du 46.797 etxe berri izan direla bi urtean baino ez; hau da % 5,3ko igoera gertatu dela 2016 eta 2018 artean.

A2.1 grafiko

EAEko etxeen eta bizikidetzak-unitateen kopuruaren bilakaera. 1996-2018



Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018


Etheen eta bizikidetz-unitateen kopurua handitzea bezain deigarria izan da handitze horrek oso nagusiki lotura izatea pobrezia- eta prekarietate-arriskurako joera handiagoa duten etxe motekin. 2016 eta 2018 artean etheen eta bizikidetz-unitateen kopuruan gertatutako igoeraren banaketa A2.2 grafikoa azaltzen da etxe motaren arabera.

Aipatu grafiko horretan, ikus daiteke etheen kopuruan gertatutako aldaketaren % 76ak lotura duela heldu gazteek, susperraldi ekonomikoak lagunduta, emantzipazioa lortzearekin eta immigrazio-prozesuarekin, zeinak batez ere Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetatik etorritakoak izan baititu ardatz. Hartara, aipatutako igoeraren % 43,3ak lotura du biztanle nazionalen (edo jatorria Europar Batasuneko estaturen bat dutenen) etxeekin, eta etxe horietako buruak 45 urtetik beherako gazteak dira. Horrez gain, gehikuntzaren % 32,7ari lotuta dauden etxeetan erreferentziazko pertsona EBkoa ez den herrialde batetik etorritakoa da, eta gehienetan gaztea (% 20,9; 45 urtetik gorako erreferentziazko pertsona dutenak, berriz, % 11,8 dira).

Etxe berri garbien % 24 baino ez dago lotuta pobraziaren eta prekarietatearen eragina konparatiboki txikiagoa den etxe motei.

A2.2 grafikoa

EAEn, 2016 eta 2018 artean etheen eta bizikidetz-unitateen kopuruan izandako igoeraren banaketa, etxe motaren arabera (% horizontalak)



Iturria: PGDI 2016 eta GZEE-GPI 2018

Pobraziaren eta prekarietatearen azterketa dinamikoan erabakigarria den bigarren faktorearen bidez paradoxa honetan sakon dezakegu: bizi-baldintza zailek ekonomiaren hazkunde- eta batez besteko diru-sarreraren handitze-testuinguruan iraun dute. A2.3 eta A2.4 grafikoez azpian dagoen dinamika ekonomikoa ulertzea ahalbidetzen dute.


EAEko herritarrek biztanleko eta 2018ko prezio konstantetan hilerio izandako batez besteko diru-sarrera baliokideak agertzen dira A2.3 grafikoa. Datuek berresten dute ekonomian 2016 eta 2018 artean izandako susperraldiaren garrantzi handia. Diru-sarrerak 2008 eta 2016 artean motel handitu ondoren (1.319 eurotik 1.384 eurora arte), 2018an nabarmen handitu dira 1.534 eurora arte (+% 10,8, 2016. urtearekin alderatuta, eta biztanleko PGDI baliokidetasuna kontuan hartuta). Gorakada hori konparatiboki handiagoa da 2004 eta 2008 artekoa baino (laurteko horretan, urtean batez beste, % 4,1koa izan zen; 2016 eta 2018 artean, berriz, % 5,3koa izan da), eta 1996 eta 2000 artean izandakoa baino ez da handiagoa. Atzeritarren immigrazioa kopuru handitan iritsi aurreko aldi horrek ezaugarri izan zuen biztanleko diru-sarrera baliokideen urteko batez besteko gehikuntza oso handia izatea: +% 10,1.

Hala ere, 2016-2018an erabakigarria izan da etxeetako ohiko gastuen igoera guztiz deigarria. Gastu horiek 1.146 euro izatetik 1.315 izatera aldatu dira, hau da, % 14,8 handitu dira, diru-sarrerak baino gehiago (% 10,8). Urteko batez besteko igoeren ikuspegitik, 2016-2018 aldiko bilakaeran, gastuak urtean batez beste % 7,1 handitu dira, 2004-2008 laurtekoan baino gehiago (% 3,8), eta 1996-2000 aldian izandako igoeratik hurbil (% 8,1). Nolanahi ere, bi aldi horiekiko desberdintasun handia da 2016 eta 2018 artean biztanleko gastu baliokideen igoera erlatiboa diru-sarrerena baino handiagoa izan dela.

A2.3 grafikoa

Biztanleko batez besteko ohiko diru-sarrera eta gastu baliokideen bilakaera. 1996-2018

Hileko datuak 2018ko euro konstantetan



Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharra: Biztanleko datu baliokideak PGDI baliokidetasunen arabera kalkulatzen dira


Eraitza, 1996tik biztanleko diru-sarrera eta gastu baliokideak alderatuta, balia daitekeen marjina txikienetako bat da. Bilakaera hori A2.4 grafikoa adierazita dago, azaltzen baitu zein izan den, berriz ere 2018ko prezio konstanteak kontuan hartuta, biztanleko batez besteko ohiko diru-sarrera eta gastu baliokideen arteko hileko batez besteko alde garbiaren bilakaera.

Grafikoak adierazten du EAEn, 1996 eta 2000 artean, aztertutako marjina izugarri handitu dela. Europako merkatu erkidean sartzeari lotuta izandako hazkundearen gorenean, diru-sarreraren eta gastuen arteko aldeak, 2000. urtean, 2018ko hileko 426 euroren pareko biztanleko eraitza positiboa utzi zuen, 2000ko 241 eurokoa baino % 76,8 handiagoa.

2000-2004an, immigrazio handia gertatu zen, bai eta gazte konparatiboki desfaboratuen emantzipazio-bolada handi bat ere, gazteok atzeratu behar izan baitzuten bizimodu independentea izateko aukera, aurreko mendeko 80ko urteetako eta 90eko urteen hasierako krisialdietan. Dinamika sozioekonomiko horren ondorioz, EAEko ohiko diru-sarreraren eta gastuen arteko batez besteko aldearen jaitsiera handia gertatu zen 2004an, 308 eurorena izan arte. 2008. urtean 371 eurora arte igo ondoren, finantza-krisiak 234ra jaitsarazi zuen alde hori 2012an, eta, 2012 eta 2016 artean, adierazlearen oinarritzko egonkortzea gertatu zen.

Baina gastuak gorakada handia izan duenez 2016 eta 2018 artean, diru-sarrerena baino handiagoa, 1996. urteaz geroztik izandako maila apalena izan du adierazleak 2018an. 219 euro hileko, batez beste. Hartara, beheranzko ildoak finkatu da; izan ere, 2014tik gertatzen ari zen. 2014 eta 2018 artean, -% 10,6 murriztu da ohiko diru-sarreraren eta gastuen arteko alde positiboa.

A2.4 grafikoa
Biztanleko batez besteko ohiko diru-sarrera eta gastu baliokideen arteko batez besteko alde garbiaren bilakaera. 1996-2018
Hileko datuak 2018ko euro konstantetan



Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZEE-GPI 2014-2018

Oharra: Biztanleko datu baliokideak PGDI baliokidetasunen arabera kalkulatu dira



2000 eta 2004 artean bezala, 2016 eta 2018 artean ere, berriz erabakigarria izan da immigrazioari eta talde behartsuen emantzipazioari lotutako etxeen kopurua handitzea, 2008ko krisialdiaren ondorengo arazo ekonomikoen ostean, eta susperraldiari esker, masiboki lortu baitute bizimodu independentea izatea biurteko horretan.